




Protokolo beltza

B E N J A M I N A U R R E K O E T X E A

BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

BENJAMIN AURREKOETXEA

protokolo beltza

HITZAURREA

Ez da ofizialki existitzen, ez da izendegietan agertzen, ez eta protokolo estandarren artean kontuan hartzen. Dokumentu ofizialetan ez dago idatzita, ez eta artxibo sekretuetan gordeta. Iluntasunean mugitzen da, eta, bere itzala, bakar bakarrik, hotsik gabeko pausoetan, baita ezkutuan antzematen da.

Ordea, badaude egoera batzuk, non egia, leialtasuna, eta memoria bera arriskutsuak izaten diren. Egia bilatzea hilgarria izan daiteke, leialtasuna krimena eta memoria akatsa.

Horrelakoetan, sistema bera ere gezur bihurtzen da. Gezurrezko egiturek erantzun faltsuak eskatzen dituzte eta erantzun oker bakoitzak ondorio itzulezinak izan ditzake. Orduan... Protokolo Beltza aktibatzen da.

Ez dago atzera egiterik, ez ezer galdetzekorik, ez eta azaltzekorik. Parte hartzen dutenek, kontzienteki zein inkontzienteki, ez dute inoiz jakiten jokoan zer dagoen.

Badakite, alabaina, jokoa bukatzen denean, erantzun guztiak desagertzen direla eta bizirik ateratzen direnek, egia jakin arren, ezin dutela inoiz dakitena aitortu.

Gaueko ordu ilunetan, hiriko kaleak hutsik zeuden, ia erabat. Udaberriko euri-jasa zoru gainean islatzen zen, farolen argia lausotuz. Hots bakarra ur-tantena zen, estolda-zuloen kontra txikitzen zena, eta, urrutitik, norbaiten urrats motel eta neurtuak zetozeela entzuten ziren.

Kaputxadun parkako patrikeran zuen paketetik zigarroa atera ondoren piztu, zupada sakona eman, eta Jesusen Zerbitzarien eta Alamedako Markesaren plazara zegoen ertzean gelditu zen, izen bereko jauregi zaharkituaren parean, non barruko argiak itzalita zeuden, ordea, usaintzen zen han norbait zain zuela, behinik behin, ezezagun batekin horrela geratua zegoen, ziurtasunez jakin gabe, gizonezkoa edo emakumezkoa izan zitekeen, eskaera idatziz eman baitzen. Esku batekin kapusaia ireki, eta zorrotik berarentzat ohizkoa zen bederatzikoa atera zuen, neurria hartzeko-edo.

Jauregiko ate nagusia pixkanaka irekiz zihoan, inork barrutik ukitu izan ez balu bezala, eta, keinu txiki bat egin ondoren, astiro-astiro barneratzen joan zen. Harreratik, eskailera zabal eta sendotik gora egin, eta egongela handiko mahai baten atzean eserita zegoen femme fatale zekusan, itxuraz segurtasuna antzematen zitzaiola. Ez zuen ezagutu. Berna bat bestearen gainean jarrita zuen, non bermatuta, atzamar puntetan makurtzen zen koadernoan izkiriartzen zuen. Eskuineko hatz erakusleaz alde hartako masaila laztandu, eta burua altxatu gabe hitz egin zion: —Berandu zatoz.

Matiasen erantzun lez irribarre sotila agindu zion, begiradan tentuz mantentzea nahi izan zuena. —Gaur ez dago presarik, ezta?

Andrazkoak kaiera itxi eta poltsan sartu zuen, begiak lehen aldiz Matiasen zuzenduz. —Dena aldatzen ari da. Ez dakit zenbat denbora izango dugun. —

Inor ez da betirako—, erantzun zion Matiasek, bazter batean zegoen kafetera automatikotik kafe ebakia ateratzera zihoala.

—Ez nauzu ezagutzen, ezta? Luzia naiz. Oraindik garunean lausoak dituzu, ezta?

—Bai, horrela da.

—Lasai, dena etorriko zaizu onera.

Barruko giroak ez zuen batere konfiantzarik ematen. Hormetan paper zaharrak itsatsita zeuden, batzuk bustita eta beste batzuk erdi erorita. Sabaian, bizitza gutxi geratzen zitzaion bonbilla erdi apurtu baten inguruan, aireak izaten duen hautsa zintzilik zebilen, noraezean bezala. Ordea, jakina egin zitzaion horrelako lekuak ez zirela inoiz kasualitatez aukeratzen.

Une hartan, jauregiko atzeko ateetako bat zarataz ozendu zen, eta urratsak entzun ziren hurbiltzen zihoazkiela. Matiasek poliki-poliki kafea edaten zuen, eta, halako batean, behin arnasa sakon hartu ondoren, astiro botatzen joan zen.

Bat-batean, Matiasi argiaren abiaduran gomutara heldu zitzaion, aurreko ikerketan erdi hilik amaitu zueneko. Odolaren usaina fresko zuen gogoan, larruazalean hotzaren ziztada, eta garunaren bazter batean iltzatuta betiko geratu zitzaion tiro hots arranditsua. Oraindik ere, iraganeko zauriaren oroitzapenarekin gorputza mintzen zitzaion. Segundo batez, zalantza egin zuen: Berrir ez ote zen egongo haizpitartearen ertzean amiltzeko galzorian.

Orduko elurte jelatuan, hiriaren beste bazter batean, handik ez hain urrun, eguerdi aldera, Matias odol putzu batean etzanda aurkitzen zen, Malkeridara sartzeko ahalegin hutsalean. Arnasestu ezinean zegoen, paparreko minari eutsi nahian. Haren eskua odolez blaitua zegoen, eta erlojuaren tik-tak-a

zirudiena entzumen hodira sartzen zitzaion, erritmo geldo eta zorrotzean. Gogoratzen zuen gauza bakarra danbada lehor eta burrunbatsua zen, eta, gero, isiltasuna. Halako egoera tamalgarrian, ez zuen aditu oinetako heze batzuk hurbiltzen zitzaizkiola, gainera, kopeta belztuan apenas gogoratzen zuen ahots lodi ezagunak belarrira xuxurlatu ziona: —Oraindik ez zaituzte hil, Matias. Eutsi, eutsi, lagun.

Gero, kontuak beste era batera etorri zitzaizkion. Handik egunetara, Txagorritxu ospitaleko ohe zurian, paparra josita, analgesikoen lozorroan esnatu zen. Ez zekien nork salbatu zuen, ez eta nork traizionatu. Baina, egun hartatik aurrera, bazekien bere bizitza ez zela inoiz berdina izango. Eta orduan, jauregi zahar hartako aulki batean eserita, airean usain bera sumatzen zuen. Arriskua gertu zitzaiola zegoen.

Ostera ere, gogoia ilunpean murgildu zitzaion, iraganeko zauriak berriro zabalduz bezala. Isiltasunaren erdian, beste behin, ospitaleko gela zuria ekarri zuen oroimenera. Erizainaren ahots leuna entzuten zuen urrunean, ordeia, hitzak lausotuta iristen zitzaizkion. Eskuak dardarka zituen, eta burua bueltaka. Hurrengo egunean, bere logelako atea ireki zenean, zain zuen bisitaria ez zen izan espero zuena.

Hainbeste denboraz bera hilda zegoela sinetsita egon zen norbait hurbildu zitzaion. Aurpegi ezaguna egin bazitzaion ere, haren begirada izotza baino hotzagoa zela antzeman zuen. Gizonak ezpain artean irribarre sotil bat egin eta esaldi bakarra jaurti zion: —Oraindik ez da amaitu.

Eta orain, apenaz urtebete geroago, jauregi zaharkitu eta ilun hartan, esaldi hura bere gogoramenean errepikatzen zen: “Ez zen amaitu. Ez zen sekula amaitu”. Begiak inguru guztian ibili zituen. Paretak hezetasun orbanekin

zikinduta, airean usain zaharkitua, eta supituan garunera denbora luzez ez zuela lagun gehiegi ikusi heldu zitzaion.

Mahai batzuen gainaldean hauts geruza lodia pilatuta ikusten zen, eta, inolako lotsarik gabe, beirateko edalontziak iraganeko erabileraren aztarnak erakusten zituzten. Hormak jantzi zahar bat bezala zetozen behera, kolore ilun eta bizigabeetan, eta sabaiko bonbillak argi ahul bat baino ez zuen isurtzen. Oraindik, kafe beroaren lurrina arnasten zuen bitartean, Matias inguruko iluntasunean murgilduta sentitu zen.

Urratsak gero eta hurbilago entzuten ziren, motel baina seguru zetozela. Itxuraz, femme fatale hark, hitzik ahoskatu gabe, segundo batez disimuluan, Matias goitik behera behatu zuen, berriz. Orduan, atzealdeko korridoreko atea astiro ireki, eta iluntasunaren gibeletik, itzal bat gerturatu zitzaion. Jauregiko argi urdinxkak haren soslaia luzatu zuen zoruan, eta Matias erne jarri zen, ezer gertatzekoa bazen ere.

Gizona motel mugitu zen. Bertako argiak aurpegia erabat bistaratu orduko, Matiasen eskuak instinctiboki mugitu ziren, bederatzikoa poliki-poliki oratuz, ordea, oraindik ez zuen erakutsi. Ezezaguna apur bat gehiago aurreratu zen, eta ahots lehor eta motelaz airea moztu zuen: —Ez zara aldatu, Matias.

—Ezagutzen nauzu? Nor zara?

—Bixente naiz, baina ikusten dut zure oroimenak lausotuta jarraitzen duela.

—Bai, hori dirudi.

—Lasai, dena etorriko da onera.

Argiak gizonaren aurpegia agerian utzi zuenean, Matiasen bihotza bizkortu egin zen apur bat. Ez zitzaion ezezaguna egiten, hala ere, iraganetik arrastaka zekarren aurpegia bezala antzeman zuen, urteetan ahazten saiatu izan bazen

eran, eta beti bere oinordekoa bezala itzultzen zitzaiona. Gizasemeak irribarre kezkarriarekin jarraitu zuen: —Oraindik ere, galderak egiten ari zara, ezta?

Femme fatalek ez zuen hitzik egin. Baina Matias konturatu zen haren hatzak berriro mahai gainera ekarritako kaieran estutzen zirela. Tentsioa airean sumatzen zen, udaberri aldean, bi aharito bata bestearen aurrean egokitzen direnean bezala.

—Zer nahi duzu? —Galdetu zion Matiasek, ahotsa hotz mantenduz.

Gizonak urratsa aurrera egin eta irribarrea agertu zuen; hala ere, haren begiak hutsik ziruditen. —Bada garaia erantzunak jasotzeko, horrexegatik etorri gara Luzia eta biok zu laguntzera.

Matias erne jarri zen. Jauregiko giro geldoan, gizon ezezagunaren irudia zama astuna bezala bihurtu zitzaion. Orduan, zarata lehor batek isiltasuna apurtu zuen. Behean, zerbait erori edo hautsi zen.

—Ez gaude bakarrik, Matias, —xuxurlatu zuen Luziak, koaderno mahai gainetik moteltasunez altxatuz.

Zarata berriro entzun zen, ordukoan urrats azkarragoen hotsarekin nahastuta. Norbait beheko solairuan saltoka ari zen, jauregiko egurrezko egitura zaharra dardarka jartzeraino. Matiasek erreminta poliki-poliki tiro egiteko miran jartzen zuen bitartean, Bixentek irribarre arinari eutsi zion.

—Ez dira gu bilatzera etorri, baina laster egingo dute, —esan zion ahots xehez.

Beheko solairuan ate bat kolpez ireki, eta urrats bizkorak eskaileretan gora zetozela entzuten ziren. Beste ezertan pentsatu gabe, Matiasek arma sendotasunez estutu zuen. Bixente, aldiz, irribarrea mantentzen saiatu zen,

alabaina, ikusten zitzaion haren begiradari urduritasuna pilatzen hasten zitzaiola.

—Ez duzu nahi izango hemen segadan jaustea ezta, Matias? —Luziak murmurikatu zion galdera, mahaipean zerbaiten bila zebilela.

Esku artean tolestuta eta zaharkitua zegoen paperezko sobre zuria erakutsi zion. Matiasek gezurrezko irribarrea agindu zion.

—Horregatik deitu nauzu, ezta?

Ez zuen erantzunik jaso. Bazirudien eskaileretan norbait geldiune laburtxoak egiten ari zela, ordea, apenaz segundo erdiren bueltan, berriro hasi ziren urratsen hotsak entzuten.

—Ihes egiteko bide bat behar dugu, —baietsi zien Matiasek, burua mugitu gabe.

Emakumeak hormari itsatsita zegoen armairu iluna eriaz erakutsi zion.

—Pasabide bat dago hor, baina ez dakit oraindik erabiltzeko moduan dagoen.

Bixentek burua makurtu zuen, irribarrearen atzean gordetzen zuen atezua ezkutatuz. Eskaileratik gora arineketan zetozen pausoak une hartan ia gelditu egin ziren, noraezean ibiliko baziren erara, hala ere, ez zen horrela gertatuko.

Eurek zeuden gelara ematen zuen korridorean argia keinuka hasi zen, elektrizitate sistema zaharrak huts egin bazuen eran, edo norbait piztu eta itzali nahita egiten ibiliko bazen antzera.

Matiasek armairuaren atzean zegoen pasabiderako atea ireki nahi bazuen ere, oztopo baten aurrean egokitu zen, sarbideko sarraila herdoilduta zegoen, eta egoera hark handik ihes egitea eragotzi egiten zien. Luziak besoak tolestu eta begiratu zion.

—Zer egin behar dugu? —Galdetu zion ahots apalez.

Matiasek sakelatik objektu bat atera eta mahai gainean pausatu zuen. Giltza zen, zaharkitua, metal herdoildua, denboraren zama nabarmen erakusten zuena. Une batez, begiek distira egin zioten: —Ez nuen espero holakorik berriro ikustea, —murmurikatu zuen, eskua gakoaren gainean pausatuz.

Kanpoan, bat-batean, auto baten ateak ireki ziren, bertatik hiru pertsonen irudiak irteten ikusteko, eta eurek zituzten pauso sendoek karrika zapaltzean ateratzen zuten hotsa, oso deigarria egin zen.

—Ez dugu denborarik, —esan zuen Luziak, atea zabaltzen saiatuz.

Berriro oinetako hotsa. Nabaria zen jauregiko korridoretik baten bat bazetorrela. Argiek keinuka jarraitzen zuten, eta hormetatik itzal bat irristatu zen. Tiro hots eta lehorrak eztanda bezala espazio osoa uholdu eta leihoa lehertu zuen, kristalen zati txikiak barrurantz ihes zetoze, norbaitek kanpotik bortizki jaurtita bezala.

Danbadaren gerora, Matiasek ez zuen zalantzarik izan. Pasabiderako atea bultzatu, sarrailearen zur zatia apurtu eta barrura sartu ziren. Bazirudien iluntasunak ingurua irentsi zuela. Ate zaharra berriro astiro ixten saiatzen ziren heinean, korridoreko aire hezea kolpe bat bezala heldu zitzaien.

Matiasek esku batekin horma ukitu zuen,itsu-itsuan espazioa aztertzeke asmotan.

—Honek duela gutxi erabilia izan dela ematen du, —murmurikatu zuen Luziak.

Adreilu gorriz egindako korridore estuko paretak zaharkituak zeuden. Sabaian itoginek arrasto nabarmenak utzita zituzten, eta, zoruan, urratsak baldartasunez ematera derrigortuz, hormetatik eroritako zaborra pilatzen

zen. Matias pausoz pauso aurreratu bazen ere, ez zekien segurtasunez iraganbide hark nora eramango zituen, bederen ez zuen gogoratzen.

Bat-batean, eurengandik haratago, argi zuri baten distira zekusaten. Matias konturatu zen ez zeudela bakarrik.

—Hor aurrerago badago norbait, —esan zien ahots xehez.

Hirurak burua altxatu eta poliki abiatu ziren aurrerantz. Luziak bere koaderno esku artean estutu zuen, zerbait ezatsegina gertatzear balego bezala. Matiasek bederatzikoa gertu zuen, tentsioan, jakitun argi hartara iristeko segundo batzuk baino ez zituztela falta.

Aurrera egin ahala, pausoak motelago ematen aritu ziren. Korridorearen amaieran, argiaren jatorria agerian geratu zitzaien: Ate erdi irekia argi hotz batek inguratzen zuen. Barruan norbait mugitzen zen, itzal bat, ordea, zehatz-mehatz ezin zitekeen jakin nor edo zer izan zitekeen.

—Gertu gaude, —ahots apalez bota zuen Bixentek.

Matias atearen ertzean zalantzati gertatu zen. Luziak ez bazuen hitzik esan ere esku bat poltsikoan barneratu zuen, zerbait hartzea nahi izango bazuen erara. Barrutik, urrats arinak entzun ziren. Bat-batean, sarlekuko arrakalatik kea usaintzen zen, eta norbaitek ahots xehez hitz egiten ziela entzun zen:

—Ez da espero zenuena, ezta, Matias?

Gau hura ez zen lasai amaituko.

Atea ireki eta iluntasunetik argitara sartzean, itsu geratu izan balira bezala zeuden, eta segundo batzuk behar izan zituzten, gela nahiko handi hartara egokitzeke. Hormetan agiri zaharrak eta txartel ilun batzuk itsatsita zeudela zekusaten. Erdialdean zegoen mahai bakarraren gainean, erloju borobil

handia, eta, aulki bakarrean, adin aurreratuan sartutako gizona eserita zegoen, zigarroa piztu berri, hatz lodi, erakusle eta luzearen artean zuela, pitean-pitean, hautsontziaren ertzean kolpetxo txikitxoak ematen zizkiola. Orduan, begirada Matiasi iltzatu zion.

—Badirudi denbora aurrera doala, Matias, —esan zion, doi-doi irri kezkarriarekin—. Galderak egiteko garaia duzu, edo ihes egiteko; zuk aukeratu beharko duzu.

Matias ez zen mugitu. Bere begirada gelako xehetasunetan pausatu zuen. Hormako dokumentuak hezetasunak hondatuak ziruditenak oraindik irakurtzeko moduan zeudela ohartu zen. Argazki bat zegoen erdian, bi gizonen aurpegiak ilunpetan nabarmentzen zirela. Batak begirada gogorra zuen, besteak irribarre urduria.

—Ez didazu erantzun, Matias. —Gizonak zigarroaren muturra hautsontzian kolpetxoka zanpatu zuen, haize arin batek kea gela osoan barreiatzen zuen heinean—. Batzuk itauntzen hasten direnean, galdeketa ezin dute gelditu. Zu horietakoa zara.

Matiasek ez zuen pistola jaso, alabaina, eskuak ez zituen lasaitu, eta erne zegoen zeozerk okerrera egingo bazuen ere. Luziak atzean jarraitzen zuen, arnasa ia etenda zuela, eta Bixentek hormako dokumentu adierazgarri bat behatzen zuen, mutur-iluna ilunpean ezkutatuz.

—Ez naiz hona galderak egitera etorri, —halako batean, erantzun zion Matias, hizkera zurrunari eutsiz.

—Bai, jakina! Dena dela, egingo dituzu. Itaunketak egitea zeure senean iltzatuta daukazu. Kontuak beti amaitzen dira horrela. —Gizonak erlojua

sosai begiratu, eta segundo-orratzaren tik-tak-ak isiltasuna zeharkatu zuen—. Bada, denbora gutxi geratzen zaizu eta aukeratu behar duzu.

—Nortzuk dira? —Galdetu zion Matiasek, hatz erakusleaz argazkia aditzera emanaz.

Gizonak, barre egiteko irriñoaz, itzalita zuen zigarroa hartu eta berriz piztu zuen. Kea ahotik motel atera zuen sabairantz.

—Saiatu zaitez asmatzen. Lehendik ere hemen egonda zaudenez, jada zerbait jakin beharko zenuke.

Erretratua hobeto ikusteko hormara gerturatu zen. Handitxoa zen eta alboetan izen batzuk irakur zitzakeen, alabaina, gehienak tinta urtua zuten eta zail egiten zitzaion ezer ulertzea. Haietako bat, hala ere, garbi zekusan: "Iñaki Zaldua".

Matiasek begirada gizonaren aurpegian pausatu zuen, berriz.

—Zaldua. Zurea al da abizena edo bera bilatzen ari naiz?

Gizonak barre arin eta lehorra eman zion erantzunaren hasierari.

—Nik ez diot inori neure izena oparitzen. Baina, bai, Zalduari buruz galdetzen badidazu, bere aztarna jarraitzen ari zara.

—Zer zuen hain garrantzitsua? Ez dut ulertzen hemen bere izena zergatik dagoen. —Sakatu zion Matiasek.

Gizonak zigarroaren erpina astindu zuen, errautsak hautsontzian eror zitezen. Bere esku zahartuekin dokumentuetako orri bat hartu eta poliki tolestu zuen.

—Zaldua nor zen jakitea baino garrantzitsuagoa da zergatik ez dagoen hemen. Eta nork bilatzen duen.

Matiasen Luziari so egin zion. Andrazkoak hitzik egin ez bazuen ere, kaiera sendo eutsiz jarraitzen zuen.

Kanpoan, ohizkoa egin zena, urratsak motel zetozen, bazetozen, norbait bazetorren. Ematen zuen Matiasen nahi zituen datuen atzetik jende partida bat zebilela, talde desberdinen izenak zeintzuk izan zitezkeen, inork argitasunez jakin ez baitzekien ere. Oro har, estoldetan diruaren inguruan mugitzen zen jendea.

Matias pausatu egin zen. Begirada mahai gainean jarri eta agirietako batean, letra xehez idatzita, beste izen bat irakur zezakeen: "L. Aranguren". Izenak ez zion ezer esaten, ordea, Luziak koadernoan zabaldu zuenean, agerian geratu zitzairen orrialdearen bazterrean Aranguren ezizena azpimarratua agertzen zela.

—Hau ez da kasualitatea, —ahopean bota, eta jarraitu zuen hitz egiten.

—Zalduak zerbait bazekien. Arangurenekin zerikusia zeukan, eta hori da gu hemen egotearen arrazoi bakarra.

Gizon ezezagunak begirada tinko izaten jarraitzen zuen.

—Galdera gehiegi egiten dituzu eta, batzuetan, erantzunek nahi baino gehiago esaten dute.

Matias aurreratu egin zen. Esku batekin agirietako bat hartu eta sakonago aztertzen hasi zen. Orrialdeetan kodeak eta zifrak ere ageri zirela zekusan, alabaina, informaziorik garrantzitsuena, erdi ezabaturik edo zikindurik zegoela ohartu zen. Orduan, esku bat mahai gainean pausatu zuen, botatzekoak zituen hitzak pisu gehiagorekin ilki ziezazkion-edo.

—Zaldua ez da galdera bat. Erantzuna da. Eta Aranguren... hor dago benetako giltza.

Luziak, berriro ere, kaiera azkar ireki eta esaldi hura idatzi zuen.

Kanpoan, urratsak azkartu egin zirela entzuten zen, eta, baita, eurek zeuden espazioko atearen azpitik itzalak mugitzen ikusten hasi ziren.

Orduan, atea dardarka jarri zen, kanpotik norbaitek indarrez joten duenean ipintzen diren bezala. Matiasek instinctiboki bederatzikoa gogor eutsiz eskua goratu zuen, ordea, ezezagunak gelditzeko keinua egin zion.

—Oraindik ez, —ahots xehez agindu zion, zigarroari beste zupada bat ematen ziola, eta jarraitu zuen—. Badakizu orain arte zer ibili zaren bilatzen, baina oraindik ez duzu aurkitu.

—Zuk bai? —Matiasek begiak estututa ihardetsi zion.

Mantso egiten zuela barre, gizon ezezagunak erlojua begiratu, eta mahai gaineko agirietako bat hartu zuen. Orrialde erdi tolestua Matiasi luzatu zion. Bertan, "Zaldua" eta "Aranguren" izenekin lotutako zenbait kode agertzen ziren, orrialdearen goialdean lerro bat garbi nabarmentzen zela:

“DOKUMENTUA: 12-A. HIRUGARREN IZENA: L.”

Matias ohartu zen lerro hura ez zuela aurretiaz inon ikusi, eta begirada altxatu zuen.

—Zer esan nahi du honek? Azaldu diezadakezu? —Galdetu zion, ahotsa ohi baino baxuago jarritz.

Gizonak irribarre txikia agerian zuela, zigarroaren errautsa astiro astindu zuen hautsontzian, eta hitzak motel ahoskatzen zituela erantzun zion.

—Hirugarren izena falta zaizu. Zaldua pista bat da. Aranguren giltza. Ikusten duzunez, puzzlea osatzeko, oraindik pieza bat falta zaizu.

Luziak begirada altxatu zuen, zerbait gogoratu izan balu bezala, eta azaltzea nahaspila hartan ezinbesteko gehigarria zelakoan. Kaieran, orri batzuk azkar pasatu eta, bat-batean: —L..., —esan zuen, ia ziurtasunez.

Bitartean, euren espazioko atearen bestaldean, burrunba gero eta ozenagoa zen. Azken bultzada batekin, kanpotik atea irekitzea lortu zuten, eta iluntasunetik itzal bat agertu zitzaien, eskuetan zekarren linternaren argi hotzak gela erabat zipriztintzen zuela. Arropa hezeak zituen, eta aurpegia oraindik ilunpean zuena, distiraren ostean mantentzen zuen. Tipoak zuen arnasketa motel eta sakona, ez zen arineketan egindako nekearena, beste zerbait zen, seguraski, zain egon den norbaitena zitekeen.

Matias ez zen mugitu. Bederatzikoa eskuan bazuen ere, ez zion oraindik inori zuzendu. Luziak atzerantz egin zuen, poliki-poliki, kaiera bularraren ondora estutuz.

—Nortzuk zarete? —Etorri berriak ahots urratuz galdetu zien.

Soinua gelan hedatuz joan zen, paretek erantzunik emango ez baliote bezala. Emakumearen begiek ilunpetan distira egiten zuten, zegoen tokiko argiztapen urria baliatuz-edo.

—Ez dugu denborarik, —esan zuen erloju handiaren ondoan eserita zegoen gizon adinduak, eta mahaian zituen dokumentuak eskuetan hartzen zituen heinean, ikertzaile pribatuari ondorengoa bota zion. —Matias hirugarren izena ezagutu nahi baduzu, orain duzu aukera.

Matiasek arnasa sakon hartu zuen, eta gorputzari bere nahierara botatzen utzi zion. Atzean, sarraila hautsi atearen beste aldean zeuden itzal gehiago mugitzen ari ziren. Ez zegoen jakiterik, haratago zenbat pertsona egon zitekeen.

—Esan izena. —Agindu zion Matiasek, hotz eta irmo.

Erlojuaren ondoan eserita zegoen gizonak irribarre egin zuen, hala ere, ezpainetan azaldu zitzaiona ez zen poztasun keinua izan. Zigarroaren azken kea erabakitasunez jaurti zuen kanpora, eta motel hitz egin zuen erantzuna emateko:

—Lasa. Andoni Lasa.

Matiasek begiak iltzatzen zizkion heinean, bere barrena dardarka hasi zitzaion. Izena ez zitzaion ezezaguna egiten. Ez zion sekula arreta handirik jarri, ordea, hiriaren mugimendu ilunetan entzundako zerbait zen. Zaldua, Aranguren... eta orain Lasa.

Atearen itzaltsuan, oinetakoen marruskadura entzun zen. Ez zen jada kolperik, ez zarata kaotikorik. Orduan, erabateko isildura nagusitzen joan zen, eta hori beti izaten da arriskugarriena. Matias erne jarri zen. Ez zuen beharrezkoa izan inork beste azalpenik eman ziezaion, han zegoen mututasuna zerbaiten aurretik egokitu zela ulertzeko. Bederatzikoari sendo eutsi zion eta, bada ezpada, Luziak atzera egin zuen, hormaren kontra, berriz ere, koaderno bular aldean irmoki estutzen zuela. Une hartan, inori jaramonik egin gabe, gizon zaharrak mahai gaineko dokumentuak hartu eta patrikeran gorde zituen. Keinua txiki batekin, Matias begiratu zuen.

—Prest al zaude?

Inork ez zuen erantzunik itxaron. Argiak keinuka hasi ziren, eta, bat-batean, oinetako astunen zarata hotsak gelako zorua dardarka jartzen zuela, atearen atzean zegoen beste itzaletariko bat aurreratu zen. Norbaitek arnasa sakon hartu, eta iluntasunaren sakonetik ahots urratuaz hitz egin zien:

—Hemen ez daude guztiak, Matias.

Matiasetik hotzikara bat sentitu zuen, bizkarrezurretik behera zihoakiona. “Nor zen? Zer esan nahi zuen hark?” —Isilpean bere buruari galdetu zion. Begiak itzalak banantzen saiatu baziren ere, argi hotzak ez zuen laguntzen. Luziak hitzik gabe begiratzen zuen aurrera, eta gizon zaharrak burua astiro astindu zuen, ezker eskuin.

—Berandu heldu zarete, —murmurikatu zuen bigarren ezezagun heldu berriak.

Argiak haren aurpegia agerian utzi aurretik, itzalak beste urrats bat aurrera egin zuen. Emakume altua zen, praka estu ilunak janzten zituen, eta aurpegian nekearen arrasto sakona islatzen zitzaiona. Begirada Matiasengan finkatu zuen, eta, inolako hitzik esan gabe, gelako giroa are gehiago artelatzea lortu zuen.

Matiasetik bederatzikoa astiro altxatu bazuen ere, ez zuen oraindik erabaki erabiliko zuen ala ez. Luziak arnasa eutsita mantendu zuen, eta, gizon zaharrak, mahaian eserita, inolako presarik agertu gabe, piztu berri zigarroari beste zupada bat eman zion.

—Nor falta da? —Galdetu zion Matiasetik, ahotsa irmo mantenduz.

—Zure galdera okerra da, —esan zion heldu berri andreak, azkenean. —Ez da nor falta den, baizik eta nork ez lukeen egon behar hemen.

Matiasetik begiak estutu zituen, ordea, ulertuko ez bazuen bezala egin zuen. Gizon zaharrak, beste behin, oraingoan indartsuago, burua astindu eta patrikeratik mahai gainera ateratako agirietako bat hartu zuen. Buelta eman, eta Matiasi erakutsi zion. Bertan, argazki zahar bat ageri zen, tinta zuriz egindako oharra gainean zituena. Argazkian hiru gizon agertzen ziren: bata

Zaldua, bestea Aranguren... eta hirugarrena, itzal baten barruan ezkutatuta zegoena.

—Lasa ez zen beti itzalean egon, —han zeuden guztiei azaltzeko moduan esan zuen erlojuaren ondoan eserita zegoen gizonak—. Baina, norbaitek hala nahi izan zuen.

Luzia dardarka zegoen. Bere kaieran bilatu, eta, azkenean, orria aurkitzea lortu zuen. Bertan, letra txikiz idatzita, izen bat zegoen.

—Ez, ez da posible, —xuxurlatu zuen.

Matias hurbildu zitzaion, eta izena irakurri zuenean, odola izoztu zitzaion. Ez zen espero zuena.

Ezkaratzean, norbaitek ate nagusiaren kontra kolpe irmo bat jo zuen. Tentsioa areagotu egin zen. Mahaira eserita zegoen gizonak Matiasi begiratu zion, aurpegia serio.

—Oraindik ihes egin dezakezu, —esan zion—. Baina galdera bat gehiago egiten baduzu, ezingo duzu atzera egin.

Matiasak arnasa sakon hartu zuen, beste behin. Kalean, kanpoko atea berriro dardarka jarri zuten. Azkar mugitzen ziren urratsen azantza zetorren. Geroz eta hurbilago antzematen zituzten.

—Hau da zure azken aukera, Matias, —esan zion berriro erloju ondokoak—. Edo galdera hori egiten duzu, eta egiaren atarian sartzen zara, edo atea irekiko dute, eta, zure ordeztu, egia zein den beste norbaitek jakingo du.

Gelan isiltasunak espazioa irabazia zuen. Luziak esku izoztu ahurrekin hamaikagarrenez koadernoan estutu zuen. Kanpoan, oinetakoen

marruskadura eten egin zen. Zain zeuden. Barrukoak ez zekiten zer gertatuko zen, alabaina, argi zuten ez zutela denbora askorik.

Matiasek begirada gizon adinduarengan pausatu zuen berriro. Argazkiak, dokumentuak, izenak... Pieza guztiak bere buruan nahasten hasi ziren. Zaldua, Aranguren, Lasa... Eta orain, oraindik irakurri gabeko izena.

Pistola jaitsi zuen. Egin zuena ez zen konfiantzazko mugimendua izan, bere burua konbentzitzeko nahiaz egindakoa baino, dena kontrolpean zuela agerian uztekoa. Begiak mahai gaineko paperetan finkatu zituen, eta hauts artean hatzarekin izenaren lehen letrak igurtzi zituen.

—Nork ez luke hemen egon beharko... —errepikatu zuen instintiboki burua biratuz—. Baina, hala ere, hemen dago.

Luziak bere arnasketa azkartu zuen. Bera ere ohartu zen.

—Ez, Matias, —esan zion, begiradan beldur pitina nabari zitzaiola—. Ez zenuke galdera hori egin beharko.

Hala ere, berandu zen. Matias jada jabetua zen. Argazkian falta zen aurpegiaren inguruko itzala ez zen ustekabekoa. Norbaitek ezkutatu egin zuen. Zaldua eta Aranguren ez ziren gakoak... Itzala bera zen giltza.

Orduan, euren espazioko atea zabaldu egin zen.

Apurtutako zurezko zati bat zoruaren kontra erori, eta hauts lodi batek dena estali zuen. Matiasek urrats bat egin zuen atzera, bederatzikoa oraingoan guztiz altxatuta zuela. Luziak hormaren kontra itsatsita arnasari eutsi zion, eta erlojuaren ondoko gizona mahaiaren alboan geratu zen, zirkinik ere egin gabe.

Ate haustuaren ondotik, beste itzal bat barrura irristatu zen. Une batez, argi keinukariak haren mugimenduak desitxuratu zituen, ordea, azkenean, bere osotasunean ikusteko moduan geratu zen. Gizon bat zen. Ile motza, aurpegia goibela zuena, eta soinekoak bustita zituena. Itxura gordin eta nekatuaz ikusten zen. Begiek hutsunea islatzen zuten, eta ahoan irribarre gordina zeraman marraztuta.

—Aspaldi ez gara elkartu, Matias, —esan zion doinu idorra erabiliz.

Matiasek ez zuen erantzun. Arma tinko mantendu zuen, baina tentuz, oraindik tiro egiteko unea heldu ez bazitzaion erara. Begiak gizonaren eskuetara mugitu zituen. Elementuak eskuak poliki goratu zituen, keinurik egin gabe.

—Ez dut erremintarik, —esan zion, lasai—. Ez dut beharrik.

Haren hitzek Matias ezeroso sentiarazi zuten. Gelan inork ez zuen paradarik egin arnasa sakon hartzeko, tentsioa izoztu egin baitzen.

Gizon adinduak azkenean hirugarren zigarroa itzaltzeko hautsontzian birrindu, eta honako hau bota zuen:

—Beharbada, beranduegi da galderak egiteko.

—Inoiz ez da beranduegi, —moztu zion Matiasek, begirada oraindik ere aurrean zuen gizon ezezagunarengan finkatuta zuela—. Nor zara?

Argi hotzaren azpian hobeto ikus zezaten, gizonak urrats bat aurrera egin zuen. Haren aurpegian itzalek forma hartzen joan ziren, eta, ondorioz, Matiasen gorputzak dardara txiki bat egin zuen.

—Andoni Lasa, —esan zuen, ahotsaren soinua motela eta sakona aditzen zitzaiola—. Eta badakizu zergatik nagoen hemen?

Une batez, ez zuen inork ezer esan. Adrenalinaren eraginez Matiasen gorputza gogortu egin bazen ere, bere burua kontrolpean izatea lortu zuen. Egindako galdera beste era batera bideratzea erabaki zuen.

—Nor da nire bila datorrena? —Galdetu zuen azkenean, ahotsa hotz mantenduz.

Lasak irribarre egin zuen. Orduan, kanpoan berriro ere urratsak entzuten ari ziren, motel baina etengabe.

—Ez du axola nork bidali dituen, —erantzun zion Lasak, begiradan distira ilun bat agerian utziz—. Axola duena da iritsi direla, eta, ematen du, estoldetan dagoen jende guztia datorrela honantz. Denak larrituta omen daude; guzti honek argia ikusten badu, eurek akabatuta egongo liratekeelako.

Orduan, pistola hotz batek Matiasen bizkarra ukitu zuen. Une batez, arnasari eutsi zion. Ez zuen atzera begiratu behar beranduegi zela jakiteko. Gorputza tentsioaren eraginez oraindik gogor zuen. Lehenengo ezezaguna zen eskuan pistola sendoki estututa zuena, eta ematen zuen han mantenduko zuela, tiro egitea erabakiko zuen arte.

Sarritan bezala, atzera ere isiltasuna astuna bihurtu zen. Kanpoan, urratsak hurbilago entzuten ziren, motel eta zuzen, norbaitek ekintza bakoitza neurtuko balu bezala. Lasak ez zuen begirada aldatu, eta oraingoan irribarre txiki bat zuen ezpainetan jarrita.

—Denak iritsi dira, —ahots sakon eta lehor batez, ikertzailearen garondoan berrogei eta bosteko Norinco-a itsatsita zuen lehenengo ezezagunak xuxurlatu zuen, jarraian ondorengoa gaineratzeko—. Eta zu, Matias, prest al zaude?

Matiasak ez zion erantzun. Arnasketa geldo baina sakona mantenduz, gorputza erabat erne jartzea lortu zuen. Pistola bizkarrean sentitzen zuen, eta bazekien noren eskuetan zegoen. Begiak aurrean finkatuta zituen. Lasa aurrez aurre, geldia, zirkinik egin gabe zegoen, aurpegia itzal artean ezkutatuta, eta argi hotzaren azpian.

—Zein aukeratu behar dut? —Galdetu zuen azkenean, ahotsa irmo baina kontrolpean mantenduz.

Hutsunea islatzen zuen begirada zorrotza izaten jarraituz, Lasak burua apur bat okertu zuen. Pistola eusten zuenak ez zuen hitzik ahoskatu. Bat-batean, kanpoan urratsak gelditu egin ziren, hala ere, euren gelako atearen beste aldean arnasketak entzuten zituzten, argi utziz norbait hurbilegi zutela.

—Aukera ez dago zure esku, —erantzun zion Lasak—. Baina zuk nola jokatu duzun, horrek dena alda dezake.

Une batez, isiltasuna aspergarri bihurtu zen. Pistola hotzaren presioa Matiasen garondoan handituz joan zen. Bultzada hura ez zen bakarrik metalezko armak eragiten zuena, une hartan airean zegoen artegatasunak sortzen zuena baino. Matiasen burua kalkulu azkar batean murgildu zen: “zenbat pertsona, zenbat tiro, zenbat aukera”. Hala ere, bazekien orduko hartan zenbakiek ez zutela ezer esan nahi; zorioneko edo madarikatuta egotea zen kontua.

Itzal berria gela ilunean oso-osorik agertu zenean, argiak haren begitartea agerian utzi zuen. Ez zen Matiasak espero zuena. Ez zen bere iraganeko itzalen artean bilatu zezakeen aurpegia. Hala ere, haren begiradak zulo beltz bat ematen zuen, eta segundo laurdenean irudikatu zitekeen ahotsak denboraren gainean zapaltzen zuela. Supituan, Matiasi hots egin zion:

—Badakizu nork bidali nauen, Matias.

Ez zen galdera, baieztapena baino. Matias ez zen mugitu, ordea, barrutik iragana eta oraina borrokan hasi zitzaizkion. Argi eta garbi zekien hizketan jartzea gehiegi izango zela. Aurrean zuen laugarren ezezagunak irribarre goibela egin, eta esku bat poliki altxatu zuen. Mugimendua ez zen mehatxu egiteko, zerbait erakusteko baino.

Hatzen artean, tolesdurak eta orbanak agerian erakusten zituen paper zaharkitu bat zuen. Matiasak begirada estutu bazuen ere, ez zuen urratsik eman. Luzia oraindik isilik zegoen, alabaina, haren eskuak berriro ere dardarka ikusten ziren. Bixente prest zegoen bere aldean, geldirik, begira. Erlojuaren ondoko gizon adindua mahaiaaren ertzean ez jakinaren itxura egiten bazegon ere, aurpegian esateko asko, denbora gutxi, eta zalantza gehiagorekin hauteman zitekeen.

—Hau da bilatzen zenuena, —papera luzatuz, laugarren ezezagunak esan zion—. Baina agian ez zenuke hartzea nahi.

Gauzak ukitu aurretik, hatz lodi eta erakuslea erabiltzeko ohitura zuenez, eskaera egiten balego bezala, keinu txikiaz papera eskuetan hartu zuenean, Matiasi barrenak astindu zitzaizkion. Agiria ireki eta barruko lerroak begiratu zituen. Oso gutxi idatzita zegoen, ordea, berarentzat nahikoa zen.

"12-A DOKUMENTUA: HIRUGARREN IZENA."

Eta behean, sinadura bat. Ez zen Zalduarena, Arangurenena ere ez, ezta Lasarena, berak ezagutu eta ahaztu nahi izan zuen norbaitena baino.

Izen hura irakurri zuenean, Matiasi begiak pamitxak izango balira bezala zabaldu zitzaizkion. Ez zen posible. Ez zuen sekula pentsatuko egunen batean

berriro haren izena idatzita aurkituko zuenik, ordura arte, haren heriotzaz sinetsita zegoelako, ordea, orain errealitateak gordin jo zion.

Bat-batean, karrikatik zarata bortitz bat entzun zuten, auto baten atea kolpeka zelan ixten ziren, eta, jarraian, urrats azkarrak hurbiltzen zitzaizkiela aditu zuten. Ezin zuten bertan geratu.

—Mugitu behar dugu! —Oihukatu zuen Bixentek bere aldamenetik.

Luziak ikusten zuen, Matiasek papera oraindik eskuetan zuela, eta haren aurpegiak nabarmen azaltzen zuen aurkikuntza mingarria egin zitzaiola.

—Matias... Zer da? Norena da sinadura hori?

Baina, une hartan, Matias ez zen ezer erantzuteko gai. Suspertzeko denbora behar zuen. Ihes egin behar zuten. Agiriak, berak erakusten zuena baino gehiago, ezinbestekoa zena agertzen zuen.

Behean, atea kolpez itxi zen, eta, Matias konturatu zenerako, bizkarrean Norinco-ari eusten zion andrea desagertu zen. Hala ere, hura horrela izateak ez zuen esan nahi borroka amaitua zenik. Ez, borroka orduan hasiko zen.

Matiasek begirada bizkortzea lortu zuen, eta Bixenteri keinu egin zion. Ezin zuten bertan harrapatu.

—Atzeko irteera? —Galdetu zion Matiasek, arnasari eutsiz.

—Badago bat sukaldearen ondoan, baina... —Bixentek esaldi erdian gelditu behar izan zuen. Behean eskopeta baten tiro hotsa entzun zen, eta trangatuta zegoen egurrezko ate nagusiari tamaina dezenteko zuloa egin zioten, guztiz zabaltzeko eran jarritz. Beste itzal batzuk barneratu ziren eta jauregiko iluntasunak erabat irentsi zituen.

—Goazen, azkar! —Oihukatu zuen Luziak.

Hirurak korridorean barrena abiatu ziren. Une batez, Matiasek burua biratu zuen gibeletik zetozkien urratsak zenbatu beharrean: Gutxienez bi, bazitekeen hiru izatea.

Atzeko irteeratik, jauregiko-zerbitzuaren eskaileratik kalera ateratzea lortu zutenean, euriak karrikak bustita zituen. Kanpoan Bixentek bertan utzitako autoa zegoen. Atea zabaldu, jarlekura egokitu, eta Matias eta Luzia sartu zirenean, sakatu zuen, farolen argipean autoa aldapa behera abiaraziz. Atze aldetik tiroak noraezean.

Azkenez, hiriko kale ilunetan barrena galdu zirenean, autoaren motor hotsak lagunduta, lasaitasunezko arnasa heldu zitzaien.

—Orain bai, —esan zien Matiasek, poliki-poliki, agiria berriro eskuetan hartuz—. Orain norbaitek esan diezadake ze demontre den hau?

Bixente mutu geratu zen, eta kasurik egin gabe, gidatzeari ekin zion. Ordea, Luzia aurrerantz makurtu, bere koadernoak hurbildu, eta azkenengo idatzoharra zuen orrialdea zabaldu ondoren, ikusi zuen izena azpimarratuta zuela. Jarraian Matiasek egindako galderari ihardetsi zion:

—Arrunki esaten den bezala, hau da bilakaera iraunkorrean dagoen egoera. Hau ez da kasualitatea, Matias. Hau plan bat da. Eta, gu, guzti horren erdian gaude.

Bixentek ispilutik begiratu zien, aurpegia ilun. —Zer zabiltzate zuon artean? Nork sinatu zuen dokumentu hori, Matias?

Matiasetik begirada bortitza zuen. —Hilda egon beharko zukeen norbaitek, edo hori uste nuen. —Erantzun zion, bat batean.

Luziak koadernoan zerbait idatzi eta arnasari eutsi zion. —Orduan, nor ari da gu hiltzeko erabateko asmoarekin. Nor edo nortzuk dabiltza saiakera horretan?

Matiasetik burua makurtu zuen erantzuteko. —Bai, baina oraindik ez dut guztia ulertzen. Norbaitek gauza gehiegi ezkutatu ditu. Eta galdetzen didazu nortzuk dabiltzan gu hil gurean? Ba, estoldetan ibili izan direnak, eta oraindik orain horretan dabiltzanak. Ikerketak aurrera egin heinean, dena argituko da, eta, egon ziur, kontu larriak azaltzen hasiko zaizkigula.

Gerora, autokoek iluntasunean murgilduta jarraitu zuten, kaleko argiek aurpegietan itzalak marrazten zizkiotela. Eurretako inork ere ez zekien hurrengo geldiuena non egingo zuten; gainera, galdera berriak laster hasiko zitzaizkien azaleratzen.

Matias agiria esku artean estutzen ari zen, garunean izen ezagun hura iltzatuta zuela. Bere bederatzikoak eztanda egin, eta bestea lurrera joan zenekoa finkatu zitzaion, handik irtetea nahi ez balu bezala. Oraindik, tentsioz beteta zeukan gorputzak adrenalina moteltzea eskatzen zion.

—Plan bat... —Errepikatu zuen, Luzia begiratu. —Baina noren plana?

Luziak koadernoan itxi eta Bixente begiratu zuen. Hark ez zuen oraindik ezpainenetik hitzik jaulki. Autoak bira egin, eta hiriaren erdiguneko argiak

atzean utziz, lasai jarraitu zuen aurrerantz. Barruan giroa oraindik beroegi zegoen, hala ere, ahots ozenduaz egindako galdera batekin eman zion hasiera hausnarketari:

—Ez zarete ezertaz ohartu? Agiri hau ez da soilik pista bat. Hau froga bat da. Norbaitek guk hau aurkitzea nahi izan du.

—Baina nork? —Ahotsean zalantzazko doinua antzematen zitzaiola galdetu zion Luziak. Alegia, oraindik nerbioen kontrola osorik bereganatu gabe zuela ematen zuen.

Matiasek esku batekin bekokia igurtzi zuen. Dokumentua ez zen ustekabeen etortzen den zerbait. Ez zen okerreko tokian aurkitutako aztarna. Zuzenean utzi zioten, eskura eman zioten, agiriak zer ezkutatzen zuen jakin gabe.

—Beraz, —jarraitu zuen Bixentek—, hiru aukera ditugu: norbaitek guk hau jakitea nahi izan du, norbaitek guk okerreko bidea hartzea nahi du, edo norbaitek informazio honegatik hilda ikustea nahi gaitu. Guzti hau singularrean bota dut, baina seguraski pluralean izango da.

Matiasek lagunaren gogoetari ez zion erantzun, nolabait, barnean logikak eta senak oraindik borrokan zebilzkion.

—Baina norena da sinadura? —Tematu zen Luzia, agiria berriro hatzarekin adieraziz.

Orduan, Matiasek arnasa sakon hartu zuen. Orri baten goialdean, orain argi eta garbi irakur zitekeen izena, behinola, ezagutzen zuen pertsona batena zen.

— Hau... ez da posible, —xuxurlatu zuen.

Bixentek ispilu batetik bezala begiratu zuen. —Nor da, Matias?

—Norbaitek... hilda zegoela esan zidan norbaitena. —Esan zuen Matiasek, begirada galduta—. Ez ziren Iñaki Zaldua, L. Aranguren eta Andoni Lasa bakarrik, laugarren bat ere bazegoen, eta laugarren hori da garrantzi handiena duen gakoa.

Isiltasuna astuna bihurtu zen, aspergarri ezartzeraino. Autoak astiro-astiro jarraitu zuen aurrera, hirurak berri horren zama euren artean banatzen hasten zirela.

—Orduan, —irribarre garratz batekin, Bixentek gaineratu zuen—, hori argitzeko denbora gutxi izango dugu.

Luziak leihotik kanpora begiratu eta jabetu zen auto baten argiak atzetik zetozkiela.

—Bixente adi, atzetik datozkigu, —esan zion, ozen.

Matiasek agiria tolestu eta patrikan gorde zuen. Elkarri begiratu zioten, erabat ziur izanez gauak ez ziela atsedetik ekarriko.

—Jarrai dezagun, —esan zien Matiasek, burdina poliki-poliki eskuarekin oratuz—. Erantzunak oraindik bidean daude.

Bixentek autoa eskuinera biratu eta moteldu zuen abiadura. Kale estu batean sartu ziren, non faroletako argi horixkak errepide bustian islatzen ziren. Hainbat karrika eta bihurgune ibili ostean, helmugara iritsi ziren.

—Hemen geldituko gara, —esan zien Bixentek.

Matiasek leihotik begiratu zuen. Zaharkitutako taberna bat zen, kanpoaldean izena jartzen zuen kartel apurtu bat zintzilik zuena: "Casablanca".

—Barruan dago? —Galdetu zion Matiasek.

—Bai, —erantzun zion Bixentek. —Aspaldi ez dut ikusi, baina behar dugun informazioa norbaitek baldin badu, zalantzarik gabe, berak dauka.

Matiasek burdina gerrikoan jarri zuen. Luziak ez zuen ezer esan, berriz haren begiradan kezka sumatzen zen. Gau hura ez zen erraza izango, aldiz, ezinbestekoa zitzaien informazioa eskuratzea, eta horregatik ausartu ziren urrats luzea aurrera ematen.

Barneratu ondoren, Matiasek tabernako giroa aztertu zuen. Bazter batean, mahai beltz baten atzean eserita, gizon bakarra zegoen. Bizar zurixka eta aurpegia markatua zuen, eta baso bate whisky esku artean.

—Denbora arin joan da, Matias, —esan zion, goibeltasuna azaltzen zuen irribarre apalaz. Gizonarengana hurbildu ostean, haren ondoan eseri zen. Albo batean, Luzia eta Bixente aspalditik ezagutzen zutenari begira geratu ziren.

—Josu, —esan zion Matiasek—, lagun zahar bat behar dugu.

Josuk begirada altxatu eta basoa mahai gainean pausatu zuen.

—Berandu etorri zarete, —esan zuen ahots mantso eta irmo batez—. Baina lagundu egingo zaituztet.

Josuk, Matiasen iraganeko lagunak, tabernako giro ilunean zigarro bat piztu zuen. Luzaroan isilik egon zen. Halako batean, hitz egitea erabaki aurretik, zera esan zion:

—Agiri hori ez da kasualitatea, Matias; jende asko dabil horren atzetik; ez zara bakarra.

Matiasek begirada finkoa bota zion. —Badakizu zer den, ezta?

Josuk buruarekin baiezkoa egin zuen, etenik gabe, basoa esku artean biratzen zuela. —Hori baino gehiago, badakit nor ari den guzti hau ezkutatzen, baita zergatik nahi duen ostendu.

Bixente eta Luziak elkarri begiratu zioten.

—Nor? —Galdetu zion Luziak.

Josuk zigarroaren kea bota eta serio begiratu zion.

—Hori aitortu baino lehen, baldintza bat bete behar didazue, —gaineratu zien—. Informazioa emango dizuet, baina trukean, niretzat zerbait egin behar duzue.

Matiassek ez zuen ezer erantzun, aldiz, zuzen begiratu zion. Luziak eta Bixentek euren artean beste hainbeste.

—Zer nahi duzu? —Galdetu zion Bixentek, azkenean.

Josuk basoa astiro biratu, eta irribarre sotil bat marraztu zuen.

—Norbait topatu behar duzue niretzat, —esan zuen, ahots xehez—, eta bizirik ekarri.

Matiassek hatz erakuslea mahai gainean kolpatu zuen. —Nor?

Josuk burua apur bat makurtu, eta hirurei serio begiratu ostean, —Nerea Otxoa, —esan zuen—. Badira sei hilabete desagertuta dagoela, eta hari buruz zerbait badakizue, nik baino informazio gehiago daukazue.

Izena entzun bezain pronto, Luziak kaieraren orrialde batzuk azkar pasatu zituen. Azkenik, orri zahar bat aurkitu zuen, bertan izen bera azpimarratuta azaltzen zena.

—Ez da kasualitatea, —murmurikatu zuen.

Papera begiratu ostean, Matias artegatu egin zen.

—Nor zen Nerea Otxoa, Josu? Zergatik da hain garrantzitsua?

—Nerea Otxoa abokatua zen. —Hasi zen Josu—. Ez abokatu arrunta, ordea. Urte luzez hiri honetan gertatzen ari ziren azpijoko batzuen erdian ibili zen. Kasu batzuk jorratu zituen, hobe esanda, batzuek nahi ez zituzten kasuak.

Matias, Luzia eta Bixentek elkarri begiratu zioten. Josuk osterara ere basoa bere aurrean pausatu eta jarraitu zuen.

—Sei hilabete lehenago, Nereak agiri bat aurkitu zuen. "12-A Dokumentua" bezala ezagutzen den hori. Bertan, hainbat izen eta kontu ilun ageri ziren: polizia ustelak, negozio ilunak, eta ustez hilda zeuden pertsonen izenak. Dokumentu hori esku okerretan eroriko balitz, batzuk kartzelara joango lirateke. Beste batzuek, berriz, agian ez lukete egunsentia ikusiko.

Luziak eskuetan zuen kaiera estutzen zuela baieztatu zuen: —Eta desagertu egin zen.

Josuk burua baietz egiteko keinua eginez ekin zuen. —Ez zuen ikerketa publikatu. Baina hura desagertu eta gutxira, berri hori han-hemenka mugitzen hasi zen. Orain, askok diote hil egin zutela, baina nik badakit bizirik dagoela.

—Zelan dakizu zuk hori? —Ahots hotzaz Matiasek galdetu zion.

Josu une batez isilik geratu zen. Gero, mahai gaineko hautsontzian utzita zuen zigarro erdi errea hartu, xupada luzea bota eta kea gorantz jaurtiz erantzun zuen:

—Duela bi aste, Nerea nirekin kontaktuan jarri da. Eta ziurtasunez diotsut bera zela; bai, bera zen. Nerea bizirik dago.

Une hartan, tabernako atea bortizki ireki zen. Soineko ilun eta hiltzaileek izaten duten jas horretako bi gizon sartu ziren. Josuk ezpainak estutu zituen, eta ahots apalez murmurikatu zuen:

—Berandu gabilta.

Matias, Luzia eta Bixentek elkarri begiratu zioten beste behin. Taberna barruan tentsioa gorenera heldu zen. Kanpoan, baten batek autoaren motorra piztu zuen. Barneratutako tipo baxuenak poliki-poliki eskua poltsikora eraman zuen.

—Josu, —galdetu zion Matiasek—. Hau ez da kasualitatea, ezta?

Josuk zigarroaren kea bota zuen, eta irribarre arinaz erantzun zion:

—Ez, Matias. Hau hasiera besterik ez da.

Segundo gutxiren buruan, tiro hotsa entzun eta botila bat hautsita lurtean lehertu zen. Josu berehala mahaiaren azpira makurtu zen, eta Luziak Bixenterekin batera babesa hartu zuten.

Matiasek ez zuen itxaron. Eskua bere gerrialdeko burdinera eraman, eta lehenbiziko tiroa bota zuen. Bi elementuak ahal izan zuten lekuan ezkutatu ziren, berehala botatzen jarraitzeko; haietariko bala batek tabernako egurrezko barran zuloa egin, eta besteak komunako bidean galdu ziren.

—Atera hemendik! —Oihukatu zuen Josuk, Luziari keinu eginez. Luzia bizkor mugitu zen, mahai bat bultzatu eta ate aldera korrika hasi zen. Bixente adi zebilen, tiro egiteko aukera baten bila.

Matias lerratu egin zen, lurretik tirokatzeko. Bala batek etsaien ondoan jo zuen, besteak handienaren bekoki erdian eta lurrera seko amildu zen. Gero,

barruko ispilua hautsi egin zen, txikituta zatitxoak zoruan barreiatzen zirela. Orduan heldu zen Bixenteren oihua. —Orain edo inoiz ez!

Ate aldera korrika egin zuten, etsaietakoak botatako tiroak saihesten ahaleginduz. Azken segundoan, Matiasek atzera begiratu zuen, eta irribarre gaiztoa zuen tipoetakoa oraindik zutik zekusan. Bota zion eta ezezagunak berea egin zuen.

Tabernatik jalgi, eta kale ilunean hasi ziren korrika, piztu berri autoaren zaratarantz abiatuz.

—Hau ez da bukatu, —esan zien Josuk, arnasa hartuz—. Orain bai benetan arriskuan gaudela.

Autora sartu bezain laster, Matiasek Bixenteri itaundu zion: —Zu ez zinen ba 22koaren aldekoa?

—Kontxo, zeozer gogoratzen hasi zara?

—Bai, apurka-apurka badatorkit freskotasuna garunera.

—Bai, lehen bai, ondo dakizu gainera, baina zeurea gertatu zenean, eta, ospitalean zeundela, Luziak eta biok ikertzaile pribatuaren ikastaroa egin eta karneta lortu genuen. Orain nik ere bederatzikoa daramat, legala, e!, eta, Luziak 22koa.

—Ondo.

—Mikel oroitzen duzu?

—Ez.

—Gure taldeko laugarrena.

—Non dago?

—Zeurea gertatu zen gau berean hil zuten.

—Hiltzaileen atzetik hasi zineten?

—Ez. Gaur arte, zure zaintzan eta erdi ezkutatuta ibili izan gara.

Matias isilik geratu zen. Bat-batean: —Kontu honi amaiera ematen diogunean-edo, Mikelen heriotzagatik mendekua hartuko dugu. Gure kontra sartzen denak jakin behar du zer daukan!

—Egun hori noiz etorriko nago. —Erantzun zion Bixentek, aurrera begira.

—Mikelek bazeukan familiarik?

—Bai, emaztea eta semea.

—Egin duzue euren aldeko zeozer?

—Zeozer txo bai. Batik bat, zuk agindukoa.

—Pentsatu beharko dugu gehigarri gisa zer egin.

—Hori izaten da errazena eta gehienetan estimatuena.

—Horixe orduan. Zenbaki egokia zein litekeen asmatu behar dugu. Ados, Luzia?

— Jakina baietz, Matias.

Ordu erdi geroago, Matias, Luzia, Bixente eta Josuk hiriko auzo baztertu batean gelditu zuten automobila. Toki ilun bat zen, eta han ez zen inor bizi, gainera bertan behera utzitako eraikin baten lur azpiko parkingean zeuden. Barruko hauts eta hezetasun usaina bazter guztietara hedatuta zegoen.

Luzia hankak gurutzatuta eseri zen egurrezko aulki zahar batean. Arnasa sakon hartu eta poltsatik kaiera belaunen gainean bermatu zuen. Bixentek ate ingurua aztertu zuen, norbait atzetik segika ez zitzaiela etorri ziurtatzeko-

edo. Josuk txamarra kendu eta mahai zahar baten kontra pausatu zen, eta jarraian zigarro bati sua eman zion.

—Zer demontre egin dugu? —Murmurikatu zuen Luziak, burua ezker-eskuin astinduz.

—Bizirik jarraitu, besterik ez, —erantzun zion Matiasek, irmo eta poliki-poliki—. Baina orain argitu behar duguna zera da: Benetan nor den Nerea Otxoa, eta berari buruzko informazioa zergatik nahi duten ezabatu?

Josuk begirada jaiki zuen eta kea aho indarrez askatu zuen. —Badakit leku bat jende gutxik dakiena eta susmoa dut zer edo zer aurkituko dugula. Arazo bakarra da han ez garela bakarrik egongo.

Bixentek eskuak gurutzatu eta gezurrezko irribarre bat egin zuen. —Noski, beti dago tranpa bat.

Isiltasuna txoko guztietara zabaldu zen, bakoitzak hurrengo pausoa aztertzen aritzeko beharrezkoa izango bazuen erara. Asmoa ona zen, berriz, argi zegoen gauzak ez zitzaizkiela errazegi etorriko.

—Aipatzen dizuedan lekua hiriaren beste aldean dago. Ustez nago, Santa Klara izeneko monasterio abandonatuan zeozer mugitzen dela. Aspaldian, kartzela gisa erabilia izan zen, baina duela ez dakit zenbat urte, itxi egin zuten. Orain ez du inork bisitatzen; hala eta guztiz, badakit han norbait ezkutatuta bizi zela. Agian, Nerea bertan egon liteke, edo, behintzat, bere aztarnaren bat aurkitzeko aukera izan genezake.

Bixentek kopeta zimurtu zuen. —Zergatik monasterio batean?

Josuk ahots xumeaz jarraitu zuen. —Ez zen kartzela arrunta. Dokumentu horrek ezkutatzen dituen gauza batzuk han hasi ziren. Eta gaur egun ere, han norbait badago, seguruenik zerbait jakingo duela.

Matiassek mahaiaren ertza estutu zuen. —Urrats honek arriskutsua dela ematen du.

—Bai, baina aukera bakarra dugu, —erantzun zion Josuk, eta gaineratu zuen—: Gauza bat argi izan behar dugu, han sartzen bagara, agian ez garela erraz aterako.

—Orduan plan bat behar dugu, —erantzun zion Matiassek, irmo—. Ez gara haraitsu-itsuan sartuko.

Bixentek mahai gaineko hautsari hatz erakuslearekin marra bat egin zion. —Gutxienez bi sarbide behar ditugu. Bata, aurreko atetik, seguruen blokeatuta egongo dena, eta, bestea, agian zertxobait alternatiboagoa... leiho zahar bat, edo horrelako zerbait.

Zorrotik tableta atera ostean, Luzia zerbait bilatzen hasi zen. —Nik kanpoko planoak aztertuko ditut. Arrisku handiko lekua bada, ez da erraza izango baina.

—Eta zer bilatu behar dugu? —Galdetu zien Josuk.

Matiassek zuzenean erantzun zion. —Nerearen aztarnak, eta dokumentu gehiago. Baina, batez ere, bizirik egon daitekeen norbait aurkitzea, sari potoloena lortzea izango litzateke.

Luzia bere tabletan plano zaharrak aztertzen hasi zen. —Hemen dago, alboko sarrera zaharra. Erabiltzen ez den klaustro txiki bat du, eta, horrek, atzeko basorantz, irteera bat izan dezake. Hori izan liteke barrura sartzeko gure bidea.

Josuk burua astindu zuen. —Gauzak okertzen badira, irteteko zidor ezkutu bat edo, beharko genuke. Entzuna dut inguruan tunel erako sarrera bat zegoela, baina ez dakigu egoera onean egongo den ala ez.

—Orduan, onena, basora ematen duen atzealdeko klaustrotik sartzea izango da. —Baieztatu zuen Bixentek—. Eta han ikusiko dugu zer aurkitzen dugun.

Santa Klara monasteriora bidean, auto barruan taldea isilik zihoan. Kanpoan, iluntasunak eta euri arinak errepideko argiak lausotzen zituen. Zenbat eta hurbilago egon, orduan eta handiagoa zen tentsioa.

Bide nagusia saihestuz, errepide bazterrean geratu ziren, basoaren ertzean. Handik, zuhaitzen artetik, monasterioaren ingerada iluna ikus zitekeen. Eraikin zaharra, harri gorritz egina, ilunpetan altxatzen zen, bere historia itzaltsua islatzeko beharrizanaz-edo.

—Hortxe dago, —esan zuen Josuk, eta gaineratu zuen—, Bixente gelditu hor autoa. —Behin, kanpora irtenda, begiradarekin aztertu zuen eraikina—. Ilun dago. Ez da seinalerik, baina horrek ez du esan nahi hutsik dagoenik.

Tabletan, Luziak plano zaharra ikustea lortu zuen. —Klaustroko sarrera hemendik iparraldera dago, itxita egon badaiteke ere. Beste aukera bat, zera izango litzateke... —Plano digitalaren ertz bat ukitu, eta leiho zahar bat seinalatu zuen—. Behatzen baduzue, hemen hegoaldeko pareta dago. Argibide gisa esango dizuet, jendeak jarritako iruzkinak daudela, eta, diote, sabaia hondoratzen ari dela; agian hortik sartzeko aukera izango genuke.

Matiasek bederatzikoa oratu zuen. —Ondo da. Ondorengoa egingo dugu. Bixente eta ni klaustrotik saiatuko gara. Zuok biok leiho horretatik. Zerbait okertzen bada, ez itxaron, alde egin.

Tentsioak airea larritu zuen. Ezer esateko beharrik gabe, bikote bakoitza bere bidera abiatu zen, monasterio zaharreko iluntasunaren barrura sartzeko.

Lehen pausoak ematera zihoazela, Matias eta Bixentek klaustroaren inguruan zerbait mugitzen ari zela antzeman zuten. Ustez, harri zaharren

artetik, batetik bestera zebilen itzala zitekeen, isilpean, haiek iritsi arte zain egongo zena, eta, jendea ikustean, eurek urduritu gurean zebilena. Une hartan, hots xehea entzun zen, eta pistola baten metalezko kargagailuaren klik zorrotzak artegatu zituen. Bat batean, gau isilean, tiro lehorra lehertu zen.

Matias eta Bixente instinctiboki lurrera bota ziren. Burdinak prest zituzten, ordea, tiro egin zuenaren kokapena non egon zitekeen ezin zehazturik zebiltzan. Harrien artean oihu apal bat entzun, eta berehalakoan urrats arinak korridorean zehar desagertu ziren.

—Hemendik badabil norbait! —Ahapeka mintzatu zen Bixente, estalpea bilatzen zuela.

Orduan, beste tiro batek euren ondoko pareta zaharra jo zuen. Ilunpean, hautsita zegoen leihoaren beste aldetik, argi txiki bat islatzen zen, astiro mugitzen zena, baina gelditu barik zebilena.

—Hemen ezin gara luzaro ezkutatu, —pistola sendo estutzen zuela esan zion Matiasek Bixenteri.

Luziak, ahotsa zurrumurru erara jarrita, Josu deitu zuen. Josuk ezin zion erantzun. Haren gorpua gibelean zuen; lurlean etzanda zegoen. Heriotza isila. Luziak onartu zuen egoera, eta gerorako utzi zuen larrialdietara deitzea, Josuren gorpuaren kargu egin zitezen. Bat batean, hegoaldeko leihoaren inguruan, zaratak entzun zituen, eta erne jarri zen. Egoera kontrolpean izan baino lehen, ustekabea, argi zuri batek monasterioaren klaustroa zipriztindu zuen. Luzia zalantzaz bete zen: Ez zekien Matiasen agindua jarraitu edo eurek zeuden lekura bueltatu.

—Aurkituko zaituztegu! Ez daukazue nora jo! —Entzun zen, ahots bakarti batek oihukatzen zuela.

Matias eta Bixentek elkarri begiratu zioten. Ezkutatuta zeuden, baina argi zeukaten norbaitek espero zituela. Orduan, erabaki bat hartu behar zuten: Tiroak botatzen hasi eta barruko iluntasunean ezkutatu, edo ihes egin.

Beste tiro baten hotsak klaustro osoa jarri zuen dardaraz. Matias eta Bixente ez ziren gehiago ezkututzen saiatu, aurrean zuten etsaia ezinbestekoa zuten garaitzea; hil ala biziko kontua zitzaien. Bixentek lehen tiroa bota, eta harritzko zutabe baten ertzean zegoen tipoari bularrean jo zion.

Luzia, bestalde, leiho zaharretik sartzen ari bazen ere, barruan norbait zain zeukan. Ezezaguna tiroka hasi zitzaion. Instintiboki lurrera bota zen. 22koa poltsatik atera, eta esku dardaratiekin oratu zuen. Etsaiaren kokalekua behatu, eta tiro egin zuen. Tipoaren eskutik haren erreminta lurrera jausi zen.

Matias korridore estu batean sartu zen. Ustekabean, bala batek adatsa ukitu zion. Ondoan zuen zutabearen atzean babestu, eta txoko batean elementu armatua zekusan. Harritu zen. Beste behin so egin zion, aurpegia xehetasunez behatzeko. Ezin zuen sinetsi.

—Ez da posible... —Esamesaka atera zitzaion ahotik.

Gizonak adarra jotzeko irribarrea agertu, eta pistola Matiasi zuzendu zion. —Beti esan dizut iragana ez dela sekula desagertzen.

Monasterioaren hormen artean tiroketak jarraitzen bazuen ere, ematen zuen, hangoek oraindik ez zekitela, nor noren kontra zebilen botatzen.

Segundo batez, tirokatzea eten egin zen. Matias eta gizon misteriotsua elkarri begira geratu ziren. Argi hotz batek gizonaren aurpegia zertxobait argitu, eta, orduan, Matiasek aitortu zuen:

—Eneko Landa... Zu al zara? Ezinezkoa da, bata!

Elementuak irribarre txiki bat agertu bazuen ere, begiradan ez zuen umorerik azaltzen. Oraindik erreminta Matiasi zuzenduta zeukan.

—Bai, Matias. Ez nago hilda. Ez behintzat zuk uste zenuen moduan.

—Ikusi zintudan azken aldian... —Matias ez zen ausartu esaldia osatzen. Artean, buruan irudi bat gordetzen zuen: Bularra bala batek zulatuta, Landa odol putzu batean, eta bera alde egiten. Hilda egon behar zuen.

—Ez nuen asko espero zugandik, —jarraitu zuen Enekok, hitzak arantzak balira bezala botaz—. Nik uste baino azkarrago ahaztu nauzu. Eta, orain, hemen zaude, beste sekretu bat desegiteko saiakeran.

—Zer egiten ari zara hemen? —Itaundu zion Matiasek, zalantza izpirik agertu gabe, oraindik bederatzikoa eskuaz oratzen zuela.

—Nik neuk gauza bera galdetuko nizuke. Baina tira, jakin nahi baduzu, monasterio hau gauza ilunen gordelekua izan da beti. Eta ni ez nago hemen neu bakarrik. —Landak keinu txiki bat egin zuen, eta klaustroaren iluntasunetik itzal gehiago agertu ziren.

Matias ikaratzen hasia zen, konturatu baitzen ez zegoela aurkari bakar baten aurrean. Ez zion Landari ezer erantzun. Ez behintzat, espero zen bezala, berehalakoan. Klaustroaren inguruko itzalek ez zuten mugimendurik egiten, ordea, airean sumatzen zen tentsioa ia ukigarria zen. Urrutixeagotik, Luzia egoera aztertzen ari zen. Ez zuen ezer esateko aukerarik ikusten, eta isilik jarraitzea erabaki zuen.

Azkenean, Matiasek Landarengana gerturatzeko urratsa eman zuen, burdina oraindik eskuetan estutuz.

—Orduan? Zer egin behar dugu orain, Eneko? Tiro egin, eta iraganeko zorra kitatuko dugu, ala oraindik badugu zerbait esateko?

Landak segundo batzuk behar izan zituen erantzuteko. Begirada ez zuen jaitsi, eta, ustekabean, ezpainetan irribarre triste bat azaldu zitzaion.

—Oraindikarren ez nauzu behar adina entzun, Matias. Baina lasai, badugu denbora eta.

Iluntasunak monasterioa erabat irentsi zuen, eta, klaustro hondoan, airean galdera bat jarri zen dingilizka: Benetan, zenbat denbora zuten?

Eneko Landak pistola pitin bat jaitsi zuen. Mugimendua ez zen nahikoa izan, ez behintzat konfiantza erakusteko haina. Begiradaz monasterioaren iluna miatu zuen, eta, apurka-apurka, hitz egiten hasi zen.

—Ez da kasualitatea hemen egotea, Matias, —esan zuen ahots apalez—. Monasterio hau beti izan da leku arriskutsua. Hemen, duela urte asko, andana agiri ezkutatu zituzten. Ez nolanahikoak. Gobernu inguruko taldeenak ziren, eta, badakizu, dokumentu haietan izenak agertzen ziren: Zaldua, Aranguren, Lasa... eta, orain, ni, zu bilatzen ari zaren izena, ni neu naizelako, eta beste asko.

Matias mutu zegoen geratuta. Bixentek eten bat egin zuen arnasa hartzeko. Luzia bertaratuta zegoen, bazter batean, eta berehalakoan kaiera ireki zuen.

—Dokumentu horiek non daude? —Halako batean, Matiasek galdetu zion.

Landak begirada ilundu zuen. —Horretan dago gakoa. Inor ez da inoiz horiek aurkitzeko gai izan. Baina badakit, hemen bertan lorratz bat badagoela. — Besterik esan gabe, begiratu zuen aldamenean zuen hormako pitzadura zaharra, eta, hatz erakusleaz, adierazi zion—: Hantxe, argi hotzaren azpian,

inskripzio bat dago, ia iragarrezina dena. —Matias hurbildu zen, eta hatzekin gainazala igurtzi zuen.

—Zer da hau? —Xuxurlatu zuen.

Arnasa sakon hartu ondoren, Landak irribarre kezkarria marraztu zuen, beste behin.

—Hau da zure benetako galderaren hasiera, Matias. Eta, egon ziur, erantzunak ez zaizkizu gustatuko.

Iluntasunak urrunetik zaratak zekartzan. Ez zeuden bakarrik.

Orduan, Matiasen hatzen pean, harri zatitxo leunki mugitu zen. Jarraian krask lehorra entzun, eta, atzealderantz, hormaren zatia milimetro batzuk irristatu zen. Ezkutuko konturen bat argitzeko zorian zeuden.

Paretak guztiz egin zuenean gibelera, barruko aire zahar eta bustiaren usaina kanporatzen hasi zen. Harresiaren atzealdean tunel bat zegoen, erabat iluna, eta, zoruan, harrizko eskailerak beherantz jaisten ziren. Matiasek atzera begiratu zuen. Luziak argia piztu, eta Bixente begiak zabalik geratu zen.

—Berriro beste tunel bat, Bixente?

—Bazabiltza apurka-apurka gogoratzen.

—Bai, zeozer badatorkit.

—Hau da, hortaz, inork aurkitu ezin izan duen bidea, —esan zuen Bixentek mintzaira serioan.

Horma esku batekin ukitzeko asmoz, Matias aurreratu egin zen. Zorura begiratu zuen: Hezetasunak azaltzen zuen, handik denbora luzez, inor ez zela ibili, ordea, urruneko aireak zerbait bizirik zegoela iradokitzen zuen.

—Prest al zaudete? —Galdetu zien Landak, tunel beltzera begira.

Inork ez zuen hitzik egin, hala ere, Matiasek eskaileretan behera lehen oinkada eman zuen.

Bat-batean, urratsak zarata desberdin bat egin zuen. Matias gelditu egin zen. Bere azpian zerbait hutsa zirudien, harri baten azpian, airea mugituko balitz bezala. Isiltasun kezkarriaren ostean, zorua dardarka jarri zen.

—Egin atzera! —Oihukatu zuen Bixentek.

Beranduegi zen. Eskaileraren zati bat hondoratzen hasi zenean, berehalakoan Luzia eskua emateko aurreratu bazen ere, Matias behera amildu zen, iluntasunaren indarrak irentsita bezala.

Matias lurlean zegoen. Jasan zuen kolpeak gorputza astindu zion; zorionez lur bigunean erori zen. Bihotza taupaka zuela, ingurua behatu zuen. Ilunpean, harresi zahar eta hezeak ikus zitezkeen, ordea haren arreta zerbaitek harrapatu zuen. Aurrean, harri artean, erdi lurperatuta zegoen kaxa zahar bat ageri zen, egur hezeak oraindik bere onean eusten ziola. Azalean, izen bat irakur zitekeen: "Aranguren".

Matiasek arnasari eutsi zion. Deblauki, garuna erretzeraino, galdera bat jarri zitzaion bueltaka: "Hau ote da bilatzen gabiltzana?"

III

Matias zoruan jezarrita zegoen, oraindik eskuak harri hezeetan bermatuta. Gorputza minbera zuen, baina burua argi. Begiak "Aranguren" hitzari itsatsita zeuzkan, eta bihotza bizkor taupaka. Goitik, Luziaren ahots urduriak heltzen ari zitzaizkion.

—Matias! Onik zaude?

Bixentek ere hitz egin zion, alabaina, haren hitzak, haitzen arteko oihartzunaren erruz, erabat motelduta heldu zitzaizkion.

—Behera joango gara, eutsi!

Han, behealdean, epel egiten zuen, arraroa betalde, toki umel hartan halako tenperatura izatea.

Matiasen begiak egurrezko kaxara itzuli ziren. Eskua luzatu, eta azal zaharra ukitu zuen. Urteetako hezetasunak egurra bigunduta zuen, hala ere, oraindik nahiko sendo zegoela iruditzen zitzaion. Urrunean, oinatzen bat entzun zuen. Ezin zuen segurtasunez esan, bere lagunenak zitezkeen ala beste norbaitenak, ilunpetan, eta, gainera, zenbait galeria desberdinek hotsa desbideratu egiten baitzezakeen, ondorioz, gaitz xamar eginez bereiztea.

Kaxaren tapa esku batekin ukitzera heldu zenean, lokatz artean irrist egin zuen. Estalkia apur bat mugitzea lortu zuen; ematen zuen ez zela erraz irekitzekoa, edo, agian, irekiera errazteko izan zezakeela, eragin beharreko halako trikimailuren bat.

Goian, hegaletik, Luziaren linternaren argia agertu zen.

—Zer ikusten duzu? —Galdetu zion Bixentek, eskaileren ertzean ahuspez botata zegoela.

Matias ez zen ausartu erantzuna ematera. Bihotzak astinduak ematen jarraitzen zion. Ahotsak entzun zituen, nondik zetozen ez bazekien ere. Oraindik, ezin izan zuen lortu espazioaren jabetza bereganatzea. Erne jarri zen. Hotsa ez zen urratsena, ez oihu batena, ez eta hitzena. Hala ere, airea, nolabait esatearren, dardarka hasita zegoela iruditu zitzaion, harriak astiro mugitzen hasi izan balira bezala. Berriro, haitzen artetik, azantz arin bat heldu zitzaion, ordea, hain leuna zen, ezen segundo batez, garunak asmatu ote zuen galdetu baitzion bere buruari.

Arnasa motelduta, osterara ere ingurua behatu zuen. Ez zegoen ezer.

—Luze joko du? —Galdetu zion Bixentek goitik.

Matiasek ez zuen berehala erantzun. Jabetu zen, Bixentek, eta Luziak erantzuna itxaroten zutela. Berak, aldiz, beste zerbait entzuten saiatu behar zuen.

Berriro gertatu zen.

Airean, ikara arin bat nabaritu zuen. Bere gorputzeko larruazalean ere, antzerako zirrara zen antzeman zuena. Halako uhin maiztasuna, ez zekien argi nondik zetorren.

—Ez, ez dakit, kaxa itxita dago, —erantzun zien azkenean. Ahotsa berak espero baino baxuagoa atera zitzaion.

—Adi egon, jaisten hasiko gara, —agindu zion Luziak.

Ondoren, Bixentek zerbait esan zion, baina Matiasek ez zuen haren hitzetan arreta jarri. Ematen zuen, tunelaren sakonetik aireak zerbait zekarkiola. Ez zen usaina, ezta hotsa. Zerbaitek espazioa betetzen zuen; alabaina, izan zitekeenak ez zuen ikusten uzten.

Burua astindu zuen. Bazitekeen burmuinean sartu zitzaion ideia bat izatea, besterik ez, horixe bakarrik. Ez zen ezer arrarorik gertatu. Ez zen ezer mugitzen. Zegoena zegoela, nolabaiteko derrigortasunaz, begiak iluntasunaren sakonera behatzen jarri zituen.

Matias arnasa sakon hartzen saiatu zen, burua argitzeko beharra sentitzen baitzuen, oxigenatzeko, alegia. Tunelaren iluntasunean, segundo batzuez gehiago, so egiteko tentazioa izan zuen, ordea, ez zuen horretan erori nahi. Ez zegoen ezer. Ez zegoen inor.

Begirada berriro kaxara itzuli zuen. Horretan jarri behar zuen arreta.

Esku bustiak kutxaren ertzean jarri, eta indar apurtxo bat egin zuen, tapa astiro mugitzeko. Estalkia ez zegoen egoera onegian, nahiz eta, oraindik, sendotasun apur bat izaten jarraitzen zuen. Mugimenduak ez zuen inolako zaratarik atera, eta zirrikitua egiteraino zabaltzea lortu zuen. Berriro irristatzeko beldurrez, belauna lurraren kontra tinkatu behar izan zuen.

—Aurkitu duzu zeozer? —Galdetu zion Bixentek goitik.

—Itxaron unetxo bat, kutxa hau ez da erraz irekitzen eta.

Indarraren eraginez, tapa apurka-apurka altxatzen hasi zen. Barruko oihal zaharkitua agertu zen lehenengo. Hatz-muturrekin hariari heldu, eta tiraka hasi zen. Zuntzek ez zuten hautsik atera, eta hezetasunaren zapore garratza sentitu zuen ahora iristen zitzaiola.

Bihotza beste behin kolpeka jarri zitzaion.

Telefonoko linterna piztu, eta argia kaxaren barru aldera zuzendu zuen; barnean bazegoen zerbait. Begirada zoliz behatu zuen, eta, erdi ustel zegoen oihalaren azpitik, metalezko distira txiki bat heldu zitzaion.

Matiasen arnasa motz hartu zuen orduan; ez zuen zorabiatzea nahi. —Zer demontre gordetzen zuten hemen? —Esan zuen edonork entzuteko eran. Eskuarekin oihala guztiz kendu zuenean, barruan zerbait agertu zen. Karpeta zahar bat zen, hezetasunaren eraginez kanpotik erdi hondatua, baina oraindik osorik zegoena. Azalean tinta urtua bazuen ere, argi irakur zitekeen izen bat: “Aranguren”

Bada, Matiasen bihotzak taupadak bizkortu zituen, emozioak gora-behera eragiten baitzion. —Berririo izen hori. —Atera zitzaion instintiboki.

Bitartean, goitik, Luzia eta Bixenteren urratsak entzun zituen, jada eskaileratik behera zetozela, eta haitzen kontra islatzen ziren haien argiak hobeto ikusten hasi zen.

Karpeta ireki zuen. Barruan paper agiriak zeuden, batzuk idatzita, beste batzuk zigilatuak. Batzuen ertz zurrinak, hezetasunagatik zabalduak zeudenak, oraindik irakurtzeko moduan zeuden. Begiak lehen dokumentuan finkatu zituen. Data bat: 1973. Azpian, izenburua jartzen zuen:

"EUSKAL HERRIKO INDUSTRIA MINERALEN KONTROLAREN GAINEKO TXOSTENA"

Matiasen kopeta zimurtu zuen. “Industria mineralak”? Igaro zitzaion burutik. “Kaxa monasterio zahar baten azpian dago bata”!

Orduan, karpetatik beste agiri bat erori zitzaion. Bixente jadanik Matiasen alboan zegoen, eta lagunak esku artean zituen paperei begira jarri zen; isilik zegoen.

—Zer da hori? —Galdetu zion ahots xehez.

Begirada zorrotzari eutsiz, Matias mutu geratuta zegoen, hala eta guztiz ere, ahaleginaren ahaleginez, ondorengoa ihardetsi zion. —Aranguren. Hemen ere izen hori agertzen da.

Luziak mugikorraren argia zuzendu zuen, agiria ikusteko moduan uzteko. Orduan, ohartu ziren: dokumentu hark "PRIBATUA – EZ IREKI BAIMENIK GABE" goialdean idatzita zuela.

Matiasen eskuak izoztu egin ziren. —Agiri guzti hauek zergatik egon behar dute monasterioaren sotoan gordeta? —Itaundu zien.

Bixentek gaineratu zuen: —Hemen, erlijiosoek kontuez gain, beste zerbait ere gertatu zen.

Matias paperak eskuetan zituela zegoen, aldizka batari, eta, gero, besteari begira, ondorengoa bota aurretik: —Zer egiten du dokumentazio industrialak monasterio abandonatu batean? Zergatik dago izkutatuta? Eta galdera nagusia, —gaineratu zuen—: Arangurenak eta bere jendeak zer zekien guzti honetaz?

Matiasen karpeta ondo itxi, eta bi eskuen artean eutsi zuen. Ez zen une egokiena gehiago arriskatzeko. Oraindik ez zekiten agiri haiek zelango garrantzia eduki zezaketen. Sakonago aztertzeko argia eta aire garbia behar zuten.

—Hau ez da lekurik egokiena, guzti honi buelta bat emateko, —esan zuen Bixentek ingurura begiratuz.

Luziak buruarekin ados zegoela adierazi, eta irmo agindu zuen: —Goazen kanpora. Guzti hau argitan ikusi behar dugu.

Matias jaiki zen eta zoruari azken begirada bota zion, batez ere kaxa aurkitu zuen inguruari. Harrien artean hezetasuna pilatzen zen, eta hormetan

lausotuta zeuden margo zaharrak nabaritu zitezkeen. Ez zuen gehiago begiratu nahi; agiriek zuten garrantzia.

Hiruak atzerantz bideratu ziren, tunel ilunetik gora. Hondoratutako eskaileren zatia gainditzeko, Luzia eta Bixentek arreta handiz lagundu zuten Matias, eta, azkenean, goiko galeria zaharrera iritsi ziren.

—Bizkor mugitu behar dugu, —esan zien Matiasek—. Leku hau ez dut gustuko.

Tarteka, aireak tunelaren paretak igurzten zituela ematen zuen. Matias bere burua erne izaten behartzen ari izan bazen ere, zerbaitek ez zion lasai uzten.

Azkenez, kanpora iritsi ziren.

Eguzki atera berriaren izpiek euren aurpegiak laztandu zituzten, eta, aire freskoa biriketan sartzen zitzaientzen, jasan berri zuten hezetasun itogarria ahazteko ahaleaginean-edo.

—Goazen autoa utzi dugun lekura, —agindu zien Luziak—. Hemen, kanpoan, lasaiago aztertuko ditugu dokumentuok.

Bidean Matiasek Luziari: —E, Luzia, eta Josu?

—Monasteriora sartu aurreko tiro batek hil du. Gero deituko dut larrialdietara bere kargu egin daitezen.

—Amaigabeko kontua, borrokan beti galtzen da norbait. Goian Bego, Josu.

Hiruak mendi bide harritsutik jaitsi, eta autoaren ondoan ipini ziren. Karpetako paperak, mahai gainean jarriko balituzte bezala, kapotaren gainean zabaldu zituzten.

—Hasi gaitezen. Zer daukagu hemen? —Agindu zuen Bixentek.

Matiasen lehenengo dokumentuari heldu zion. Titulu bat zuen:

"1973KO INDUSTRIAREN KONTROL TXOSTENA: KUTXIKO ESPEDIENTEA"

Eta azpian, izen bat:

"Ing. J. Aranguren"

Matias eta Bixente elkarri begira geratu ziren.

—Aranguren ingeniaria zen?

Luziak karpetakoak behatzeari ekin zion, eskuz idatzitako oharra aurkitu zituen arte. Batzuk zirriborroak ziruditen, besteak, aldiz, erabat zentsuratutako paragrafoak.

Orduan, Matiasen begiak lerro batzuetan geratu ziren itsatsita. Ahots xehez hasi zen irakurtzen:

"Materiala ez dago legezko baimenik gabe mugitzeko moduan. Hemen lurperatuko da, behin betiko."

Hiruak mutu geratu ziren.

—Zer demontre esan nahi du horrek? —Galdetu zien Bixentek.

Matiasen karpeta itxi, eta arnasa hartu zuen. Hura ez zen kasualitatea. Monasterioaren sotoan ezkutatutako dokumentuak, lurperatutako material misteriozkoak, eta Aranguren ingeniariaren izena beti presente...

—Orain badakit zer egin beharko genukeen, —halako batean, Matiasen irmo esan zuen—. Jakin behar duguna da, zer ari ziren ezkutatzen hemen.

Bixentek buruarekin baiezkoa azaldu zion, eta baieztapen batekin amaitu zuen esaldia: —Hasi besterik ez dugu egin.

Bat-batean, euren gana urrats batzuk hurbiltzen zitzaizkiela aditu zuten.

Buruari eragin gabe, bazekiten nor zen: Eneko Landa.

Une batez, hirurak geldirik geratu ziren. Inork gonbidatu ez arren, Eneko isilik gerturatzen ari zen, karpetatik begirada aldatu gabe.

—Hau ez zenuen espero, ezta? —Azkenean, Matiasek bota zion.

Enekok begirada altxatu zuen. Harrituta ez zirudien arren, oso eroso ere ez zitzaion ikusten.

—Ez nuen hainbesteko aurkikuntzarik espero, ez, —esan zuen. Ahots neutroa zuen, baina hitzen atzean, zerbait ezkututzen ari zela nabari zitzaion.

Bixentek besoak gurutzatu, eta Eneko aztertu zuen.

—Orduan, zer egiten zenuen monasterioaren barruan?

Enekok ez zuen berehala erantzun. Begirada apur bat berotu zitzaion, hala ere, ez zen erabat defentsiban jarri. Matiasek karpeta zabaldu, eta dokumentu nagusia erakutsi zion: "EUSKAL HERRIKO INDUSTRIA MINERALEN KONTROLAREN GAINEKO TXOSTENA."

Pixka bat aurreratu ondoren, Enekok dokumentua eskuetatik hartu zion. Begirada azkarra bota zion, orrietan zerbait bilatzen ari izan balitz bezala. Itxuraz ausazko mugimendua ematen zuen.

—Hau ez da ohiko monasterioa, Matias, —esan zuen azkenean.

Enekok hitz haiek jaulki zituenean, Matias erne jarri zen, ezen ulertzen hasita baitzegoen, Enekok zerbait gehiago bazekiela.

—Zer esan nahi duzu? —Galdetu zion Matiasek, hotz.

Enekok agiria esku artean biratu zuen, nahiz eta begirada ez zuen lerroetan jarrita; ematen zuen diagonalean irakurtzen zuela, zerbait zehatza bilatzen ari bazen bezala.

—Monasterio hau ez zen beti serora-etxea izan.

Luzia eta Bixente ikusle soilak ziren. Enekok esandakoa ez zen harritzekoa. Ordea, Enekok nola zekien? Elkarri zuzendutako hitzik gabeko mezu ezkutuan zebiltzala antzematen zitzaien.

—Non egon daiteke horren inguruko informazioa? —Galdetu zion orduan Matiasek.

Enekok burua astindu zuen. —Ez dakit ziur, edo hobeto esanda, ez dut ezer esan nahi.

Bixentek irribarre sendoa bota zion. —Hortaz, badakizula esan nahi duzu?

Eneko isildu egin zen. Alabaina, segundo pare batera, zertxobait gehiago gehitu zuen: —Dokumentu horietan begiratu, agian, hor topatuko duzue bilatzen ari zaretena.

Eta hor utzi zuen. Ez gehiago, ez gutxiago.

Matias dokumentua eskuetan astun sentitzen hasi zen. Guzti hura argitzeko, gehiago sakondu beharko zuten. Karpetari gogor heltzen zion bitartean honakoa bota zuen: —Orain ez da galderak egiteko unea, informazioa bilatzekoa baino. Berriro banatuko ditugu dokumentuak, —argitu zuen—. Hau sakon aztertu behar dugu. Baina eten bat egingo dugu. Zera, Eneko baduzu Nerea Otxoaren berririk? Ezagutu zenuen? Bizirik dago?

—Ez nuen ezagutu. Entzun nuen zertan zebilen, eta uste dut duela ez asko hil egin dutela.

Paper guztiak autoaren kapotaren gainean jarri zituzten beste behin. Lehenengo dokumentuak ohiko industria txosten baten parte zirela ematen zuten: zenbakiak, material kopuruak, ustiapen datak... baina misterioa ez zegoen hor.

—Hemen ez dago ezer susmagarririk, —esan zuen Bixentek.

Matias, berriz, beste agiri bat irakurtzen hasi zen.

"Proiektuaren funtsa ez da publiko egin behar. Materiala momentuz leku seguru batean gordeko da."

Burua altxatu zuen.

—Leku seguru bat?

Luzia bere dokumentuak bata bestearen atzetik pasatzen ari zen. Orduan, bat-batean, orri baten erdian gelditu zen.

—Unetxo bat...

Besteak Luzia begiratu zuten. Eskua gorantz altxatu ondoren, dokumentua irakurtzen hasi zuen:

"SCL-43 Instalazioa. Mantentze lanak eta segurtasun arduradunak: Ing. Aranguren, Landa eta Irazabal."

Landa.

Matiasen begiak zuzenean Eneko Landarengana joan ziren.

Enekok ez zuen berehala hitz egin. Segundo erdian, ukabilak gogortu zituen; hala ere, hiru-lau segundo geroago, aurpegia neutro izatea lortu zuen.

—Eneko, —esan zion Matiasek—, zuk ez al duzu zerbait esan behar?

Enekok arnasa sakon hartu zuen.

—Ez dut horrekin zerikusirik, —erantzun zuen azkenean—. Baina nire familiak bai.

Isiltasuna egin zen.

Kontuak hasiak ziren elkarrekin lotzen. Instalazio industrial misteriotsu bat, Aranguren eta Landa izenekin lotuta. Eneko zerbait ezkutatzen ari zen, edo behintzat, ez zuen guztia argitu nahi. Matias kiribilean hausnartzen jarrita zegoen. Hala ere, ez zen isilik geratu.

—Non dago SCL-43 eraikin hori? —Zuzenean galdetu zion.

Enekok denbora hartu zuen erantzuteko. Minutu erdi bat iruditu zitekeen, hala ere, segundo batzuk baino ez ziren izan. Azkenean, hitz egin zuen:

—Ez da mapa batean agertzen.

Eneko Landak, "Ez da mapa batean agertzen", esan zuenean, Matiasen buruak klak egin zuen. —Orduan, zerbait ezkutatzen ari dira.

Ez zen kasualitatea dokumentu haiek monasterioaren sotoan lurperatuta egotea. Norbaitek ez zuen nahi txostena inork aurkitzea.

—Instalazioa ez dago mapa batean, baina horrek ez du esan nahi informaziorik ez dagoenik. —gaineratu zuen Bixentek.

Hiruak paper artean murgildu ziren berriro. Matiasek dokumentuan orri pare bat begiztatu zituen: Zaharrak, datu, eta materialekin lotuta zeudenak. Horrela, hasiera batean, ezer berezirik ez zirudienak, gerora, zerbait deigarria agertu zuen. "SCL-43 INSTALAZIOA - SARBIDE MUGATUA" Eta azpian, koordenatu batzuk.

Matias kapotearen gainean eseri zen. —Badugu.

Luzia eta Bixente beregana hurbildu ziren, eta, Eneko ere, urratsak apal emanaz, euren ondora alboratu zen, hala ere, euren artean nolabaiteko distantzia utzi zuen.

—Koordenatuak dira, —esan zien Luziak—. Latitudea eta longitudea.

Bixentek mugikorra atera zuen, eta koordenatuak bilatzen hasi zen. —Hau ez da hiri barruan dagoen leku bat, —pantailari begira esan zuen—. Mendi eremuan dago, hego-ekialdera, baso muinoen artean.

Matiasek burua altxatu zuen. Huraxe zen bila zebiltzan zerbait.

Enekok burua makurtu zuen, bere barnean zerbait kalkulatzeko ari balitz bezala, eta zera esan zien: —Ez zenukete hara joan beharko.

Luziak zuzen begiratu zion, ondorengoa galdetzeko. —Eta zergatik ez?

Eneko muturtu egin zen. Argi zegoen zerbait bazekiela, eta ezkutatzea nahi zuela.

—Badakizue, benetan badakizue zertan sartzen ari zareten? —Galdetu zien.

Matias ez zen erantzutera presatu. Jada, beharrezko informazioa zeukan. Handik segundoetara honakoa bota zuen: —Ikustera joango gara.

Bixentek, besteek ikusteko moduan, eta, bide batez, kokapena erakusteko, mugikorrean mapa jarri zuen. —Lekua ez dago oso hurbil, —Esan zien erabat konbentziturik—. Toloño mendilerroan, Larrasa gailurraren norabidean, muinotxo batean dagoela ematen du; ordu bateko bidea izango da, beno, arean gehiago.

—Labastida, Eltziegara begira? —Galdetu zion Matiasek.

—Bai, hortik!

—Hau ez da kasualitatea, —gaineratu zuen Luziak. —Ez dago mapa batean eta tokia mendian ezkutatuta dago.

Enekok beste alde batera begiratu zuen. —Ez duzue ulertzen, — ahots xehez esan zuen—. Leku hori ez dago abandonatuta.

Beste behin, tarteka sarritxo ematen zena, isiltasuna nagusitu zen. Halako batean, Matias erne jarri, eta damurik gabe galdetu zion —Nola dakizu hori?

Enekok ez zuen ezer erantzun. Begiak ilundu zitzaizkion, aldiz Matias ez zen isilik geratu: —Gerturatuko gara, —esan zuen—. Ikusi behar dugu.

Enekok burua astindu eta bota zuen: —Nik ez zaituztet lagunduko.

—Ez dizugu eskatu, —Matiasek hotz erantzun zion.

Orduan Eneko ez zen ezer gehiago esatera ausartu.

Matiasek autoaren atzeko atea ireki, eta dokumentuak bertan utzi zituen. Mapa Luziak ere tabletan jarrita zuen. Helmuga argi ikusten zen.

Bixente gidatzen ari zen. Handik denbora gutxira, bidean bakarrik ez zeudela sentitzen hasi zen. Baso barneko pista estua zen, eta, nahiko ondo mantenduta zegoen, nonbaitetik sarbidea errazteko moduan egina.

Matias alboan zegoen, Luziak utzitako tabletan mapa begira; ez zen zalantzarria jakitea sen ona piztuta zuela. Ispilua baliatuz atzera begiratu, eta, Luzia buru-belarri zegoela ikusi zuen, begiak errepidearen bazterretan finkatuta zituela. —Zertan pentsatzen ari zara? —galdetu zion.

Luzia ez zen berehala erantzutera ausartu.

—Bidean zerbait topatuko dugula.

Errepide bazterrean, Matiasen aurrean zerbait agertu zen.

—Hori da, Luzia, asmatu duzu.

Bixentek kotxea moteldu zuen, bazter batean gelditzeko.

Zaharkitutako eraikinak ate gisa metalezko marko herdoildua zuen, eta, erdi jausita zuen halako horma batean, nahiko handia zen txapa zahar bat zuen torlojututa.

Hirurak jaitsi ziren. Oinak zoru harritsua zapaltzean, inguru hartan zegoen isiltasuna oraindik sakonago bihurtu zela iruditu zitzaien. Matias txapa ukitzeko aurreratu, eta, konturatu zen, kartelean idatzita zeuden hitz batzuk irakurtzeko moduan zeudela:

"G-43 SEGURTASUN GUNEA – SARRERA MUGATUA."

"J. Aranguren – Arduraduna."

—Baina dokumentuetan SCL-43 jartzen zuen, ezta? —itaundu zien Luziak. Matiasek burua goitik behera eraman zuen baietz adierazteko. —Agian, hau lehen instalazioa izango zen, edo, aldi berekoa, gerora bertan behera utzi dutena.

Bixente ingurua miatzen hasi zen. Horma eraitsita zegoen, ordea, barruan zerbait gehiago egon zitekeen. —Begiratuko dut barrenean, —esan zien.

Matiasek pareta gurutzatu eta berehala zerbait behatu zuen. Hautsez eta hondakinez estalitako apal batzuk zeuden, baina ohartu zen, zoruan zeozer deigarria zegoela. Makurtu eta eskua luzatu zuen. Izen-plaka bat zen. Matiasi bihotza taupaka hasi zitzaion. Hautsa mugitu zuen ikusteko zer jartzen zuen.

"E. Landa."

Bixente irmo geratu zen. —Eneko Landa.

Hurbildu zenean, Luziak keinu serioa egin zion. —Baina, honek esan nahi du, berak ere hemen lan egin zuela, edo...?

Matias zutitu eta ingurura begira geratu zen. —Hau ez zen abandonatutako eraikin arrunta. Hau instalazioarekin lotuta zegoen. Eneko Landak ez dizkigu gauzak argi azaldu, —gaineratu zuen. Zutitu eta baso ilunera bueltatu zituen begiak, ondorengoa bota aurretik—: Hurbil gaude.

Matias izen-plaka eskuetan hartuta bazter batean eseri zen, buruan zituen zenbait gauza bata bestearen atzean jartzeko asmotan. Kontu hura ez zen bertan behera utzi zitekeen huskeria. Eneko Landa ez zen kasualitate bat, hala ere, oraindik ez zion deituko. Lehen lehenik, argi eta garbi jakin behar zuten inguru guzti hartan zer zegoen. Halako batean, —jarraitu behar dugu, —esan zien irmoki.

Bixentek eta Luziak burua baliatuz baietza berretsi zuten. Ez zuten zalantzarako tarterik.

Bidean aurrera, zenbat eta gehiago gerturatu, orduan eta argiagoa egiten zitzaien, hura ez zela leku huts bat. Errepidea estutu egin zen, eta, bat-batean, zuhaitzen artean lehen aztarna behatu zuten.

—Begiratu hori, —esan zien Luziak, halako hura hatzarekin aditzera emanez.

Eskuinean, herdoil puntu batzuk bazituen ere, oraindikarren sendo ikusten zen metalezko hesi garaia. Ez zen atzean geratutako hamarkada batzuetako egitura zaharkitua.

Matias gelditu eta hesia ukitu zuen. Harizpi fin bat zeukan ertzean, elektrifikatuta egon zitekeela adieraztera emanez bezala.

—Hau ez dago bertan behera utzita.

Sakonago begiratu zutenean, beste zerbait agertu zen. Ezkerrean, lur bazter batean, gurpilen aztarnak.

Bixente makurtu, eta, lohi artean, txirringaren marka nabarmenak ukitu zituen: —Duela gutxi hemendik norbait autoz edo furgonetaz ibili da.

Elkarri begiratu zioten. Halakoa ez zen soilik instalazio zahar bat, oraindik norbaitek erabiltzen zuen. Orduan, handik metro batzuetara, beste zerbait ikusi zuten; zoruaren eta hesiaren ertzean, hautsak estalitako txapa metaliko bat. Matias saiatu zen xafla altxatzen, ordea, pentsatu baino gogorrago zegoen; astuna zela ematen zuen, eta, oina erabili behar izan zuen, atea zena gorantz irekitzeko. Azpian, lur-zuloa agertu zen, tunel edo pasabide baten sarbidea zitekeena.

Beste behin isilik geratu ziren.

Luzia erabat urduri jarri zen.

—Horko barrukoek ez dute nahi jendea sartzen ibil dadin... baina eurak atera daitezke. —Matias hurbildu eta barrura begiratzen hasi zen. Tunel ilunetik aire hezea zetorren.

Bixentek ingurua aditasunez behatu ondoren, bere hausnarketa partekatu zien. —Orain bai, orain badakigu, Eneko zerbaitek beldurtu egiten duela.

Zutitu ondoren, Matiasek estututa begiratu zuen basoaren beste aldera. Ziur zeuden, erabat seguru, bazekitelako ez zeudela bakarrik.

Matias, Luzia eta Bixente zulo ilunera begira geratu ziren pentsakor. Ez zekiten nor edo zer zegoen barruan, eta ez zen unea arrisku gehiegi hartzeko; oraindik ez.

—Ziur egoteko inguruan gehiago bilatu behar dugu, —esan zien Matiassek—. Badakit zerbait haboro egon behar duela.

Luzia eta Bixente burua mugituz ados jarri, eta hirurak toki desberdinetara abian ipini ziren. Bide bazterra aztertzeko asmotan, Matias hesitik metro batzuk urrunago joan zen. Oinak lurrari ondo finkatuta zeramatzan. Aurrerago, hostoen artean, zerbait bitxia ikusi zuen. Makurtu eta eskuaz ukitu zuen. Plastiko beltzez estalitako zerbait zen. Hauts apur bat kendu ondoren, ikusteko moduan geratu zen logotipo bat zena: "Talde Logistiko Oria"

—Begiratu hau, —berehalakoan irten zitzaion, besteak deitzen zituela.

Berehalakoan, Bixente hurbildu, eta marka ikusi zuen. —Ez zait batere ezaguna egiten. —Esan zuen—. Poltsikotik mugikorra atera, eta Googlen izena bilatzen saiatu zen. Segundo batzuk geroago, pantailari begiratu, eta bekainak zimurtu zituen. —Enpresa horri buruz ez dago ezer, ez webgunerik, ezta egoitza sozialik.

—Ez da existitzen, edo ez dute agerian ezer uztea nahi, —gaineratu zuen Matiasek.

Bitartean, Bixentek hesian behera jarraitu, eta metro batzuk alborago, zerbait deigarria aurkitu zuen.

"STOP – SARBIDE MUGATUA" zioen kartel bat zen, behealdean, pintura gorri lausotuan, mezu adierazgarria zuena.

"Alde egin. Sasoiz zaudete."

—Ikusten duzue zer dagoen hemen? —esan zien Bixentek, kartela adieraziz.

Matiasek begiratu zuen. Norbaitek ikusmiratzaileentzat abisua utzita zuen.

—Eta, hala ere, hemen jarraitzen dugu, —esan zuen Bixentek, aurpegian gezur irribarrea azaltzen zuela.

Matias gogoetatsu geratu zen. Zerbaitek ez zuen zentzurik. Hausnartzen jarri zen lipar batez. Gero, zera esan zion Bixenteri:

—Instalazioa ez dago abandonatuta. Segurtasun sistema norbaitek bere onean mantentzen du. Eta gainera, norbait hemendik agertzen bada, alde egiteko abisua utzita dute. Hemen bi talde daude?

Bitartean, Bixenteri lurretik tabakorri usaina heldu zitzaion. Makurtu, eta, garbitzeko, harea arean kendu zion gainetik. Hozten ari zen zigarro bat zen. Matias hurbildu, eta elkarri begira geratu ziren. Ez zeuden bakarrik. Zigarroari so geratu zen, ondorengoa botatzeko: —**Oraindik bero dago**. Horrekin gauza bat ulertu behar dugu: **Zalantzatik gabe, norbait ez dagoela urrutiegi**. — Arrisku gehiegi ikusten ari ziren, tunelera sartzeko; **hara barneratzeak, tranpa batean jaustea bezala zekusaten**. Beste aukera bat bilatu behar zuten.

—Hesia inguratuko dugu, —esan zuen Matiasek, isilean baina irmo—. Beste sarbide bat aurkitu behar dugu.

Bixente keinurik egin gabe mugitzen hasi zen. Orduan hitz gutxiago eta arreta gehiago behar zen. Esparrua jarraituz, baso sakonera sartu ziren. Hango autoentzako pista jada ez zegoen ikusgai, eta, adar ilunen artetik, argia apaltzen hasi zen. Giroa itogarri bihurtu zen, eta, bakoitzak zarata gehiegi atera gabe, arnasari eusten zion. Hamar bat minutu ibili ostean, lehen seinalea aurkitu zuten.

—Begiratu hori, —ohartu zion Bixentek, isilka.

Hesiaren ertzean, ate txiki bat ikusten zen. Ematen zuen ez zela ohiko sarbidea. Itxita bazegoen ere, bertan pilatuta zeuden hostoak albo batera zeuden baztertuta.

—Norbaitek erabili du hau, —baieztatu zion Bixentek.

Matias aurreratu eta atearen ingurua miatu zuen.

—Honek ez dauka segurtasun sistemarik, —esan zuen—. Ez dago alarma kablerik.

Bixentek metalezko markoa ukitu, eta burua astindu zuen.

—Hau ez da instalazio osorako sarbide nagusia. Hau, norbaitek barrura sartzeko, edo irteteko erabiltzen duen pasabide alternatiboa da. Baina nor doa horra barrura? —galdetu zion Bixentek.

Eta, orduan entzun zuten, adar bat hausten denean, ateratzen duen soinuaren antzerako zeozer. Ez zen oso urrun. Matias muturtu egin zen. Ez zuten inor ikusi, hala ere, mugimendua sumatzen zuten. Bixentek motxilatik, poliki-poliki, labana txikia atera zuen. Ez zen arma bat, bai, ordea, defentsa txikia.

—Hau azkar egin behar dugu, —esan zion Matiasek—. Zerbait topatu dugu, baina ez dugu denbora asko. E, Bixente, non dago Luzia?

—Ba, ez dakit, bere beharrak egiten ibiliko da.

—Beno, orain oraingoa, eta gero Luzia bilatuko dugu. —Matiasek.

Matias isil-isilik geratu zen, arnasa apalduz. Bixentek berehala ulertu zuen, eta, hostotzan ezkutatzeraz, basoko itzalera sartu ziren. Ez zen ezer ikusten, ordea, hostoen mugimenduen zaratatxoa aditzen zen. Ez zen animaliaarena, pausoak zenbatu egin zitezkeen; motelak, baina erregularki emandakoak

ziren. Bixente, kontuz-kontuz, lurrean belaunikatu zen, eta keinu bat egin zuen eskuarekin: —*"Zuzenean gure aurrean dago."*

Bixentek aiztoa hartu zuen eskuetan. Hura ez zen abagunea ezer arriskuan jartzeko, handik nor zebilen ikusteko baino. Matias basoko iluntasunera begira geratu zen, begiak mugimendu sotilenaren bila. Eta orduan ikusi zuen zuhaitzen artetik itzal bat mugitzen zela. Ez zegoen uniforme berezi batekin jantzita, eta, ez zen inolaz ere, segurtasuneko agentea. Soinean zerbait iluna zeraman, eta zerbait astuna bizkarrean.

Bat batean, gelditu egin zen. Burua pixka bat altxatu zuen, basoko piztiak bezala, airean zerbait bilatuko bazuen erara. Matiasi bizkarrezurra izoztu zitzaion. Norbaitek jarraitzen zituen, ez besteak bakarrik; beste norbaitek. Bixentek arnasa sakon hartu zuen, hartu ere inork ez entzuteko moduan. Eta orduan, beste soinu bat entzun zen; urrunetik, irratiaaren distortsioa zetorren.

Gizon ezezagunak burua norabide hartara biratu zuen, eta, Matias orduan jabetu zen, hura ere ezkutuan zebilela. Batzuk instalazioa babesten ari ziren, eta beste batzuk bertara sartu nahian zebiltzan.

Matiasen bihotza azkartzen hasi zen, areago oraindik. Norbait atzetik zebilkien, euren mugimenduak jarraitzen. Gizon iluna, bakartia, beraiek bezala beste zerbaiten zain zegoen.

Bixentek eta Matiasek itxuraz etsaia ez zena begiratu zuten. Eskuarekin keinu bat egin zioten ondorengoa argi uler zezan: *"Ez hadi hemen geratu."*

Ezin zuten arriskurik hartu. Segurtasunez ez zekiten gizon hura laguna edo arerioa zen. Ez zeuden arrisku gehiago hartzeko moduan. Matiasek burua astiro mugitu zuen, ibilbide berri bat aukeran zeukatela adierazteko. Metalezko sare lataren ertzari jarraituz, beste pasabide bat topatu behar

zuten. Aurrean zeukaten misterioa, oraindik, ez zegoen argitzeko moduan, ordea, argi zegoen, jada ez zeudela bakarrik.

Basoan barrena jarraitu zuten, zuhaitzen artean, hesiaren beste muturra ikusten hasi ziren arte. Eta, bat batean, iluntasunaren erdian, argi bat piztu zen. Ez zen eurek zeukaten argia, ez eta etsaia ez zenarena ere. Eta, supituan, atea irekitzen zela entzun zuten.

IV

Itsumustuan, Matiasen garunak irudi lausoa marraztu zuen. Iluntasunaren erdian, ahots bat aditu zuen, leuna eta irmoa zeritzona. Ez zekien norena izan zitekeen, ordea, bazuen zer edo zer ezaguna, zerbaitek segurtasuna eta arriskua aldi berean bidaltzen ziona.

Eszenak bere kabuz osatzen hasi zitzaizkion: mahai bat, koaderno bat, eta bertan idatzitako zenbakiak. Ahotsak zera esaten zion: “Honek bere pisua du, Matias. Ez da kopuru makala”.

Eta tupustean, izen bat gomutatu zuen: Luzia.

Baina nor zen Luzia? Bere bihotza taupada azkarrak ematen hasi zitzaion. Ez zegoen ziur. Alabaina, izenari bere taldeko norbaitena zelakoaren antza hartzen zion. Idazkaria... Bai, hori zen. Luzia bere taldeko idazkaria izan zen, baina, ez zuen haren aurpegia gogoratzen, ezta ahotsaren jatorria ere. Bere buruaren barruko hariek oraindik nahasita jarraitzen zitzaizkion.

Orain bai, gogoratzen hasi zen. Luzia bere idazkaria zen, eta, kontratua sinatu zuenean, bera izan zen mahai gainera agiriak ekarri zizkiona. Hala ere, batzuetan Luziaren izena ahaztu egiten zitzaion, ez zekien zergatik, kostatu egiten zitzaion garunean finkatzea. Egun hartan, bulegoko argiak hotzak eta distiratsuak ziren; hori gogoratzen zuen. Mahai gaineen, txartel bat utzi zioten, eta 250.000 euro, bostehuneko billeteetan; hori ere gogoratzen zuen.

Zerbait handia sinatu zuen, sekulako diru kopurua baitzen. “Baina nork kontratatatu zuen? Eta zergatik? Eta zertarako?” Zifrek bere buruari ihes egiten zioten, ordea, sentimendu bat geratzen zitzaion: Ez zen ohiko lana.

Matiasek hiru-lau aldiz sakon hartu zuen arnasa, eta begiak itxi zituen; ez zen iragana argitzeko saiakera izan, kezkari aurre egiteko baino. Bere burmuinean zerbait ez zebilen ondo, eta, okerreña zitekeena, inork ez ziola argibiderik emango. Erantzuna bere kabuz bilatu beharko zuen. Gainera, bere horretan jarraitu nahi zuen; kontu hartaz ez zion inori ezer esan nahi.

Eskuetan zituen paper zaharrei begiratu bat bota zien. Datu gehienak ez zioten pista handirik ematen, alabaina, bazen orri baten ertzean zerbait deigarria; zenbaki bat agertzen zen idatzita. "Bere eskuaren idazkera zen?" Ez zegoen erabat ziur. Hala ere, kopuruarekin bai zuela ziurtasuna:

250.000

Hitzak garbi gogoratzen zituen. "Zenbakia idatzita utziko dizut, Matias, gero ez dezazun esan, ez zenuela jakin zenbat ordaindu zizuten." Luzia izan zen hori esan ziona. Eta hark zerabilen tonua ez zen soilik profesionala, zerbait gehiago ematen zuen aditzera.

Inolako zalantzarik gabe, bera izan zen lana onartu zuena. Eta halako kopuruari ez zion muzin egin, gainera, ez zuen sekula galdetu, dirutza hura zein eskuetatik heldu zitzaion, ez eta legala, edo eta B dirua zen. Baina orain, atzera begira, bere erabakiaren segurtasuna guztiz arrotza iruditzen zitzaion. "Nork kontratatu zuen? Nork ekarri zion diru kopuru hura bulegora?"

Begiak tinko jarri zituen zenbakian. Ezin zen kasualitatea izan. Kopuru hura ez zen txantxetakoa, eta berak jaso bazuen, trukean zerbait oso garrantzitsua egin beharko zuen. "Baina zer? Nork eskaini zion?"

Poltsikoko paketetik zigarro bat atera, eta ezpain artean jarri zuen. Ez zuen piztu, hatzen artean jiraka ibili zuen, pentsamenduak lotu nahian-edo. Luzia. Kopurua. Ahots hura.

Orduan, sakelan beste zer bait somatu zuen. Barrutik, ia hautsi beharrean zegoen paper zahar bat atera zuen. Kolore horixka hartuta zuen, eta, bertan, hiru hitz bolaluz idatzita:

"Ez fidatu inorekin."

Matiasek arnasa eten zuen. Mezu hura berak idatzia zirudien. Ez zen kasualitatea. Ospitaletik irten aurretik, berak berari utzitako pista bat zitekeelakoan zegoen, etorkizunean berak berarentzat berreskura zezan.

Alabaina, tupustean, errealitatera irauli zen. Basoan zegoen. Hango zuhaitzen artean hesiaren beste muturra ikusten hasi zen... eta iluntasunaren erdian, argi bat piztu zela zekusan. Ez zen eurek erabiltzen zuten moduko argia, ez eta ezezagunarena ere.

Supituan, ate bat irekitzen zela entzun zuen. Instintiboki, geldirik geratu zen, arnasari eutsiz. "Nor bait irteteko asmotan zegoen? Ala oraindik ikusten ez zutenen bat barrura sartzeko saialdian zebilen?" —Hausnarrean jarri zen.

Matiasek zorura begiratu zuen. Eurenak ez ziren aztarnak antzeman zitezkeen. Argia piztu baino lehen, nor bait bertatik igaro zela ematen zuen.

Urduri zegoen, eta buruan zituen galdera guztiak itzuli zitzaizkion. "*Ez fidatu inorekin*. Baina norekin ez fidatu?" Aurrean zuten atea irekita zegoen eta barruan...

Orduan hurbiltzen zitzaion Bixenteri keinu egin zion. Isiltasuna sakona zen, eta hostoen artean haizearen hotsa baino ez zen entzuten. Pauso bat eman zuen aurrera. Bat batean, zarata lehorra, aldiz, ez zen airera ozen zabaldu; oin batek adar bat zapaltzean ateratzen duenaren antzekoa izan zen.

Argia higitu egin zen, eta barrutik urratsak azkar mugitzen zirela entzuten zen. “Norbait hurbiltzen ari al zen? Edo ihes egiten?” —Berriro egin zuen gogoeta.

Matiasek ez zuen denborarik galdu nahi. Begirada zolia jartzen zitzaiola, eskuak igurtzi zituen. Atea erdi irekita zegoen, berriz, barrura sartzea erabaki baino lehen, alboan zuen bere lagunari xuxurlatu zion: —Bixente, hemen duela gutxi norbait egon da. Lurrean odol arrasto bat ikusten nago.

Matias makurtu, eta hatz erakuslea zipriztindutako tokian jarri zuen. Odola ez zegoen guztiz lehortuta. Beraz, aditzera ematen zuen, duela denbora gutxi gertatu zela. Ostera ere, barrutik zarata berri bat entzun zuten. Bat batean, iluntasunean, ahotsa argi-argi heldu zitzaien: —Berandu iritsi zarete.

Lipar batez, Matias eta Bixente izoztu egin ziren. Ahotsa urrunetik zetorkien, alabaina, ez nahikoa ezagutzeko modukoa ez izateko. Bere garunak esaten zion lehenago ere entzuna zuela, baina ez zekien non, ezin zuen gogora ekarri.

Atea gehiago ireki zen eta barruan zegoen pertsona saiheska antzeman zitekeen. Hango ilunbearekin zaila egiten zen jakitea nor izan zitekeen, hala ere, unetxo batez, Matiasi aurpegia ezaguna egin zitzaion.

Matias arnasarik gabe geratu zen. Iruditu zitzaion ezinezkoa zela. Zutitzen ari zen pertsona hura... — Ezinezkoa...— Murmurikatu zuen. Iluntasunetik irteten esku bat luzatu zen, eta ikertzaileak atzera egin zuen.

Orduan, pertsona hark argitan geratzeko urrats bat eman zuen aurrera. Matiasen begiak zabal zabalik zeuden, ezin sinetsirik bezala. —Zu...! Baina zu hilda zeunden.

Pertsona hura une batez isilik geratu zen. Gero, aurpegian irribarre kezkarri bat azaldu zitzaion. —Edo hori izango zen uste zenuena, Matias. —Gaineratu zion gizonak.

Haizea gogor jotzen hasi zen, hostoak lurrian dantzan jartzeraino. Tentsioa areagotu egin zen, eta, Matias ohartu zen, gertakari hartan murgilduta ez zegoela bera bakarrik. Bere bizitzako azken hilabetei erreparatuz, norbait hariekin jolasten ari zela zeritzon. “Baina nor izan zitekeen? Eta, batez ere, zergatik?” —Galdetu zion bere buruari.

Arnasa hartu ondoren, tipoa berriz hasi zen hitz egin: —Ez naiz hona etorri zu laguntzera, baina kontu bat argi utzi nahi dizut, Luzia arriskuan dagoela. Eta zuk daukazun informazioak ez du zuk uste bezainbeste balio. Ez da kasualitatea ni hemen egotea Matias, beste batzuk ere, badakite nondik zabiltzan.

Bat-batean, basoan tiro hots bat entzun zen. Instintiboki, Matias eta Bixente lurrian etzan ziren. Iluntasunean, urrats azkar batzuk entzuten ziren, eta, orduan, tipoak urratsa eman zuen atzera.

—Ez daukat denborarik, —xuxurlatu zuen—. Luzia bilatu. Orain. —Hori esan ostean, zuhaitzen artetik, iluntasunean desagertu zen. Matias eta Bixente ingurura begira erabat harrituta geratu ziren. Oraindik ez zekiten norekin ari ziren jokoan.

Matiasek Bixente begiratu zuen. Lehen bait lehen hasi behar zuten Luziaren bila, edo beranduegi izango zen. —Berehala hasi behar dugu mugitzen, —esan zion—. Eta Luzia aurkitzeko erabaki irmoarekin, iluntasunean galdu ziren.

V

Eguna eguerdiaren hondarretan igarotzen zen, behe-laino zarratu batek ingurua estaltzen zuela. Zaila egiten zen jakitea, errepide bazterreko herrixka galdu hartara zelan heldu ziren. Han ez zuten ezer ezagunik begiztatzen, ez izenik, ez lekurik, ez ezer. Hala ere, Matiasen barreneko oroimenari, kale estuek eta harrizko horma zimurtsuek arrasto ilun bat uzten zioten, itzalean gordeta zuen zerbait astinduko baliote bezala. Ez zuen uste handik inoiz ibilia zenik, ordea, sen onak beste zirrikitu bat iradokitzen zion, leku hartan zerbait lotu gabe zegoela.

Etxeetako leiho itxiek geruza zuriskari so ziruditen. Ez zen inor ageri, alabaina, Matiasek bizkarraldean begirada ezkutu batzuk iltzatzen zitzaizkiola sumatzen zuen. Arnasa izango balu bezala, Herriak berak isilpeko oihartzun batez hartzen eta askatzen zuen airea.

Bixente ondoan zuen, isilik, pauso finko eta erne. Luzia desagertu zenetik, biak zebiltzan hari solteak biltzen, eta, han, mendi artean galdutako herrixka hartan, zantzuren bat aurkitu zezaketela sinetsita bezala zebiltzan.

Taberna bakarraren atarian, eguraldiaren kolpeak pairatutako zurezko kartel zaharkitua zintzilik zegoen; afixak ostatua jartzen zuen, erdi aroko letra larriz idatzia. Barrutik, gosea asebeteko zuenaren hitzaz zetorren ke usainak aditzera ematen zuen, norbait eguerdiko otordurako lapikoak eragiten zebilela.

—Hemen aurkituko ote dugu zerbait? —Bat-batean galdetu zion Bixentek, ardandegiko atarian geratuz.

—Ez dakit, baina ez dugu beste aztarnarik, —erantzun zion Matiasek, eta, ingurukoengan arreta handirik piztu gabe barneratu ziren.

Barruan, mahai gutxi batzuk zeuden espazio zabal berean, barra bat egokitzen zen, non batetik bestera, emakume adindua zebilen zerbitzari. Ordu hartan ez zegoen jende asko, hala ere, baziren bi edo hiru bezero, goiztiar hasita zeudenak kopak astiro edaten.

—Arratsalde on, —esan zion Matiasek, ahotsean ziurtasun eza nabaritzen zitzaiola.

Emakumeak begirada azkarra bota, eta burua apur bat okertu zuen, zerbait esateko moduan. —Zu ere hemen? —Itaundu zion, ezpain eta begietan irribarre arina agertzen zuela. Matias berehala ohartu zen, begi-bazterretik behatzen ziola.

—Barkatu? —Matias nahasita sentitu zen.

Emakumeak sorbaldak jaso zituen, eta barra gainera garagardo bana atera zizkien.

—Ez da ezer, mutiko. Hau edan nahi baduzu, etzazuela berotu.

Matiasek ez zuen ulertu, hala ere, eserita geratzea erabaki zuen. Bixentek ingurua aztertu zuen, nabarmen deigarri gertatu gabe, hangoek zer esaten zuten entzuteko prest. Bezero bat, ile urdindun gizona, zerbait marmarka ari zen bere ondoan.

—Ez dakit nor zaren, baina lehendik hemen egonda, gogoan izango bazenu...

Matiasek begiak altxatu zituen ikusmira artezean jarritz. Hitz haiek ez zioten inolako argibiderik ematen, aitzitik zerbait ezkututzen zutela iruditu zitzaion. “Zer zen berak ez zekiena eta besteak bai? Eta zergatik ez zioten zuzenki esaten?” —Pentsakor jarri zen.

—Bixente, nik uste dut hemen zerbaitek ez duela ondo usaintzen, zerbait ez dago ondo, —berak ulertzeko eran murmurikatu zion.

Tabernako giroa astiro jarraitu zuten, bertako jendearen keinuei eta hitz solteei arreta jarritz; zerbait bazenaren susmoa zuten, oraindik guztiz ulertzen ez zutena.

Matias garagardoa edaten ari zela, Bixentek barra ondoko gizonari begiratu zion. Agureak esku artean edalontzia astiro biratu zuen, eta, une batez, burua jaiki zuen.

—Ez zarete leku egokian galdezka ari, —esan zuen ahots urratuaz.

Bixentek ez zion berehala erantzun, berriz, Matias halako mezu lausoekin nazka-nazka eginda zegoen, eta zuzenki itaundu zion:

—Zer esan nahi duzu horrekin? Luzia bilatzen ari gara. Hemen ezagutu duzue?

Adintsuak burua makurtu zuen, eta, beste ezeri jaramonik egin gabe, isilik geratu zen. Jarraian zerbitzaria hurbildu zitzaien, eta, une batez, bera ere ezer esan gabe pausatu ondoren, agintea nork zuen erakusteko-edo, papar aldean eskuak gurutzatu zituen, arinki jaso eta gero emeki bere lekura jaisteko. Giroa gero eta astunagoa egiten ari zitzaien.

—Badakit zerbait gertatu zela, —esan zion Bixentek, tonu apalean, baina irmotasunez—. Eta badakit, herrikook hori ezkutatu nahi diguzuela.

Une hartan, ordura arte isilik egon zen tabernako beste bezero batek barre txikia agertu zuen ezpainenetan.

—Hobe duzue zuen bidea jarraitzea. Gure artean galduta ibiltzea ez da inoiz ona izan.

Matias eta Bixentek elkarri begiratu zioten. Orduantxe seguru zeuden, Luzia herri hartan egon zela, eta zerbait gertatu zitzaiola. Hala ere, ez zuten ulertzen zergatik saiatzen ari ziren guztiak kontu hura ezkutatzen?

Une hartan, atzealdeko mahai batean eserita zegoen adinez ertaina zen gizona ahots apalez hitz egiten hasi zitzaien.

—Luzia... hemen egon da, bai, baina ez zen hemengoa. Norbaiten bila zebilen eta norbait hura ere haren bila. Bart herrian ez du inork lasai lo egin.

Matias eta Bixentek gizonari erne begiratu zioten.

—Nor ibili izan da haren bila? —Galdetu zion Matiasetik.

Gizonak eskuak elkar gurutzatu, eta begirada ilundu zuen.

—Hori jakin nahi baduzue, ez galdetu niri. Tabernatik ateratzean, atzeko karrikara zuzendu. Bertan bizi denak gauza gehiago daki, nahiz eta seguraski, berba egiteko gogorik ez duen izango.

Matias eta Bixentek elkarri keinu egin zioten. Azkenean, oinatz bat zuten.

Une hartan, tabernaren ertzean eserita zegoen mutiko gazte bat hurbildu zitzaien. Begirada bizia, berri-sua, eta eskuetan txanpon bat biraka zebilen, urduri.

—Hemen egon da, bai, —murmurikatu zuen ahots xehez—. Norbaitekin hitz egiten egon zen, eztabaidan, hain zuzen. Eta, ez zuen beldurrik, baina besteak bai. Hark ez zuen nahi Luzia hemen gera zedin.

Matias eta Bixente harrituta geratu ziren. Mutikoak zerbitzariari begiratu azkarra bota eta atzera egin zuen.

—Baina nik ez dizuet ezer esan, eta, faborez, nik ez zaituztet hemendik ikusi, —erantsi zuen eta bere lekura bueltatu zen.

Matias eta Bixentek osteraren egunak elkarri begiratu zioten; zaila egiten da jakitea, egunaren bueltan, zenbat aldiz elkarri begiratzen zioten. Azkenean, norbaitek zerbait aitortu zien, oso informazio gutxi bazen ere.

—Atera gaitezen hemendik, —manatu zion Bixentek—. Atzeko karrikara joan behar dugu.

—Etzazuela kuidaioak euki bigerko egunaz, —esan zien tabernako atsoak.

—Adio, —erantsi zion, Matiasek, siku.

Arratsalde aurreratua bazen ere, tabernatik irtetean egunak ilunabarra zetorrela agintzen zuen. Atzeko karrika estuan sartu ziren, eta, han, etxe zahar baten atarian, agure zimurtua zegoen eserita, pipa toxako tabakoz betetzen zuela. Begirada zuzenean bota zien.

—Zuek zarete Luziaren bila zabiltzatenok, ezta? —Esan zuen ahots lehorrez.

—Bai, zer dakizu hari buruz? —Matiasek itaundu zion.

Gizonak lasai jarri zuen pipa ezpainetan, eta, poxpolo batekin sua eman zion, jarraian hiru-lau zupada bizi emateko.

—Ezer ez, edo agian gehiegi. Galdera da, benetan jakin nahi duzuen ala ez. Zenbat jakin nahi duzue?

Bixentek aurrera egin zuen, ez baitzuten denborarik galtzeko.

—Galdetzen ibiltzea arriskutsua da. Luzia ere horrela ibili da, jakin-min handikoa da, —esan zuen agureak—. Eta badakizue nola bukatu duen...

Isiltasuna nagusitu zen. Matias eta Bixentek gehiago jakin behar zuten.

—Informazioak bere salneurria du, —jarraitu zuen, pipari zupada sakon bat ematen ziola—. Eta nik ez dut doan hitz egiten.

Matiasak ez zuen atzera egin.

—Zer nahi duzu? Dirua?

Gizonak barre motel bat egin zuen.

—Lagun, diruak ez du hemen ezertarako balio. Baina badut enkargu bat. Herritik atera behar naiz, eta norbaiti mezu bat eramatea nahi diot. Baina arriskutsua izan daiteke. Gauza bat jakin behar duzue: Informazioa jasotzen baduzue, ez duzuela izango atzera egiterik.

Bixentek begirada zolia bota zion agureari.

—Nor da mezua jaso behar duen hori?

Gizonak papertxo tolestua astiro atera zuen poltsikotik, eta Matiasi luzatu zion. —Eraman hau hiriko gizonari. Han gehiago jakingo duzue. Luzia ere hortik ibili zen.

Matias eta Bixentek hamakagarrenez elkarri begiratu zioten. Ordukoa ez zen ohiko informazio-trukea, ordea, ez zuten beste aukerarik.

VI

Gaueko hamarrak inguru izango ziren, autoa Prudentzio deunaren ingurutik hirira barneratzen ariko zenean. Euri arinak asfaltoan distira sortzen zuen, eta, ur gainean islatu ostean, farolen argiek kaleei ukitu likatsua ematen zieten. Matiasek ispiluan begiratu zuen berriz, eta Bixenteri zalantzazko keinu batekin hitz egin zion.

—Ezin dizut ziurtatu, baina, uste dut, gibeletik datorkigun auto hori segika dabilkigula.

Bixentek ez zion berehala erantzun. Arretaz aztertu zuen errepidea, eta erlojuaren orratzak bezain hotz hitz egin zion.

—Saiatu gaitezen brastakoa egiten, ia atzetik kentzen dugun.

Armentia auzoan, aldapa behera egin zuten. Gero, bat-bateko biraketekin, kale estuagoetan sartu, semaforo batzuetan, laranja egonda ere, aurrera egin, baina, atzetik zetorkien autoa oraindik mirailean begiesten zen. Aurrerago kaunitu zuten lehenengo bihurgunean sartzeaz batera, brastako arriskutsua egitea nahikoa izan zen gainetik kentzeko, eta, bi etxadi aurrerago, Bixentek moteldu egin zuen martxa.

—Ez dakit benetan segika izan ditugun, baina beharrezkoa dugu zuhur jokatzea.

Matiasi estutasuna ez zitzaion guztiz desagertu, eta arnasa sakon hartzen saiatu zen. Autoa tabernatik urrun samar aparkatu zuten, ingurua arretaz aztertzeko denbora behar baitzuten. Ezer arrarorik ez, euriaren hotsa eta kalean lasaia baino ez.

Tabernan sartu orduko, giroa erabat aldatu zen. Pub handia, neon argi biziak hormetatik dir-dir egiten, eta musika elektronikoaren bibrazioek hormak dardarka jarrita zituzten. Matiasen begiek aurrean argi-itzalen itsaso kaotikoa zuten, eta, mugimendu etengabe batean, bertakoen aurpegiak erremediorik gabe ezabatzen zitzaizkion. Bixentek, aldiz, ez zuen inolako zalantzarik, eta, barra aldera abiatu zen, lekuan eroso sentitzen zela erakutsiz.

—Baina nola aurkituko dugu? —Galdetu zion Matiasetik, ahotsa altxatu behar izanaz konturatu gabe—. Pazientzia, —erantzun zion Bixentek, irribarre alaiaz. Zerbitzariari Jack Daniel's pare bat eskatu zizkion, eta, bere hartan, begiek ikus zezaketen jendea behatzen jarraitu zuen—. Zain egon behar dugu. Jakin-mina baduzu, bueltatu eta so egin ganaduari.

Matiasetik, berriz ere, arnasa sakon hartu behar izan zuen, ordea, ezin izan zuen lasaitasuna erabat bereganatu. Taberna barruko giroan murgilduz, atzera begira jarraitzen zuten, susmoa ezin alde batera utziz.

Halako batean, Bixentek gorako bi begien keinuarekin, alegia, dupleena, tabernaren barrualdean zegoen gizon argala adierazi zion. Ezezagunak ez zien zuzenean begiratzen, alabaina, bazirudien oharkabea eurak aztertzen zebilela. Matias tipoarengana hurbiltzen hasi zen, hala ere, Bixentek eskuarekin geldiarazi zuen, zera esaten ziola: —Ez da hain erraza. Zerbaitek ez dit grazia handirik egiten.

Tabernako argien artean, inguruko jendearekin nahastuta, gizonak poliki-poliki edalontzia mugitzen zuen. Azkenean, hogeit hamar hamakakoaren begi keinua egin zien, zuzenean hurbiltzeko esanez bezala. Matias eta Bixente tentsioak bultzatuta pausoka hurbildu zitzaizkion. Ezezagunak ez zuen zuzenean hitz egin nahi, horren ordean, paper tolestu batean idatzitako mezua

mahaiaren gainean utzi zien. Matiasek azkar zabaldu zuen, hala eta guztiz ere, irakurritakoa espero zuena baino ilunagoa zen.

“Luzia aurkitu nahi baduzue, lehenik niretzat zerbait egin behar duzue.”

—Joder, berriro kontu berdinarekin. Hemen mundu guztiak nahi du zerbait trukean. —Bixenteri konturatu gabe atera zitzaion. Gohainduta zegoela ematen zuen.

Matias eta Bixentek elkarri begiratu zioten, galdera ugari airean geratzen zitzaizkiela, aditzera eman bezala. —“Zer nahi zuen? Eta informazio haren atzetik zergatik zebilen beste talde bat?” —Matias hausnartzen.

—Zer egin nahi duzu? —Galdetu zion Bixentek, ezpain ertzean irribarre mehe bat marraztuz.

Gizonak mahai gainean zuen edalontzia hartu, eta, beste behin, poliki-poliki biratzen jarri zen, haiek aztertzen ari zela argi utziz. Ez zuen bere burua aurkeztu, baina, mezuak baino gehiago, haren begiradak hitz egiten zuen.

—Ez duzue denbora asko, —esan zien azkenean—. Bestela, zuon aukerak alde egingo du.

Matias sumindu zen.

—Zer egin behar dugu?

Gizonak irribarre txikia egin zuen, ordea, tonuak ez zuen ezer samurrik adierazten.

—Jakinmin handia duzu, —erantzun zion tipoak—. Oso ondo. Azaldu dezagun argi. Gaur gauean, norbaitek eskura eman behar duen pakete bat ekarriko du. Lortzen baduzue, informazioa izango duzue. Ez baduzue eskuratzen... ba, Luzia ere ez.

Bixentek arnasa bota, eta Matiasi begiratu zion. Biek zekiten jokoan zeozer gehiago gehitu zela. Horren eraginez, Matiasen barrenean, beldurra eta jakingura borrokan jarri ziren.

—Zein pakete? —Galdetu zion azkenean.

Tipoak misteriozko irribarreaz erantzun zion.

—Hori ez da zuok egin beharreko galdera. Zuoi egin beharreko galdera ondorengo hau da: Prest al zaudete?

Matiasek eskuak mahai gainean jarri zituen, bere burua irmotu nahian.

—Non eta noiz? —Galdetu zion jarraian.

Gizonak irribarre astun batekin erantzun zuen: —Kanpoan, tabernatik bost minutura, aparkaleku txiki bat dago. Zortzi minutu barru, pertsona hori han egongo da paketea zuoi emateko. Jaso eta segurtasunez atera. Horixe besterik ez.

Keinu arin bat eginez, Bixentek Matiasi begiratu zion. Horrelako gauzak inoiz ez ziren hain errazak izaten.

—Eta beste talde hori? —Galdetu zion Bixentek.

Gizonak edalontzia ahora hurbildu zuen, edariaren azken tantak dastatzeko asmoz.

—Oraingoz ez da zure arazoa.

Matias eta Bixente mahaitik altxatu ziren. Jada ez zegoen atzera egiterik. Paketea jaso beharko zuten, bidean zer egokituko zitzaien jakin gabe.

Aparkalekura iristean, iluntasunak babesten zituen arren, Matiasen bihotzak azkartu egin zituen taupadak. Ingurua aztertzen zebilela, ordea Bixentek

laguna geldiarazi zuen. Auto gutxi zegoen. Halako batean, aparkalekuaren erdian itzal bat mugitu zen. Handik gutxira, kaputxadun ezezagun batek poltsa txiki bat jarri zuen zoruan. Ez zuen ahotsik jaulki, soilik urratsak atzera botatzerakoan ateratako hotsa entzun zen.

Matiasek aurrera egin nahi zuen, ordea, Bixentek besotik heldu zion.

—Itxaron, —xuxurlatu zion—. Segada izan daiteke.

Segundo gutxi batzuk igaro ziren. Bat-batean, urrutian auto bateko atea ireki zen, eta ilunpean eurengana oinkada azkarrak zetozkiela entzun zituzten. Airean tentsioa bueltaka antzeman zuten, eta, ohartu ziren, paketea ez bazuten hartzen galduta zeudela.

Bixentek azkar egin zion keinua.

—Orain, hartu eta korrika.

Matias makurtu egin zen poltsa hartzeko. Mugimendu oso bizkorra izan bazen ere, ia aldi berean, urrunetik norbaiten oihua entzun zen:

—E! Gelditu!

Bixentek Matias bultzatu egin zuen, eta biek aparkalekuko atzeko irteerarantz korrika jalgi ziren. Atzetik pauso astunak entzuten zituzten, ordea, Bixentek bidea ezagutzen zuela zirudien. Eskailerak zoli jaitsita, kaleko argietara irten ziren. Euren auto beltza hantxe bertan zeukaten. Atea ireki, motorra martxan jarri, eta, iluntasunean misterioaren bihotzerako bidean, Bixentek barruraino sakatu zuen. Matiasek arnasa berreskuratzeaz batera, duela apenas urtebete, bere izena zeraman bala biriketara sartu zitzaion goiz madarikatua gogoratu zuen. Jarraian, poltsa irekitzeko saiakera egiten zuela, beste behin, Bixentek eskua jarri zion hatzetan.

—Hemen ez, —esan zion lagunik ez balu bezala—. Lehenengo leku seguru batera joan behar dugu.

Euren gibeletik abiadura azkarrean zetorkien auto baten argiak agertu zitzaizkien. Bixente maniobra azkarrak egiten saiatu bazen ere, atzekoa ia itsatsita zeukaten. Bat-batean, oztopatzeko gogoarekin, aurretik beste auto bat gurutzatu zitzaien.

—Adi, —ozen esan zion Bixentek, gidari trebearen mugimendu batekin aurreko autoaren alde batetik ihesbidea bilatuz.

Matias belaunen artean poltsa estutzen ari zen, ulertzen baitzuen, une batetik bestera, dena lehertzeko zorian zegoela.

Bixentek beste maniobra arriskutsu bat egin behar izan zuen, kale estuegi batetik sartzeko. Automobilaren kanpoko ispiluak pareten kontra igurtzi ziren, eta eurek ere ez zekitela nola lortu zuten handik irtetea.

Autoak beste biraketa azkar bat egin zuen, eta, azkenik, atzetik inor ez zutela egiaztatu ondoren, Arriaga atariko pabiloi abandonatu batera iritsi ziren. Bixentek motorra itzali eta arnasa sakon hartu zuen, segundo batzuren bueltan, airea indarrez kanpora botatzeko. Matias poltsa zabaltzen hasi zen, bien begiradak bertan aurkituko zutenei iltzatuta zituztela. Barruan gutun bat, argazki soila, eta sarraila arrunteko giltza zeuden. Gutunean mezua: “Dagoeneko honaino heldu bazara ez zaizu denbora lar geratzen. Ez fidatu inorekin. Hurrengo aztarnak zuon esku daude.” Argazkian Luzia agertzen zen, eta bere alboan aurpegia itzalpean zuen beste pertsona bat ikus zitekeen. Giltza, berriz, ezagun zitzaien jauregi zaharrekoa zela zirudien, behinik behin, giltzatakoan JZ jartzen zuen eta armarriaren irudi txikia. Zenbatgarren aldiz esatea zaila egiten bazen ere, Matias eta Bixentek elkarri begiratu zioten;

begirada nolabait galdera berriak airean bueltaka zebiltzala gogoratuko baliote bezalakoa izan zen.

—Jauregian dagoen zerbait aurkitu behar dugu, —esan zion azkenean Bixentek, poltsaren edukia berriz aztertzen ari zela.

Matias ez zegoen hain seguru. —Ez duzu uste segada izan daitekeela?

—Denbora gutxi dugu eta gutunak argi dio ez fidatzeko inorekin. Eta ez daukagu beste aukerarik. —Bixentek giltza eskuetan hartu eta biratu zuen—. Honek zer zabaltzen duen ikusi behar dugu.

Autoa berriro martxan jarri, eta jauregi zaharrera bidean abiatu ziren, arras sinetsarazita, gauak oraindik sekretu gehiago gordetzen zizkiela.

Jauregia, bertan behera utzita zegoela zirudiena, barrutik argi epel batek argituta zegoen. Lehenengo bi solairuak nolabait ezagutzen zituzten, eta hirugarrenera igo ziren. Bixentek giltza ateko sarraila-zuloan sartu eta poliki biratu zuen. Atea zabaltzean txirrina bezalako klik hots lehorra aditu zen.

Ohol zabalez eginiko korridoreak zeharkatzera gonbidatzen zuen. Giltzak 307. gelako atea ere ireki zuen. Barruan gauza bitxia aurkitu zuten: mahai txiki baten gainean, argi dardarkaria ematen zuen hiru kandelako inperio gandelairua. Eta gela hondoan Luzia zegoen.

Matias hurbildu eta bere izenez deitu zion. Alabaina, Luziak ez zion erantzun. Arnasa hartzen bazuen ere, lozorro sakon batean bezala zegoela zirudien. Orduan, haren sorbalda astindu zuenean, Luzia mugitzen hasi zen. Konturatu zen bere lagunak zirela, eta begiak erdi irekita ahots otzanaz baieztatu zuen: —Azkenean, bazatozte...

Itsumustuan, kanpoan zarata bat entzun zen. Korridorean norbait zebilen. Ateak kraskatuaren hotsa atera zuen, eta urrats astunak hurbiltzen zitzaizkiela antzeman zezaketen. Bixentek supituki eskua erreminta oratzera eramane zuen. Bitartean, eta, instant batean, Matias Luzia altxatzen saiatu zen.

—Bizkor, hemendik irten behar dugu! —Murmurikatu zuen Bixentek, atea dardarka jarri zen une berean.

Luzia oraindik ahul bazegoen ere, gutxienez bazegoen esalditxo bakar bat ahoskatzeko moduan:

—Eskertzen dizuet, baina badakizue jende oso gaiztoa dela, eta...

Atea bortizki ireki zen, eta lau ezezagun pistolekin sartu ziren. Beste ezeri jaramonik egin gabe, tirokatzen hasi ziren. Bixentek lehen ez tandarekin bota zuen beruna bi aurkari lurrera joateko aginduarekin izan zen. Matiasek beste bati bota eta ezezagun hark egin zuen egitekoa zuena. Azkena Luzia harrapatu nahian saiatu zen, alabaina, ahalegina hutsala gertatu zitzaion, haren gorpuak lurrean amaitu baitzuen.

Eszenak isiltasunera bultzatzen zuen. Orduan, bene-benetan jakin nahi zuten: “Luzia jauregi hartara zergatik ekarri zuten, eta nork agindu zuen guzti hura egitea?”

Bixentek aurkarietako baten soinekoak miatu zituen. Poltsikoan telefonoa, pantailan azken mezua argi agertzen zuena: “Ziurtatu denak isilduko direla.”

Beste batek jertsearen patrikeran txartel bat zuen: Izen bat eta helbide bat.

Matias, Luzia oraindik besoetan eutsiz, Bixenteri begira geratu zen. Hark txartela eskura eman zion eta irakurtzean Matiasen aurpegia ilundu egin zen.

Ez zuen hitzik egin. Bixentek, behinik behin, gezur irribarrea marraztu zuen bere ezpainetan.

—Bagenekien guzti hau ez zela hemen amaituko, ezta? Hona etortzea izan da arriskua. Hemen garbitzea nahi izan gaituzte, Luzia, zu eta ni, hirurok aldi berean. Hauxe zen agertzea nahi zuten eszena eta mezua. Eskerrak nahi izan dutena ez dutela lortu.

—Bai, arriskua ez zegoen paketea zabaltzean, hona etortzean baino. Arrazoia duzu, Matias.

Luziak nahiko ahul jarraitzen zuen, nahiz eta ahotsa bere onera etortzen hasia baitzitzaion.

—Badakit nor dagoen honen atzean, —esan zuen, arnasa hartuz—. Baina, ez zaizue gustatuko entzutea.

Matias eta Bixente halakoa aditzean zur eta lur geratu ziren. Ez zuten han geratu nahi. Ihes egin behar zuten, ordea, ez zekiten nora joan. Bixentek begirada leiho aldera zuzendu zuen, beste aldea finkotasunez begiratu eta hitz egiten hasi zen:

—Buruan badaukat toki bat. Ez da segurua, hala ere, alternatiba hobeagorik ez daukagunez hara joan beharko ginateke.

Euren artean, beste behin, isiltasuna nagusitu zen. Orduan, hirukotea jokoaren bihotzera zihoan erantzunen bila.

Abiatu ziren. Bixentek proposatutako biltegi ondora iristean, giroa izotza zen. Kanpoan, motorra hotza zuen automobila zegoen, eta inor ez zen inondik ikusten. Matiasek ez zuen bere gustuko. Barruan apenaz ikusten zen ezer; ipurtargi batek argi gehiago egingo zuen. Ozta-ozta, konturatu ziren mahai gainean zigarro erdi errea zegoela.

Luzia gauza gehiago oroitzen hasi zen. Ahotsa garbituz joan zitzaion, eta argi ulertzeko moduan hitz egiten zuen:

—Hau guztia ez da duela egun gutxi hasi... Denbora daramate nire atzetik.

Matiasek ez zuen gustuko Luziak esandakoak adierazten zuena, alabaina, ez zuen denbora galtzen ibiltzea nahi. Bixentek burdinari heldu zion, bestalde ohizkoa egiten zitzaiona, eta urratsak gelaren barrura zuzendu zituen. Iluntasunean, bat-batean, mugimendu bat nabaritu zuten.

Tentsioa labana batekin mozteko modukoa zen, kostaldean laino itxia izaten denean bezalakoa. Bat-batean, atzean urrats bat entzun zenean, tiroaren hotsak airea birrindu zuen.

Segundo batez urduritasuna hedatu zen. Matiasek bederatzikoa atera, eta Bixentek norabidea hartu zuen. Iluntasunean, ezezagunaren soslaia ikus zitekeen.

—Gustatuko litzaidake tiro hori niregana heldu izan bazen, —entzun zen esaten zuela ahots zakarrak.

Luzia harrituta geratu zen, eta eskuak dardarka jarri zitzaizkion. Berehala itxi zuen ahoa, ordea, begietan nabarmen islatzen zitzaion ezustekoa.

—Ezinezkoa da... —ahapeka mintzatu zen.

Matias eta Bixentek elkarri begiratu zioten, jada ez zekitela kontu bera zenbat aldiz egiten zuten. Pistolen heldulekuak estutu zituzten, ez fidatzeko moduan. Tipoaren soslaia pausoka hurbiltzen hasi zitzaien.

—Zuek ere jokoan zaudete orain, —esan zuen ezezagunak—. Eta atzera egiteko beranduegi da. —Jarraitu zuen hitz egiten.

Bixentek bederatzikoa ez zuen jaitsi, harengana zuzenduta zuen:

—Minutu bat daukazu azalpenak emateko, —esan zion tonu hotz eta neurtuan—. Bestela, hemen bukatuko da zure bidea.

Elementuak irribarre arin bat marraztu zuen, behintzat ez zirudien beldurtuta zegoenik.

—Ez dakizue noren aurka ari zareten, —esan zuen pausoa mantenduz—. Luziak badaki. Horrexegatik dagoeneko jokoaren barruan zaudete.

Kanpoan, auto baten ateak ozen itxi ziren. Urratsak entzuten ziren, eurek zeuden espaziora zuzentzen zirela. Ezezagunak arnasa hartu, eta murmurio baxu baten erara mintzatu zen:

—Ez dugu denborarik galtzeko. Orain erabaki behar da: Nirekin zatozte, edo zuon kabuz saiatuko zarete aurrera egiten? Hemen ezin gara geratu, denok hilda amaituko ginateke eta.

Matiasek burua astindu zuen zera esateko: —Zu aurretik zoazela alde egingo dugu, eta gero argituko ditugu kontuak.

Ezezagunak burua makurtu zuen, espazio ilun hartatik irteteko norabidea aldatuta. Matias eta Bixentek Luziarekin batera tipoaren atzetik jarraitu zuten; larriturik zeudela antzematen zitzaien, tentsiopean, alegia; zelan ez. Gaueko iluntasunean desagertu ziren, gibelean dena errauts.

VII

Matiasetik bulegoa zueneko kalera iritsi zirenean, giro hotza sumatu zuten, eta, aldi batean, gainetik ezin kendurik zebiltzan halako sentipen arrotza, zerbait okertuko zenaren sentsazioa, nekearena, beldurrarena, alegia. Ordu txiki haietan, hiria oraindik lo zegoen, eta, lotan, egon ere, amets sakon eta REM ezaren inguruan-edo, seguraski.

—Sartu gaitezen azkar, —agindu zien Matiasetik—. Bulego hau leku segurua izan da orain arte, baina, hemendik aurrera, ezin gara arriskuan jarri, edozein gauza gerta dakiguke.

Eskailerak azkar igo zituzten. Matiasetik giltzak atera, eta atea ireki zuenean, barruan dena bere tokian zegoela zekusan. Ez zuen antzeman inor bertaratu zenaren arrastorik. Hala ere, azpimarragarriena, Matiasen mahaiaren gainean, izenik gabeko azal zuridun eskutitza zegoen, erdi-erdian, eta orden logikoan jarrita. Hortaz lehenengo behaketak huts egin zion.

—Hau ez da ohikoa, —murmurikatu zuen Bixentek, poliki hurbilduz.

Matiasetik gutuna ireki zuen. Gainbegiratua bere baitarako bota ondoren, han idatzita zegoen mezua ozen irakurri zien:

"Ez zaudete bakarrik. Zuen urrats bakoitza jarraitzen ari dira. Esaten dizuedanaz fidatzen ez bazarete begiratu leihotik."

Luzia bat batean dardarka jarri zen, eta ezezagunak aurpegian irribarre arin bat agertu zuen.

Leihora hurbildu ostean, Matiasetik kanpoaldea behatu zuen. Aurrez aurreko eraikinaren teilatuan pertsona bat ageri zen, eskuetan iluntasunean argi pittina islatzen zuen objektu bat zuela.

—Zer demontre... —Xuxurlatu zuen Bixentek, hatzak ukabilduz.

—Jokoa hasi da, —ezezagunak lasai gaineratu zuen—, ez dugu denborarik galtzeko.

Mahaiaren ondoan eseri ostean tipoa mutu geratu zen. Aldi berean, besteak euren begirada guztiak berarengan iltzatu zituzten.

—Nik dakidana ez da nolanahikoa, —esan zuen orduan, ahots xehez—. Eta, seguraski, zuen galdera guztiak ez ditut erantzuterik izango, dena dela, badakizue guzti honetan dagoeneko sakonegi sartu zaretela, eta orain ez dagoela atzera egiterik. Luzia... zerbait gorde duzu. Zuk aitortu diguzuna baino gauza gehiago dakizu.

Luziak ez zuen berehala erantzun. Eskuekin mahaiaren ertza estutu zuen, eta besteen begiradak saihesten ahalegindu zen.

—Ez nago ziur... —esan zuen azkenean—. Baina, badakit bilatzen ari diren informazioa ez dagoela nire eskuetan bakarrik. Tartean badago baten bat gehiago.

—Nor? —Matiasak bizkor ihardetsi zion.

Ezezagunak burua aurreratu zuen, eta zerbait esan zien.

—Ez dakigu oraindik, baina lehenbailehen jakin behar dugu. Teilatuan dagoen tipo hori... hori mezu bat da. Ez duzue oraindik ulertu?

—Zer esan nahi duzu? —Bixentek haserre galdetu zion.

—Hor daudenak ez dute zuzeneko erasorik egingo, oraindinarren behintzat. Horregatik jarri digute mahai honetan gutuna. Oraindino jokoaren arauak betetzen ari dira, nahiz eta laster gauzak okertzen hasiko diren. Eta

orduan, edo gu jokoaren aurretik ipintzen gara... edo erabat galduko dugu; bazterren batean seko geratuko gara.

Luziak hatzak elkarri lotu, eta sakon hartu zuen arnasa.

—Handik, zuon ondotik irtetera derrigortu ninduten, —onartu zuen azkenean—. Bai, egia da, nahitaezko laguntasuna izan nuela, eta bizirik jarraitzeko baldintza bat ipini zidaten. Informazioa eman behar nien, eta, zerbait esan, esan nien. Baina ez guztia. Gero alde egin nuen. Berriro harrapatu nindutenean, bazekiten ez niela nekien guztia esan, eta, orduan, bahitu egin ninduten. Orain... agian, baliteke berriro nire bila etortzea.

Ezezagunak buruarekin keinu egin zuen.

—Horrek esan nahi du, oraindik ez dugula dena galdu. Badakigu haiek zer nahi duten. Eta guk erabil dezakegun zerbait daukagu... baina azkar jokatu behar dugu.

Matias eta Bixente isilik geratu ziren, pentsakor. Ezin zuten jakin, Luziak egia osoa kontatu ote zien. Hala ere, gauza bat argi zeukaten: Jokalekuko pieza guztiak mugimenduan zeudela, eta eurek lehen kolpea emateko prest egon behar zutela.

—Egia esango dizuet, —argitu zuen azkenean, ahots apalez baina irmotasun amiñi bakarraz—. Lagundu ninduten pertsonak ez dira guztiz fidagarriak. Ihes egin aitzinetik, nolabaiteko informazioa eman behar nien. Gero, damutu egin nintzen, eta, uste izan nuen, ez niela ezer esan behar. Haiek ulertu zutenean datu asko neuretzako gorde nituela, ni entregatzea erabaki zuten.

—Zein informazio? —Galdetu zion Matiasek, urduri.

—Jokoaren arauak aldatzen dituen informazioa. —Luziak arnasestuka jarraitu zuen—. Ez dakit, zehatz-mehatz, baina han esperimentuak egiten

zituzten, eta, egun ere, uste dut berdin jarraitzen dutela. Ez ninduten bakarrik bahitu, ni bezala beste batzuk ere bazeuden. Eta haien artean... ezagutzen dudan norbait dago.

—Nor? —Bixentek presaka.

—Oraindik ez dut izenik emango, —esan zuen Luziak, burua astinduz—. Behintzat badakit tipo hori ez dagoela hilda, eta, badakit baita, orain bera dela jokoaren gakoa. Horregatik bahitu ninduten, informazioa emateko.

—Orduan, ez gaude lanean soilik gure burua salbatzeko, —ezezagunak eskuak gurutzatu zituen—. Norbait gehiago dago jokoan.

—Eta guk aurretik jokatu behar dugu, —buelbaka ibili ondoren, esan zuen Matiasek—. Informazioa behar dugu, baina joko honetatik irten nahi badugu, geuk erabili behar ditugu jokoaren arauak.

Tentsioak giroa akigarri bihurtu zuen, zama astunak egiten duen erara egiten zuen, goitik behera. Teilatuko pertsonaren soslaia oraindik han zegoen, itxaroten. Jokoak bere lehen urratsak eman zituen, eta, eurek, gura zein gura ez, erdian zeuden.

—Nik dena aitortuko dizuet, —esan zuen ezezagunak—. Guzti horren atzean ez daude soilik mafiakoak, edo talde kriminal bat. Hori gobernutik haratago doan operazio sekretu bat da. Instalazio horretan ez zuten soilik informazioa gordetzen, esperimentuak egiten zituzten. Giza burmuina manipulatzeko teknikak probatzen ari ziren. Luziak lortu zuen ihes egitea, baina ez zekien guztia. Ez da kasualitatea bera bahitu izana. Ez da kasualitatea zuok guztiok joko honetan egotea.

Luzia urduri mugitu zen; artelatuta antzematen zitzaion.

—Lagundu zidatenek informazio hori lortu nahi dute. Nik eman nizkien datuak amiñiak ziren. Eta, orain, haiek jakin dute, ez niela dakidan guztia esan. Horregatik ninduten bahituta. Ez naute hil, horrek esan nahi du oraindik nigandik zerbait espero dutela.

—Eta hor dago gakoa, —ezezagunak jarraitu zuen—. Badaukate zerbait garrantzitsua, baina guk ere badakigu zerbait. Ez dugu haien jokoaren parte izan behar. Aurretik ibili behar dugu. Eta hau izango da gure hurrengo pausoa: Haiek aurkitu baino lehen, haiek daukaten informazio guztia guk aurkitu behar dugu.

Bixentek sakon hartu zuen arnasa, eta Matiasi begiratu zion.

—Kontu hau arriskutsua da, —esan zuen—. Gutxienez beste aukera bat izango bagenu.

—Ez. —Matiasek buruarekin egin zuen keinua—. Hau joko bat bada, guk jokoaren arauak apurtuko ditugu.

Luzia eseri egin zen. Berriro begirada guztiak berarengan iltzatu ziren, baina, oraingoan, zekien guztia aditzera emateko erreguan bezala.

—Egia osoa aitortuko dizuet, —azkenean, ahots apurtuaz, esan zuen—. Bahituta geundenen artean norbait ezagutzen nuen. Izan ere... nire neba zen.

Matias eta Bixentek elkarri begiratu zioten, harrituta; orain bazekiten Luziak esandakoa balio handikoa zela. Ordea, ezezagunak burua apur bat makurtu zuen.

—Ez nuen espero nire neba han aurkitzea, —Luziak kontaktari ekin zion—. Uste nuen hilda zegoela, edo behintzat desagertuta. Baina ez, han zegoen, esperimentuetako bat bihurtuta. Eta beraiek hori badakite, baina, ustez

nago, ez dakitela neure neba dela. Horregatik ni ez naiz haientzat oso arriskutsua... nire neba bai, nire neba bai.

—Eta horrek esan nahi du... —Bixentek esaldia amaitu gabe utzi, eta keinu bat egin zuen haren ordezt.

—Horrek esan nahi du gure hurrengo helburua berau aurkitzea izango dela, —esan zuen eurekin zegoen tipoak—. Luziaren neba oraindik bizirik badago, guk baino informazio gehiago dauka. Eta seguruenik, joko honetatik irteteko, gure aukera bakarra horixe izan daiteke.

Matiasen burua astindu zuen, informazio guztiaren pisua barneratzen zebilela aditzera emanez; hausnarrean bezala ikusten zitzaion. Orain egin beharrekoa argiago zeukaten: Ez zuten soilik bizirauten saiatu behar, norbait erreskatatu behar zuten. Ordea, gauzak halan egonda, denbora erabat zeukaten kontra.

Kanpoan, teiltuan, pertsona zirudiena oraindik begira zeukaten. Ordukoan, osteraz, euren ere ekiteko prest zeuden.

—Egin behar dugun lehen gauza, —esan zuen ezezagunak, irmo—, haren arrastoari jarraitzea da. Ez dakigu nora eraman duten, baina ziur norbaitek badakiela.

—Eta horretarako? —Galdetu zuen Matiasen.

Tipo ezezagunak irribarre egin zuen.

—Bihotzean jo behar dugu. Joko hau nondik zuzentzen duten jakin behar dugu. Eta horretarako, haiengana iritsi behar dugu.

Isiltasun astuna berriro haiengana hurbildu zen. Taldeak ez zuen atzera egiteko aukerarik. Jardutekoa zen zeukaten garaia.

—Baina lehenik, —gaineratu zuen Luziak—, badakit non hasi behar dugun. Nire nebaren izena haien artxiboetan agertu zen azken aldian; hortxe jarraitu behar dugu. Badakit nire neba nora eraman zuten.

Han zeudenak haren hitzei adi entzun zieten. Erabakia hartuta zegoen: Jokoaren bihotzera iritsi aurretik, lehenik nebaren aztarnak jarraitu behar zituzten.

—Eta zu, zergatik ari zara laguntzen? —Bat-batean, zalantzaz betetako begirada finkatzen ziola, galdetu zion Matiasek ezezagunari.

Elementuak ez zuen berehala erantzun. Denbora behar izan zuen. Aire falta zitzaiola jabetu zen eta eseri egin zen. Bere aurpegiko lasaitasunak ez zuen aldaketarik pairatu, ordea, bere ahotsari doinua zertxobait mudatu zitzaion.

—Joko honetan zuok uste duzuen baina gehiago galdu dut, —halako batean ausartu zen esatera—. Nire iragana jende horrekin lotuta dago. Ni ere barruan egon nintzen. Eta nik ere, zuek bezala, joko honetatik irten nahi dut... baina, ez soilik ihes egiteko. Zerbaitek erre egiten dit barruan. Deitu justizia nahi badiozue, hala da. Erantzunak behar ditut, eta egiten ari direna eurek ordaindu behar dute.

Matiasek ez zion begirada kendu, ezezagunaren erantzunak ezustean harrapatu zuelako; ez zuen harengandik horrelakorik espero.

—Beraz, mendeku bila zabilta, —ihardetsi zion Bixentek, sinesgaitz.

Ezezagunari irribarre iluna marraztu zitzaion hazpegian.

—Mendekua? —Burua astindu zuen—. Ez naiz ari horren atzetik. Egia nahi dut. Eta egia jakiteko, horien bihotzera iritsi behar dugu.

Luziak bostgarrenez arnasa sakon hartu eta astiro-astiro hustu zituen birikak eta urdaila, ondoren begirada apaltzeko.

—Esan dizuet nondik hasi behar dugun.

—Orduan ez dugu denborarik galdu behar, —gaineratu zuen Matiasak, inoiz baino serioago, irmotasuna nabaritzen zitzaiola—. Mugitzen hasi behar dugu.

Bixentek leihotik begiratu zuen osterera. —Teilatuko tipo horrek oraindik ez du zirkinik egin; dena dela, gu mugitzen hasi orduko, jakingo dugu, gure aurka edo alde dauden.

—Prest zaudete? —Galdetu zien tipo ezezagunak. Inork ez zuen zalantzarik agertu.

Araldea iluntasunean desagertzen hasi zen, haien hurrengo mugimenduak jokoaren norabidea alda zezan. Hala ere, ez ziren bakarrik joango. Handik gutxira, kaleko farolen argi urrian, beste itzal zoli bat hasi zen joan-etorri ezkutuan, egiten zuen mugimendu sigi-sagatsu bakoitzean, urrats azkar eta isilak entzuten uzten zituela. Hurbiletik arrastoa jarraitu gurean, Matiasen andanaren atzetik zebiltzan.

Bat-batean, isiltasuna apurtu zen. Oinaztarriaren erara, itzala aurpegia erakustera euren aurrean jarri zen. Haren pistolak argi beltzean distira egin zuen.

—Ez mugitu, —esan zuen hotz eta aginte-doinuan.

Bixentek, lehen erreakzio gisa, gerrialdeko bederatzikoaren bila eskua eraman bazuen ere, tipoak berehala geldiarazi zuen:

—Ez dut zuetako inor hil nahi. Entzun egin behar didazue. Joko honetan ez da dena dirudiena. Badakit bilatzen zabiltzatena non dagoen.

Matiassek etorri berriari ez zion begirada kendu.

—Zer esan nahi diguzu horrekin? —Galdetu zion.

Etorri berriak begirada iluna luzatu zien.

—Zuen artean traidore bat dago, —esan zuen hotz—. Eta nor den jakin gabe, joko honetatik bizirik ateratzea ezinezkoa egingo zaizue.

Bixentek pistola gogorrago estutu zuen.

—Nori buruz ari zara? Eman izena edo zuretzat hemen amaituko da gaua.

Ezezagunak irribarre arina egin zuen; iruditu zitekeen, norbait beldurtuta ez dagoenean aditzera ematen duen bezalakoa zela.

—Ez dizuet izena aitortuko, —erabat lasai ihardetsi zion Bixenteri—. Baina, traidore hori nor den jakingo duzue, eta, espero dut, beranduegi baino lehenago izatea.

Luzia zurbildu egin zen hatzak dardarka jartzeraino. Matiassek aukera bakarra geratzen zela ohartuta:

—Beraz, esaten ari zara, guk zugar konfiantza izan behar dugula, guk jakin gabe gure aurka nor dagoen?

Etorri berriak burua astindu zuen.

—Bai. Eta denbora galtzen ari gara.

Bixentek begirada zorrotza jartzen zion heinean, pistolaren segurua askatu zuen.

—Bizirik jarraitzea nahi baduzu, eman izena, bestela, hemen amaituko da elkarriketa.

Euren gainera isilune latza jausi zen. Tipoa ez zen mugitu ere egin.

—Ez naiz beldurtuko zure mehatxuekin, Bixente, —erantzun zion hostasunez—. Baina, ondorengo hau esango dizut: Traidorea ez da bakarrik ari. Zuen urrats bakoitza begiratzen ari dira.

Matiasek eta Luziak elkarri begiratu zioten, zalantza eta mesfidantza haien artean hazten ari zela sentituz. Dagoeneko banaketa gauzatzen hasia zen.

Bat-batean, Matias aurreratu egin zen, eta poltsikotik bere mugikorra atera zuen. Begirada serioz, zoruaren kontra kolpatu, eta zapaldu egin zuen, kristalak hautsi arte. Besteak, haren ekintza ikusita isilik geratu ziren.

—Zer egiten ari zara? —Galdetu zion Bixentek, haserre.

—Elkarrenganako zalantzak hementxe amaitu behar ditugu. —Matiasen ahotsa hotza zen—. Ez dakigu nor ari den gure mugimenduak zelatatzen, eta ez dut arriskurik hartu nahi. Guztiok apurtu behar ditugu geure mugikorrak, eta oraintxe bertan.

Luziak urduri begiratu zion bere sakelakoari. Bixentek eskuetan eutsi zion bereari, baina ez zuen mugitu.

—Ez zaitut nire burua kontrolatzen utziko, —erantzun zion Bixentek—. Zure erabakia da, baina nik nire bidea egingo dut.

Etorri berriak barre arin bat bota bazuen ere, ez zirudien harrituta.

—Hauxe da zuon arazoa, —gaineratu zuen, serioago—. Etsaiek zuok barrutik puskatzea behar zaituzte, eta lortzen ari dira.

Matiasek berriz eskatu zion Luziari mugikorra. Begirada zuzendu, eta galdera esaldi labur bezala bota zion:

—Egingo dugu, ala ez?

Abagune hartan, kanpotik beste zarata bat entzun zen. Urrats arin eta etengabeak gero eta hurbilago aditzen ziren. Norbait korrika ari zen, haiengana zuzenean zihoala entzuten zen; oinkada azkarrak, errepikakorrak ziren.

Etorri berriak aurpegia lasai izaten eusten zuen, begirada zolia bihurtu bazitzaion ere.

—Orain da zuon aukera, —esan zuen, mintzaira hotzean—. Hemen geratu edo aurrera egin.

Matias eta Bixentek zorura begira jarraitzen zuten; zamaz beterikoa zen zeukaten begirada, gorputza erabat tenkatuta izaten denean bezalakoa. Luziak pauso bat atzera egin zuen.

—Erabaki. —Matiasek zurrun esan zion, eskuetako hatzak ukabilduz. Bixentek, kopeta belztuz, pistola oratu zuen.

—Inor mugitzen bada tiro egingo diot.

—Orain da aldiunea. Mugikorrak apurtu behar ditugu. Ez duzue ikusten une oro gure gibeletik ditugula! —Ihardetsi zien Matiasek etsi gaiztotuta bezala.

Luzia isildu egin zen. Bixentek ez zuen mugimendurik egin.

—Ez nago ados horrek esaten duenarekin, —esan zuen Bixentek gogor—. Ez dut horrek esaten duena sinesten.

—Horrek esaten duena sinistu edo ez, hori ez da garrantzitsua. Etsaiek une oro dakite nondik nora gabiltzan, eta hori bai dela arazo latza. —Matiasek erabakitasunez.

Luziak dardarka jarraitzen zuen, aldiz Bixentek irribarre ezkorra agindu zion.

—Erabaki guztiak zuk hartzen dituzu, ezta? —Bota zion aurpegira.

—Orain ez daukat denborarik zurekin eztabaidatzeko. —Matiasek urratsa aurrera eman zuen—. Luzia, zurea! —Agindu zion.

Luziak bere mugikorra urduri begiratu zuen. Arnasa sakon hartu ostean lurrera bota zuen. Matias prest zegoen lehertzeko, baina Luziak azkar zapaldu zuen. Pentsatuz nahikoa ez zela izango, oinetakoarekin beste kolpe bat gehiago eman zion.

—Zuk ere, ezezagun! —Esan zion Matiasek, bulegoan eurekin egondakoari, begirada irmo eta zorrotza jarrita zuela—. Hemen guztiok jokatuko dugu berdin. Hi, portzierto, hire izena zein duk?

—Iker.

Ikerrek ez zuen hitzik egin. Segundo batzuez begiratu zion Matiasi, eta azkenean mugikorra atera zuen. Bere kabuz lurrera bota, eta kolpe bakar batez birrindu zuen.

Bixentek bere telefonoa esku artean biratu zuen, begiak tinko mantenduz.

—Ez dut egingo, —esan zuen azkenean.

—Zergatik ez! —Matiasen ahotsak tentsioa izoztu zuen.

—Ez dut egingo, —errepikatu zuen Bixentek—. Ez dakit nor daukagun kontra, baina zuri ez dizut nire arriskua kudeatzen utziko.

—Jakin badakizu zer arriskatzen ari garen! —Matiasek aurpegia gorrituta zuen—. Zure harrokeriak denok hilko gaitu!

—Eta baldin badakite non gauden, zer? —Bixentek orain burua makurtu zuen Matiasengana—. Prest al zaude, hemen eta orain, tiroak botatzen hasteko?

Bat-batean, kale ilunaren beste muturretik, pausu azkar eta etengabeak entzun ziren. Aditzen zirenak ez ziren ohiko urratsak; norbait azkar hurbiltzen ari zitzaien.

Ikerrek ahoa ireki zuen, baina, momentu hartan, tiro batek airea zulatu zuen.

Luziak atzerantz dardarka egin zuen jauzi. Bixentek behingoan bederatzikoa atera, eta lepoa hormaren kontra itsatsi zuen. Matias, begirada zorrotzaz, euren kokapena ziurtatu, eta bere burua babesten saiatu zen.

Beste pauso batzuk entzun ziren, gero oihu bat. Kale ilunean norbait erori zen.

—Ez gaude bakarrik, —ahots xehez esan zien Ikerrek, burua biratuz—. Zuon atzetik datozenak gure aurretik daude.

Guztiek elkarri begiratu zioten. Jada urratsak ez ziren entelegatzen; ordea, bai, aditzen zen, iluntasunean norbaitek arnasa sakon hartzen zuela. Itzal bat higitzen ari bazen ere, argitasunera azaldu aurretik, ahots lehor batek haien arreta erabat harrapatu zuen:

—Dena da posible.

VIII

Iluntasuneko itzalen artean, azken hitz haiek oraindik durundi egiten zebiltzan:

—Dena da posible.

Matiasak begirada biziaz etsaia behatu zuen. Bixentek oraino bederatzikoa eskuan zuen oratuta, eta Luziak urduri, arnasari eutsiz, atzera egin zuen pixka bat gehiago. Ikerrek, ezohiko lasaitasunarekin, aurrera eman zuen oinkada.

—Dena da posible? Bai, jakina, baina zertarako —Matiasen ahotsa hoztasunez beteta zegoen.

Etsaia, lurrean eserita, zauritutako hankarekin ahalegin handia egiten zebilen, gorputza zutik jartzeko. Odola galtzen ari zen, eta larrituta ikusten bazitzaion ere, begirada harroegiaz segitzen zuela hauteman zitekeen.

—Ez zarete hemendik bizirik aterako, —murmurikatu zuen, beste behin, irribarrea ilunduz mutur beltza jartzen zitzaiola.

Azken unea izango bazen eran, Bixentek mugikorra esku artean estutu zuen, begiratu, arnasa sakon hartu, eta bortitz jaurti zuen zorura, botaren takoiaren laguntzaz bertan hausteko, eta, berehala, bederatzikoa berriz arerioaren aldera zuzendu zuen.

Matiasak Luziari ahalik eta azkarren lau telefono mugikor erosteko agindua eman zion. —Ederto, —erantzun, eta gaineratu zion—, denbora apurtxo bat dudanean, egingo dudan lehen gauza izango da, ze telefonorik gabe ezin gara ibili. Baina, Matias, nik lau erosi beharrean zortzi erostearen aldekoa nintzateke. —Bai, hobeto bai, beharko ditugu—. Baieztatu zion nagusiak.

—Denboraz eskas zabiltzate, —lurrean zaurituta zegoenak, beste behin, berritsu baten erara—. Sena jarraituta bezala, eta, begirada oldarkor jartzen zitzaiola, Bixentek muturra okertu zuen.

Matias etsaiaren ondora hurbildu zen. Samina areagotzeko saiakeran, haren bernan balaren sarrera zuen aldean, botarekin sakatu zuen. Lortu zuen nahi zuen emaitza, gizona garrasika hasi baitzen.

—Zer dakizu? Nork bidali zaitu gu hiltzera? —Matiasen ahotsak ez zuen zirrararik adierazten.

—Ez du axola... orain jada dena amaitu da.

Arerioa irri txiki batekin hasi bazen ere, Bixentek pistola burura zuzendu zion. Matiasek sakonago sakatu zion zaurian, eta gizonak zurrumurru mantso baten bidez, agertu zuen pairatzen zegoen oinazea.

—Pentsatzen duzun baino dolore handiagoa egin diezazukegu, edo zauri hori sendatzeko anbulantzia bat eskatu genezake. —Ahots xume eta zuhurraz, Iker hurbildu zitzaion esateko—. Aukera daukazu.

Etsaia arnasa hartzen saiatu zen, ordea, urdaila uzkuritu egin zitzaion. Behin, begirada altxatu, eta, azken indarrak ahitzeko, hitz egin zuen:

—Garaiz iritsiko zineten... dena zenuten alde... baina ez duzue... jakingo nor...

Bat-batean, burua makurtu, eta arnasa galdu zuen. Begiak irekiak zituen, baina hutsik zeuden. Zerraldo zegoen.

Luze joan zen isiltasuna.

—Putakumea, —murmurikatu zuen Bixentek, burdina jaitsiz.

Luziak begiak itxi zituen. Iker, une batez, hildakoaren gorpuari begira geratu, eta ondoren Matiasengana biratu zen.

—Hau, gorpu hau, miatu behar dugu, behintzat jakiteko gainean zer daraman. Zer edo zer eramango du, ezta? —Baieztapena, eta galdera, biak bota zizkion.

Matiasek ez zion erantzun, hala ere, burua mugituz adostasuna agertu zion. Bixente gorpuaren poltsikoak arakatzen hasi zen, eta, orduan, zerbait ukitu zuen. Oraindik irakurgarri zegoen izerdiz bustitako paper orria zen.

—Zer da hau? —Orria aztertzen zuen heinean, galdera egin zuen ahoz gora.

Matias hurbildu zitzaion, eta, iluntasunean, argiaren izpi bati esker idazkia irakurri zuen:

"Hurrengo mugimendua: Burullería plaza. Ordua: 03:45."

Matiasek erlojua begiratu zuen. 02:58. Berrogei eta bost minutu inguru, besterik ez zuten.

—Ez dugu denborarik, —esan zien irmo—. Joan behar dugu.

Bixentek burua mugituz egin zuen baiezkoa, eta Luzia prest zegoen. Ikerrek hildakoari azken begirada bota zion, eta, gero, taldekoak begiratzuz, ondorengoa baieztatu zuen: —Goazen! Hau baino askoz gehiago dago jokoan. —Manu eran atera zitzaion—. Eta badakit nondik hasi behar dugun; Luziaren nebaren bila joan behar dugu.

—Itxaron. Burulleria plaza ez da kasualitatea, —gaineratu zuen, pentsamendua bilduz—. Han, norbait egongo da gurekin harremanetan jartzeko gogoz, hala ere, guzti hori tranpa bat ere izan liteke.

Matiasi betondoa ilundu zitzaion.

—Zer esan nahi duzu? —Jarraian itaundu zion.

Ikerri eztul arina atera zitzaion, eta, banan-banan, andanako guztiei begiratu zien.

—Denbora daramat honen inguruko zantzuak jasotzen. Luziaren nebaren bila hasteko, Burulleria plazara joan aurretik, garrantzitsuagoa da lehenengo bere azken pausoak aztertzea. Badakit nora joan behar dugun. Badakit Luziaren neba han egon zela.

Bixentek sinesgaitz begiratu zion.

—Non dago leku hori? —Itaundu zion.

Ikerrek begirada Matiasekin iltzatu zuen.

—Aurreko astean, Guardia Zibilak arakatutako biltegi zahar batean, mugimendu susmagarriak izan ziren. Txostenen arabera, Luziaren nebaren izena han aipatu zen. Baina, ez dago argi, espazio hartan zer gertatu zen. Lehenengo leku horretara joan beharko ginateke. Hara joan aurretik, Burullería plazara bagoaz, agian, han zerbait aurkitzeko daukagun aukera bakarra galdu genezake.

Segundo batzuetan, Matiasek begirada lurrera jaitsi zuen. Ondoren, araldeari begiratu, eta irmo hitz egin zien.

—Orduan, bi aukera ditugu. Plazara joan, eta arriskua hartu, edo lehenengo biltegi horretan arrastoak bilatu. Ezin dugu denborarik galdu.

Jarraian, erabateko isiltasuna erori zen. Luziak begirada altxatu zuen, urduri, baina aurrera egiteko erabakita.

—Nik... nik uste dut lehenengo biltegira joan beharko ginatekeela, —esan zuen zalantzazko ahots apalez.

Matiasek buruarekin onartu zuen.

—Ondo da. Biltegira joango gara. Baina adi egon, ez dakigu zer aurkituko dugun eta.

Ikerrek irribarre txiki bat egin zuen.

—Orain bai, prest gaude.

IX

Garai batetik, bertan behera lagata zegoen hiriko kanpoaldean kokatutako biltegia, erabateko iluntasunaren babesean zegoela zekusaten, ordu hartan, inor bertaratzea nolabait eragotziz bezala-edo. Eraikinak ingurua erabat hesiz inguratuta bazuen ere, hainbat lekutan herdoilduta, hautsita, edonori zirrikituetatik sartzeko aukera ematen ziola hauteman zitekeen. Panorama hari gaueko aire hotza gehitzen bazitzaion, derrigorrean taldea bat eginda eta arretaz ibiltzera erregutzen zuen.

—Ez dugu denborarik galdu behar, —esan zuen Matiasek, ahots biziz—. Zirkulazio seinalerik ez dago, baina horrek ez du esan nahi barrua hutsik dagoenik, beraz, erne!

Bat zetorrela adierazteko, Ikerrek burua makurtu zuen.

—Gu hona heldu aurretik, norbait egon da hemen, —esan zuen, biltegiaren ate nagusiko hauts arrastoak seinalatuz—. Zapatila urratsak freskoak dira. Duela ez asko, baten bat hemendik ibili da.

Eskuaz txamarra barruan zeraman bederatzikoaren heldulekua ferekatuz, Bixentek ingurua behatu zuen.

—Sartu, eta azkar ibili behar dugu, —doinu irmoz manatu zien—. Ez zait gustatzen hemen ikusten nagoena.

Matias hurbildu, eta atea astiro bultzatu zuen. Barruan dena zen ilun, ordea, linterna txikiekin hondatuta zegoen gela batera sartzeari lortu zuten. Kutxa zaharrak, paperezko artxiboak eta altzari hautseztatuak sakabanatuta zeuden; anabasa, kaosa.

—Banatu gaitezen, —agindu zuen Matiasek—. Iker eta ni goiko bulegoak miatzen saiatuko gara. Bixente, Luzia, zuok behealdea arakatu. Zerbaitek deigarria iruditzen bazaizue, abisatu berehala.

Iker eta Matias eskaileretatik gora igo ziren, urratsaren urratsean maila bakoitzeko egur taulak kraska jarritz. Goiko bulegoetako atea irekitzean, mahai zahar bat eta metatutako hainbat artxibo zeudela behatu zituzten. Matias mahai inguruan zebilen, paper zaharren artean, zerbait baliagarri topatuko zuen desioaz.

—Egia zen... —Ikerrek paper bat hartu eta argitara hurbildu zuen—. Guardia Zibilaren fitxategiak dira, baina datu batzuk ezabatuta daude.

Matiasen begirada zolia bihurtu zen.

—Norbaitek ez du nahi guzti hau guk ezagutzea... baina zergatik utzi dute hemen?

—Dirudienez, den dena eramateko ez zuten denborarik izango, edo guk aurkitzea nahi izan dute. —Ikerrek paper bat luzatu zion Matiasi.

"Ekintza jarritako data baino lehenago egingo da. Ezin da ziurtasunez baieztatu."

—Zein ekintza? —Matias paperari begira gelditu zen. Une hartan, beheko aldean, Luziak ahots apalez eta urduri botatako oihuak etena eragin zion.

Bixente altzari zaharren artean mugitzen ari zen bitartean, Luziak pareta baten kontra zerbait sumatu zuen. Horma batean freskoago zegoen atal bat ikusten zen; sakonago aztertzea eskatzen zuen, ezen iltze batzuk berriki jarritako egur plaka bat eusten baitzuten.

—Hemen zerbait badago, —esan zuen xuxurlatuz bezala.

Bixente Luziaren ondora egokitu zen, eta, bi eskuak baliatuz, egurrezko plaka bultzatu zuen, bat-batean atzerantz etsi egiten zuela. Barruan, gela txikiaren zoruan, odol arrasto nabarmenak ageri ziren.

Luzia, pairatzen zegoen asaldurari eutsiz, urrats bat aurrera eman, eta ikusi zuenak harrituta utzi zuen. Paretan odolez tindatutako mezu bat idatzita zegoela behatu zitekeen:

"Ez fidatu..."

—Kristo... —Bixenteri begirada izoztu egin zitzaion—. Hau ez da kasualitatea, ez, ez, hau ez da kasualitatea.

Une hartan, Matias eta Iker behera jaitsi ziren.

—Zer aurkitu duzue? —Galdetu zien Matiasetik.

Iker eta Matias gelara sartzeaz batera Luziak hormako mezua adierazi zien.

—Odola lehortuta dago, —esan zuen—. Hau duela egun batzuk egin da.

Bixentek ingurura begiratu, eta burua goitik behera eraman zuen, susmoak sendotu zitzaizkiola argi uzteko.

—Baina norekin ez da fidatu behar? Eta zergatik utzi zuten mezu hau hemen?

Une batez, Iker isilik geratuta bazegoen ere, arnasa sakon hartu ondoren, zera esan zuen: —Luziaren nebak idatzi zuela uste dut.

Matias hormako idazkerari begira pentsakor geratu zen. Bixentek ingurua aztertzen jarraitu zuen, eta, orduan, goiko solairutik oihu ozena heldu zitzaien.

Bat-batean, erne jarri ziren. Ikerrek pistola poliki-poliki atera, eta Luzia begiratu zuen; gor-mutu, eta nerbio sistemak muskuluak paralizatu bazizkion antzera ikusten zen, aurrera egin ezinik.

—Ez gaude bakarrik, —murmurikatu zuen Bixentek.

Berriro beste zarata batzuk entzun ziren. Norbaitek urratsak azkar ematen zituen, eta, bat-batean, goiko aldetik airean paper bat erortzen zen beherantz. Matiasek eskua luzatu eta orria hartu zuen. Begirada bizkor batez aztertu ondoren, begiak estutu zituen.

—Norbaitek guk hau ikustea nahi du,—murmurikatu zuen.

Paperean idatzita zegoena guztiek irakurri zuten, eta hitzak buruan iltzatuta geratu zitzaizkien:

"Ez fidatu berarekin. Zuen mugimenduak aurretik dakizki."

Luziak begirada altxatu eta urduri esan zuen: —Nor edo nork guk egiten ditugun mugimenduak aurretik ezagutzen baditu, orduan plazara joatea arriskutsua izan daiteke.

Une hartan, kanpotik auto baten motorra entzun zen, eta aurreko argiak biltegiaren hormetan islatu ziren.

Bixentek burdina eskuetan hartu zuen. Orduan, autoa gelditu, eta gidariaren atea astiro ireki zen. Guztiak jarri ziren elkarri begira, euren hatsek bizkor egiten zutela hegan airean.

—Eraman behar duguna hartu, eta joan gaitzen, —agindu zien Matiasek, begirada ilunduz—. Hau tranpa bat izan daiteke.

Isiltasuna entzungor zegoen. Inor ez zen mugitzen. Motorra martxan mantentzen zen, ordea, ez zen barrutik inor ateratzen. Farolen argiak taldearen aurpegietan islatu ziren, haien itzalak luzatzen zituela.

—Nor da han dagoena? —Pistola autora zuzenduta, Bixentek ahotsa baxu mantenduz galdetu zuen.

Barrukoak leihotik objektu txiker bat bota zuen bidera. Metalak, zoruairen kontra jo zuenean, zarata amiñi bat entzun zen, eta hozitu zuen hotsagatik, giltza zela esan zitekeen, bat bakarra.

—Hau joko bat da, —murmurikatu zuen Ikerrek.

Une hartan, goiko solairutik, beste zarata bat heldu zitzaien; norbait azkar mugitzen ari zen.

Matiasek berehala antolatu zuen ekintza.

—Bixente, Luzia, igo goiko solairura, eta begira ezazue nor dagoen hor. Iker, zu eta biok autora hurbilduko gara.

Bixentek buruarekin baieztatu, eta Luziarekin batera eskailerara joan ziren.

Iker eta Matias autora hurbiltzen hasi ziren. Atea irekita mantentzen bazen ere, eurek zeuden lekutik, barruan ez zen inor ikusten.

—Denbora gutxi daukazue, —halako batean, esan zuen barnean zegoen ahots ilunak.

Matiasek bederatzikoa sendo eutsi zuen.

—Ez naiz zuen etsaia, eta zuon laguna ere ez, —ahotsak jarraitu zuen.

Bitartean, goiko solairuan, Bixente eta Luzia ate bat zabaltzen aritu ziren. Ustekabean, norbait haien kontra oldartu zen, kolpeka eta oihuka.

Bixentek erantzuteko lehenengo atzera egin zuen. Luziak ere zalantzaz pistola altxatu zuen.

—Lasai! —Oihu egin zuen Luziak, baina erasotzaileak ez zuen amore eman.

Gizonaren begiak larrituta zeuden; bisaia ilunean etsipenaren arrastoa nabari zitzaien. Ez zirudien antolatutako ekintza zitekeenik, babesgabetasunean zegoen pertsona baten ondorioa baino.

—Ez dakizue zer egiten ari zareten! —Garrasika ekin zuen gizonak, eskuekin, urruntzeko keinua, biziki erakusten ziela.

Bixentek mugimendu azkarrez lurrera bota, eta belauna haren lepoaren kontra jarri zion.

—Zer esan nahi duzu? —Galdetu zion, arnasa bizkortuta.

—Ez zinateke hemen egon beharko. Berak badaki. Denok gaude arriskuan!

—Gizonak artekatuta arnasa sakon hartzen zuen heinean, soinekoetan esku batekin zerbait bilatzen hasi zen.

Luziak berehalakoan begiratu zion Bixenterri.

—Arma bat dauka! —Oihu egin zuen.

Bixente azkar mugitu zen, baina gizonak esku bat altxatu zuen. Ez zuen pistolarik. Izerdiz bustitako paper zati bat zuen.

Matias eta Iker autoaren arriskua neurtzen ari ziren. Erabakia ezin zuten gehiago atzeratu.

Orduan, barrukoak eskutitz bat luzatu zien.

Matias gutun-azal lodiari begira geratu zen. Gizonak oraindik ez zuen mugimendurik egin, ordea, haren hitzak buruan itsatsita geratu zitzaizkien.

—Hartu ezazue eta desagertu hemendik, azkar, —agindu eran bota zuen, ahotsa lasai eta sendo eusten zuela.

Ikerrek begirada jelatuaz behatu zuen Matias. Bederatzikoa alde batean zuela, Matias gutun-azala hartzeko astiro hurbildu zitzaion.

Berehala ireki zuen. Barruan hainbat dokumentu zeuden. Hala ere, bat zen behingoan nabarmendu zitzaiona: Argazki bat zen, Matias, Bixente, eta Luziaren irudiekin.

Azpian izen batzuk izkiriatura zeuden, alabaina, bat bereziki agerikoa zen, letra larriz islatzen zena: LUZIAREN NEBA.

Matiasen arnasa moteldu egin zen, eta Ikerrek azkar hartu zuen beste dokumentu bat; hainbat fitxategi zeuden, zeinetan informazio konfidentziala zirudiena zegoen.

—Nondik atera duzu hau? —Galdetu zion Ikerrek, tentsioz beteriko ahotsaz.

Gizonak aurpegia argitara ekarri zuen. Haren begitartean, nekearen, eta porrotaren arrastoa soilik ikus zitekeen. Halako batean zera esan zuen:

—Ez nauzue ikusi. Ez dakizue nor naizen. Eta hobe izango zenukete, inguru hau ahaztuko bazenute, —begirada hitsaz esan zien.

—Zertarako eman diguzu, orduan? —Galdetu zion Matiasek, oraindik agiriak begiratzen zituela.

—Ez da zuengatik. Baina, berak jakingo balu zuen eskuetan daudela, ez zenukete atsedetik izango.

Matiasak agiriak tolestu, eta azkar sartu zituen patrikan. Ezin ziren gehiago luzatu.

Orduan, Bixente eta Luzia gizonaren aurrean zeuden, oraindik ere, lurrean belaunikatuta, eta arnasa bizkorra ezin bareturik zutela. Gizona bere burua altxatzen saiatzen bazen ere, Bixentek ez zuen belauna askatzen.

—Zer dakizu? —Galdetu zion.

Gizonak ez zuen berehala hitz egin, ordea, azkenean esaldi bat jaurti zuen, ezpainetatik ia irristatzen bezala:

—Ez duzue ulertzen. Hau ez da zuen borroka.

—Zer esan nahi duzu? —Luziak pistola jaitsi gabe.

—Berak badaki hemen zaudetela. Eta zure nebari buruzko egia ere bai. Oraindik ez da berandu. Oraindik baduzue aukerarik...

—Zein aukera? —Galdetu zion Bixentek, hitzetan pazientzia galtzen hasita zuela antzematen zitzaiola.

Gizonak, beste behin, arnasa sakon hartu, eta, burua astindu ondoren, bi hitz garbi ahoskatu zituen:

—Ihes egitea.

Isiltasuna egin zen gelan, bat batean airea sendo utziz. Luziak muturra zurrunduta zuen, eta Bixente arnasa hartzen hasi zen, hauspoa hozteko eran; hainbeste denbora tristeziaren eraginpean izanda, birikak erasanda zituen.

Bada, Matias eta Iker eskaileretatik igo ziren. Matiasak eskuan gutun-azaleko paper orriak estutzen zituen.

—Agiri hauetan gure irudiak daude, —esan zuen, ozen eta irmo—. Luziaren nebaren izena ere idatzita azaltzen da.

Luzia gelditu egin zen. Gizonari benazko begirada bota zion, itxuraz bere barnean borroka emozionala bizitzen ari balitz bezala.

—Berak nahi du zuek alde egitea, —esan zuen lurrean zegoen ezezagunak ahots apalez.

Matias begirada ozenaz hurbildu zen gizonarengana, bertan berari so eginez lotu zela.

—Baina guk egia jakitea nahi dugu. Esan behar diguzu nor ari den gure bila? Eta zergatik? —Galdetu zion, azkenean.

Gizonak azkar erantzun zuen, ordea, une hartan, kanpotik oinkada batzuk entzun ziren.

—Denok isilik! —Agindu zien lkerrek, berriz ere, burdina eskuan zuela.

Lekoretik, urrats motel eta neurtuez, norbait mugitzen zela aditu zen. Matiasek arnasa sakon hartu zuen; zalantzarria zen jakitea, zaila gogoratzea, alegia, egunean zehar zenbat aldiz egiten zuen kontu bera. Dokumentuak patrikan gorde, eta eskuekin seinale bat egin zuen. Ez zekiten nor zetorren, ordea, argi zegoen biltegian ez zeudela seguru.

Bat-batean, kanpoan auto baten atea kolpez itxi zen, eta jarraian motor baten hotsa entzun zen urruntzen zela.

Matiasek erabakia hartu zuen.

—Hemendik joan behar dugu. Informazio hau ez da segurua hemen edukitzea. Luziaren nebaren aztarnak argitu behar ditugu, eta biltegi honetan ezin ditugu aztertu.

Gizonari begiratu ondoren, Bixentek ez zion ezer gehiago esan. Ziur aski, tipoak nahiago zuen bizirik geratzea.

Iluntasunean desagertu ziren, jakinda zerbait handiaren barruan zeudela, eta, dagoeneko, ezin zutela atzera egin.

X

Hirira bueltan, auto barruan, isiltasuna nagusitu zen, beste hainbatetan legez. Matias, Luzia, Bixente, eta, oraindik, eurentzat erdi ezezaguna zen Iker izenekoa, elkarrekin zihoazen. Oso denbora murrizketik, ezagutzen zutenaren ezjakintasunean murgilduta, bakoitza bere pentsamenduetan galduta ziharduen. Kanpoan, gau ilun eta hezeak urgatzita, farolen argiek asfalto bustia bistara ekartzen zuten. Kotxearen motorrak leunki burrunbatzen zuen, eta, halako batean, Bixentek keinua egin zion Matiasi, egoera hura oso konplikatu zirudiela adierazteko.

Erabat galdua zuen begiradaz, Luziak leihotik kanpora behatzen zuen. Ikerrek, berriz, eskuak gurutzatuta zeramatzan, aurpegieran keinu serio eta zuhurra islatzen zitziola. Hura eurekin egoteak airean zerbait trinkoa eta iluna sortzen zuen, eta Matias konturatzen hasia zen, pertsona hark esaten zuena baino gehiago zekiela.

Bixente bideari begirada kendu gabe zihoan. Matias, ordea, agiriak aztertzen hasi zen berriro. Paper artean, nabarmentzen zen deitura berriro irakurri zuen: Jon Etxegarai, Luziaren nebaren izena. Eskuak estutu zituen. Izena ezaguna egiten zitzaion, alabaina, guztiaren zentzua aurkitu nahian zebilen, eta, oraindik, ez zion Luziari ezer galdetzea nahi.

—Ez zenuten biltegia hain azkar utzi behar... —Bat-batean, ahots xehe eta baratzez, Ikerrek baietsi zuen. Bixentek ispilutik, eta, Matiasek aurpegia bueltatuz, haren aldera begiratu zuten berehala—. Han norbait zegoen zuon zain. —Jarraitu zuen esaten.

Luziak azkar biratu zuen burua ezkerrera, mesfidantza keinua aurpegian marraztuta agerian uzten zuela.

—Zergatik diozu hori? —Zoli galdetu zion Matiasek.

Ikerrek, ohikoa zuen bezala, ez zuen berehala erantzun. Orduan, Matiasek bere eserlekua atzerantz bota zuen, hura hobeto ikusteko asmotan, Bixenteren atzean eserita baitzihoan.

—Ez diot dena ulertzen dudala, —Eskuak astiro igurtziz esan zuen Ikerrek—. Baina mugimendu batzuk oso argiak dira. Jakin nahi duzu, zergatik aurkitu duzun zure erretratua dokumentu horietan, Matias? Edo nahiago duzu itxarotea, eta ezagutzen duzun norbait hurbiltzen zaizunean jakin?

Automobilaren barruan giroa are gehiago hoztu zen. Gauzak ez ziren espero bezala ateratzen. Biltegia utzi zutenean, pentsatu zuten arriskua atzean utzita zutela, hala ere, jada, argi zegoen, norbaitek euren pauso guztiak menderatzen zituela, eta, ez zen, eurek uste zuten bezala, telefonoaren kontua.

Luziak atze aldetik burua Matiasengana hurbildu zuen, haren belarrira ahots otzanez zera esateko:

—Zer egin behar dugu?

Erabaki bat hartu behar zuten eta azkar. Hirira iritsi baino lehen, jokaldi bat pentsatu behar zuten. “Norengan izan konfiantza? Zer bilatzen zuten? Eta, batez ere, zergatik sentitzen ziren, behin eta berriz, tranpa baten barruan?”

—Matias kiribilean sartu zen hausnarketari leihoa zabaldua.

Kaleetara sartzean, Bixentek autoaren abiadura moteldu egin zuen. Ingurua aztertzeko, Matias leihotik begira jarri zen. Ordu txikietan, euren bizi eremua hutsik egoten zen; halan izanda ere, gau hartan, beraiek bilatzen zuten lekurako bidea, beltz samarra eta deserosoa egiten ari zitzaien.

—Zure bulegora? —Galdetu zion Ikerrek, aurpegia atsekabetuta zuela.

—Bai. Han lasaiago egongo gara, —erantzun zion Matiasak.

Bixentek ez zuen ezer esan, baina albora begira jarrita, Matias keinua luzatu zion, argi adieraziz egoera hura ez zuela batere gustuko. Dokumentuak eskuetan zituzten, eta informazio hark arriskua zekarren; seguraski, horixe izango zen, galduta, eta zaurgarri sentitzen zirenen arrazoia.

Autoa lanlekutik hurbil utzi zuten, eta, bata besteari ezer esan gabe, inguruko kale hotzetara jaitsi ziren, non euren urratsek soinu baxua aireratzen zuten, handik bertara eraikin zahar baten atarira heldu ziren arte.

—Hemendik aurrera, bakoitzak bere burua zaindu beharko du, —esan zien Matiasak serio—. Gainera, eta hau agindua da, inor ez da bakarrik ibiliko.

Ikerrek irribarre arin batekin erantzun zion, ordea, bere begietan oraindik misterioen bat gordetzen zuela argi antzeman zitekeen.

Laukotea eskilaratik gora zihoan, eta, hirugarren solairuan ezkerrean, lehenengo sarbidean, Matiasak atea irekitzeko patrikeratik giltzak atera zituen. Bulegoko sarrera zeharkatu zuenean, mahaira eseri eta agiriak zabaldu zituen. Iker isilik geratu bazen ere, bazirudien jakingura zuela.

—Guzti hau, oraintxe bertan aztertu behar dugu, —agindu eran esan zien Matiasak irmo—. Orain ez dago atzera bueltarik.

Luzia bere mahaia ukitzera zutik, Bixente aurreko paretaren kontra zegoen sofa-ohetan jesarri zen, eta gonbidatu zuen Iker, bere ondoan beste hainbeste egitera. Matias hasi zen informazioa deskodetzeko unea zela esanez, eta hainbeste zalantzari erantzunak ematen hasi behar zutela. Dokumentuetako bat eskuetan hartu, eta arretaz aztertzen hasi zen. Orriaren bazterrean, hizki txikiz idatzitako ohar batzuk aurkitu zituen, kode moduko batekin idatziak

zeudenak. Paper batzuk hartu eta aditasunez begiratu ondoren, Bixentek burua astintzen zuela esan zuen:

—Kontu hau izugarria da. Hainbat fitxategitan, behin eta berriz, Luziaren nebaren izena agertzen da, baina, hemen, benetako testua ezkutatzeak kodea erabili dute.

Ikerrek paperak begiratu, sofa-ohearen bizkarrean egokitu, eta, eskuak gurutzatuta zituela, argibide bat zitekeena partekatu zien.

—Nik ezagutzen dut kode hori, eta, horrekin zeozer egitea nahi baduzue, nigan konfiantza izan behar duzue. Zergatik esaten dizuedan hori? Ba, seguraski, gustatuko ez zaizkizuen kontuak azalduko direlako.

Matiasek ez zion erantzun berehala. Bere eskuetan zegoen informazioak arrisku handia zekarren, hala ere, Ikerrek zekiena ezin zuten baztertu. Luzia urduri jarri zen eta Iker begiratu zuen.

—Zer esan nahi duzu?

—Kode hau irekiko dudala,—esan zuen irribarre arinarekin—. Baina zuok prest egon behar duzue agertzen dena onartzeko.

Beste behin, isilik geratu ziren. Bixentek begirada Matiasengana bueltatu zuen, hartu beharreko azken erabakia har zezan. Matiasek arnasa hartu, eta burua astindu zuen, esateko zuena besteak entzuteko moduan agindu aurretik.

—Ekin lanari.

Ikerrek paperak hartu, eta, Luziaren idazmahaiko ordenagailua aurrean zuela, eseri zen aulkian. Teklak azkar sakatzen hasi zen, eta pantailan karaktere batzuk agertu ziren. Fitxategi barruan, algoritmo zahar baten aztarnak ikus

zitezkeen, non dokumentuak estaliak eta blokeatuta zeuden. Ikerrek pantailan azkar idatzi zituen karaktereak, kodea deskodetzen saiatuz.

—Hau ez da kode arrunta, —murmurikatu zuen—. Oso antzinakoa da, dena dela ezagun egiten zait. Hemen egongo da, norbaitek nahita ezkutatu duen zerbait.

Bat-batean, pantailan lerro batzuk agertu ziren: Jon Etxegarai - Protokolo Beltza.

Luzia hurbildu eta pantailara begira geratu zen; instintiboki begiak oso zabalik jarri zitzaizkion.

—Protokolo Beltza? Zer da hori? —Galdetu zuen urduri.

Matiasek eskuak tolestu, eta begirada sarkorra bota zion Ikerri.

—Irekitzeko modurik baduzu, egin ezazu azkar, —agindu zion.

Ikerrek pantailara begiratu, eta sakon hartu zuen arnasa; bera ere animatuta zegoen arnasa era hartan hartzera; sinbiosi bitxia. Bixente isilik zegoen, nahiz eta haren aurpegieran, barneko larritasuna gero eta handiagoa zela islatzen zen.

Ikerrek tekla batzuk sakatu zituen, eta, bat-batean, pantailako testua aldatzen hasi zen. Fitxategiak ireki ziren, eta informazio zaharra bistaratzen hasi zen: izenak, datak, mugimenduak.

Orduan, Matias konturatu zen, guzti hura ez zela Luziaren nebaren inguruko ikerketa soil bat. Ez, beste zerbait zen. Norbaitek guzti hura ezkutatu nahi zuena, beraiek eskuratzen ari ziren.

Pantailaren erdian agertu zen esaldia ikusi zutenean, hamaikagarrenez gelan isiltasuna nagusitu zen.

"Helburua: desagerrarazi. Norabidea: kontrolpean. Operazioaren zuzendaria: Bixente Urbia de Legizamon (1973)."

Matiassek begiak zabal zabalik jarri zituen, eta bere bihotzak taupada bat galdu zuela sentitu zuen. Bere lagunaren izena zen, baina data bat gehituta. Ezin zen bera izan. Beste Bixente batek izan behar zuen.

Bixente tentsio-egoeran gorenera helduta zegoen, eta, Luziak ikusten zuena, ez zuen sinetsi nahi. Iker jarlekuan atzera bota zen, aurpegian irribarre hotz bat agerian zuela.

—Hori ez da posible... —xuxurlatu zuen Bixentek.

Baina pantailak ez zuen gezurrik esaten. Orain galdera bakarra geratzen zen: nor zen Bixente Urbia de Legizamon (1973), eta zein zen berarekin zuen lotura?

Une hartan, eta, bat-batean, Bixenteri burmuinean oroitzapen bat azaldu zitzaion. Haurra zenean, iluntzeetan entzuten zuen ahotsa zen, bere aitari hitz egiten ziona. Ahots sakona, irmoa. "Honek ezin du inoiz inoren eskuetara iritsi behar, Inazio. Betiko desagertu behar du." Eta orain, Bixente konturatzen ari zen... bere aitaren izena, Inazio Urbia de Legizamon zela.

Pantailan beste datu bat agertu zen: Inazio Urbia de Legizamon- Protokolo Beltza.

Instant batean, beste oroitzapen bat heldu zitzaion gogora. Txikitan behin aitari galdera bat egin ziola: "Zergatik ez dugu sekula aitona aipatzen?". Bere aitak ez zion erantzun, baina, bai, begirada ilundu zitzaion. Dagoeneko, Bixente konturatu zen: Aitonaren izena, sekula aipatzen ez zuten, Bixente Urbia de Legizamon zela.

Bixentek arnasa sakon hartu, eta taldekideei begiratu zien.

—Ez dizuet inoiz kontu honi buruz hitz egin... baina orain ez daukat beste aukerarik, —esan zuen ahots urratuaz—. Ez nekien nire aitak Protokolo Beltzarekin zerikusia zuen, baina orain badakit, gure familian beti izan dugula sekretu bat, eta nik ez dizuet gehiago ezkutatuko.

Matiassek besoak gurutzatu zituen, serio.

—Beraz, zer demontre da Protokolo Beltza? —galdetu zuen.

Ikerrek ordenagailuko pantailara begira jarraitzen zuen, teklak azkar sakatuz. Bat-batean, fitxategi zahar bat agertu zen. Titulua: "Ezkutuko egitasmoa - Protokolo Beltza- Estatuaren funtsezko dokumentua".

—Hauxe da guzti hau argitu dezakeen dokumentua, —esan zuen Ikerrek—. Matiassek bere hatzak masailezurrean jarri zituen. Orain, egia agerian jarriko zen.

"Protokolo Beltza: 1973ko operazio sekretua. Giza esperimentazio proiektua, eragin psikologiko eta genetikoetarako. Helburua: Disidentzia kontrolatzea, eta subjektu esperimentalak eraldatzea. Parte-hartzaileak: Inazio Urbia de Legizamon, Jon Etxegarai..."

Bat-batean, Luzia aulkitik zutitu zen.

—Jon Etxegarai... nire neba? —Galdetu zuen ahopeka, bere familia bakarraren gomutan orbitatzen hasten zela. Supituki beirazko begiak ipini zitzaizkion, nolabait bizipen intimoenak garuna estaltzera etorri izan balitzaizkio bezala.

Matiassek begirada jaitsi zuen. Gauzak uste baino okerrago zeuden.

Protokolo Beltza ez zen 1973an amaitu. Estatuaren estoldetan oraindik martxan zegoen.

XI

Itsumustuan Luzia zutitu zen. Eskuak dardarka zituen, ahoa erdi zabalduta, eta hitzak ez zitzaizkion ateratzen. Begirada pantailara jaurti zuen, ordea, benetan ez zirudien ezer ulertzen ari zenik; txokean bezala ikusten zitzaion.

Matiassek ziurtasunez eten zuen isilaldia.

—Zerbait egin behar dugu, —esan zien, kopeta ilun.

Bixentek begirada Luziarengan pausatu zuen. Matiassek arrazoia zuen, hala ere, orain ez zegoen argi, hurrengo pausoa zein izan beharko zen. Gauza bat bakarrik zuten begien bistan: Protokolo Beltza gelditu egin behar zutela.

Behin eta berriz, isildura joan eta etorri zebilkien; ordukoan etorri zetorkien garbairik gabe, damu-otoitza egiten denean bezala. Airean, zerbait eten gabe zebilen, hitzekin osatu ezin zitekeen zer edo zer. Luziak artean zutik jarraitzen zuen, eta ematen zuen oraindik haren begiek ez zutela ezer fokuratzeko. Arnasa hartzen zuen, sakon, eta, jarraian, astiro-astiro botatzen zuen, bota ere, medikuak agintzen duenean bezala. Nolanahi ere, ez zuen hitzik ateratzen, agerikoa zen, kolpe latza pairatzen ari zela.

—Luzia... —Ahoskatu zuenean, Matiasen ahotsa hautsi egin zen. Ez zekien zer esan, ezta nondik hasi ere. Mahaiaren ertzean eseri, eskuak masailera eramanez, eta okotza igurzten hasi zen. Halako batean, burua astindu zuen, zorabio arrastoa-edo uxatu nahian.

—Honek ezin du benetakoa izan, —murmurikatu zuen, alabaina, inork ez zion ezer erantzun. Denek zekiten, agerikoa zen, dokumentu hura ez zela faltsua.

Iker musuestu eta kokotsirtena zen. Aunitz alditan bezala, ordukoan ere, isilik zegoen. Begiak pantailan itsatsita izan arren, ez zen ezer irakurtzen ari. Haren hatzak ez ziren teklatuaren gainean mugitzen. Pentsakor zegoen, eta, itxura batean, esku artean zuten kontu hartaz, bere aurpegierak besteek baino gehiago zekiela islatzen zuen.

—Honek guztiak zer esan nahi du? —Galdetu zuen azkenean Matiasek, aho lehorrez—. Hau esperimentu bat da, ezta? Estatuaren estoldetan gordetzen den zer bait, ezta?

Instant batean, Bixentek begiak itxi zituen. Ez zuen erantzunik. Haren burura informazioak zaparrada baten erara jausten ari ziren. Tupustean, beste oroitza bat berpiztu zitzaion: Bere aita etxeko irrati zaharra pizten, albiste bat jarraitu nahian: "Hau ez da guretzat, Bixente. Hau ez da sekula gure kontua izango."

Orduko sasoian, ez zen ezertaz jabetu, ordea, orain argi zeukan: Inazio Urbia de Legizamonek beti jakin izan zuela.

—Protokolo Beltza... ez zen inoiz itxi, —halako batean, ahotsa apal, esan zuen Bixentek—. Kontu hau ez da iraganeko zer bait. Hau orain ari da gertatzen. Eta Luziaren neba hor hainbaten dago, laguntza eske.

Hura entzuteak Luzia orbitatzetik bueltan ekarri zuen errealtatera. Jarraian, mahai gaineko paperak hartu, eta zakar astindu zituen.

—Hau ez da posible! —Oihukatu zuen, hausteko zorian zegoela—. Nire neba ez dago inongo esperimentu batean sartuta. Hau akats bat da! Ezin da egia izan!

—Luzia... —Bixentek esku bat jarri nahi izan zion besaurrean, ordea, idazkariak atzera egin zuen.

—Ez! Ez dut hori onartzen! Ez dut kontu hori sinesten! —Luzia urrundu egin zen, hormaren kontra jarri, eta, burua ezker-eskuin, batera eta bestera eramaten zuen, ezetz esateko—. Hau tranpa bat da! Ez dut sinesten!

Ikerrek segundo batzuez Luzia begiratu, eta, zerbait esateko gogoak zituela antzematen bazitzaion ere, mutu jarraitzea erabaki zuen.

—Zerbait egin behar dugu, —esan zuen berriz Bixentek, irmo—. Honek ezin du horrela geratu.

Matias mahaiairen ertzean eseri zen. Burua hutsik izan arren, bazekien zerbait egin behar zutela. Egoera ez zen erraza.

—Egin behar dugun lehenengo gauza, guzti hau egiaztatzea da, —esan zuen ahostun—. Jon Etxegarai non dagoen jakin behar dugu. Oraindik esku artean dugun gauza bakarra dokumentu hau da, eta ez dakigu nolako ziurtasuna duen.

—Baina nola egingo dugu hori? —galdetu zion Bixentek.

Ikerrek teklatuaren gainean hatzak pausatu zituen, azkenik hitz egiteko prest zegoela adieraziz.

—Badago bide bat, —agindu zuen, begirada Matiasengan finkatuz—. Hala ere, arriskutsua izango da, egon ziur.

Isiltasunak gela begietan hartu zuen, geldialdixoa egitera zetorrela aditzera ematen zuela. Matias pixka batean arnasa hartu barik geratu zen, eta luzetxo egon zen hitzak trenkatu gabe. Ikerrek esan nahi zuena azaldu aurretik, informazio gehiago behar zuten. Halako batean, gutxien espero zenean, hasi zen hitzak ateratzen.

—Dokumentu hau egia bada, gehiago ere egongo dira. Gainera, ziurtasunez esan daiteke, orain arteko pieza guztiak ez direla ondo lotzen. Ez dugu oraindikarren arriskuan jarri beharrik, —esan zuen fermuki, bere hitzetan sinetsiko balu bezala—. Lehenengo eta behin, guzti hau zinezkoa dela baieztatu behar dugu.

—Zer proposatzen duzu? —Itaundu zion Bixentek.

—Badago norbait galdetu diezaiokeguna. —Matiasen burmuinean izen bat azaldu zen—. Urte asko darama sistemaren barruan, eta informazio asko dauka. Elementu horri zeozer ateratzea baliteke zaila izatea, baina zer dagoen jakin badaki. Berarekin hitz egin beharko genuke.

—Nor da? —Galdetu zion Ikerrek, proposamenean interesa erakutsiz.

Matiasek segundo batzuk hartu zituen izena ahoskatzeko, nolabait, pentsatuz bezala, berarekin zeuden bere taldekoak eta bestea fidatzekoak ziren ala ez.

—Diego Carranza, —esan zuen azkenean—. Ez duzue ezagutzen, baina nik bai. Urte askotan, poliziaren barruan egon zen, eta estatuko barne operazioak ezagutzen ditu. Duela ez denbora gehiegi, erretiroa hartu du, hala ere, oraindik kontaktu onak izaten jarraituko du. Dudagabe nago, Protokolo Beltzari buruz hainbat kontu dakiela.

Luzia oraindino hormaren kontra zegoen, begirada latza erakusten zuela. Ez zen guztiz itzuli, ordea, bere baitan argi zekusan informazio gehiago batu behar zutela.

—Beraz, berarekin hitz egingo duzu? —Itaundu zion Bixentek.

—Bai. —Matiasek, bai hitza ebaki zuenean, begirada denei luzatu zien—. Eta espero dut, sinez diotsuet espero dudala, gu guztiontzat beranduegi ez izatea.

Matias bakarrik irten zen bulegotik. Bixentek eta Ikerrek agiriak aztertzeari ekin zioten; zerbait gehiagoren bila zebiltzan. Luziak ez bazuen barbarik egiten ere, haren aurpegieran zerbait aldatu zitzaiola antzeman zitekeen; ziurgabetasunaren eta gaitzerizko isilaren arteko nahasketan bilduta zelakoa ematen zuen.

Kalera iritsi orduko euria hasi zuen, iluntasuna hiri osoan zabaldua, eta farolen argiak ur-lainotan lausotzen ziren. Diego Carranzaren etxera bidean, Matiasen garunak ez zuen atsedetik hartu nahi: “Zein izango zen jasoko zuen erantzuna? Zer jakingo zuen? Eta, batez ere, Diego hitz egiteko prest egongo zen?” Guzti hori zebilkion kiribila egitera bezala.

Gogor jo zuen atea, behin baino gehiagotan. Barrutik, mugimendu bat sumatu zuen, leuna, norbait oso motel zebilena-edo. Luze iritsi zitzaizkion segundo batzuk igaro ondoren, itxaron beharra beti nekagarri, atea nola mantso irekitzen zen segitu zuen begiekin.

Diego Carranzak sarlekuaren beste aldetik begiak josi zizkion. Gizonak nekatua eta zaharkitua ematen zuen.

—Zu? —Itaundu zion ahots urratuaz—. Aspaldi ez zaitut ikusi, Matias. Zer arraio bilatzen zabiltza nire etxera etorteko?

Matias ez zen mugitu. Barrura begiratu zuen.

—Zure laguntza behar dut, Martxelo, —esan zion, benazko—. Protokolo Beltzari buruz jakin behar dut.

Diegok segundo batzuk eman zituen galderaren ihardespenak hausnartzen. Arnasa sakon hartu, eta leunki botatzerakoan aurpegiera samina jarri zitzaion.

—Sartu barrura, —agindu zion azkenean—. Hau ez da hor kanpoan hitz egiteko kontua. Sartu, sartu, —esan zion, berriz Diegok, atea guztiz zabalduz.

Sarlekutik aurrera egin ostean, Matiasek ingurua sakonago behatu zuen. Etxe zaharra zen, baina txukun eta apal hornitua. Parean, mahaiaren gainean, erretzeko pakete erdi hutsa, katilu bat eta paper zaharrak ikusten ziren.

—Ez dut aspaldian inor gonbidatu etxera, —bota zion Diegok, eseri bitartean—. Eta zu ez zara hona etorri beste barik, ezta? Zertara zatoz? Zer nahi duzu? —Galdetu zion berriz aurrenekoa ahaztua izan bazuen eran-edo—. Matias harritu egin zen, aurrean zuenak oroimenaren narriadura haztapena zuela konturatu zenean.

—Ezinbestekoa dut zure laguntza, —erantzun zion Matiasek. Ez zuen alferrikako bueltarik eman nahi. —Protokolo Beltza zer den jakin behar dut.

Diegori begirada galdua jarri zitzaion, pairatzen zuen eguneroko sufrimendua adierazten zuena-edo. Gero, burua apur bat biratu, eta irribarre txiki bat egin zion. Nekearen antza ere hartzen zitzaion.

—Badakit zerk ekarri zaituen hona, —esan zuen—. Baina galdera zera da: Dagoeneko guzti horri buruz zenbat dakizun.

Matiasek dokumentuen inguruko azalpen labur bat eman zion. Diego entzuten isilik zegoen, eta hatz erakuslearekin mahaiaren ertza kolpatzen zuen, etenik gabe.

Azkenik, zigarro bat atera eta piztu zuen. Kea gorantz bota aurretik zigarroari zupada luzea eman zion.

—Zuek sartu zareten ingurua, —esan zuen, ke artean hitz eginez—, ez da bertara bueltatzeko lekua; ez zenukete hara berriro joan beharko. Eta galdera horien erantzuna jakin nahi baduzu, ez naiz ni hori kontatu behar dizuna. Agian, erantzunak zuk zeuk aurkitu beharko zenituzke beste nonbait.

Matiassek ez zion Diegori isiltasunaren atzean ezkututzen utziko. Begirada lakatza zuzendu zion.

—Bada norbait gehiago? —Galdetu zion, zuzen.

Diegok ezezkoa egiteko burua mugitu zuen. Orduan, leihoaren ondotik zerbait mugitzen zela entzun zuten.

Matiasi bihotzaren taupadak bizkortu egin zitzaizkion. —Norbait kanpotik zelatatzen ari zaigu? —Galdetu zion, elementuari.

—Ez mugitu, —xuxurlatu zuen Diegok. Eskura zuen arma hartu, eta leiho aldera begiratu zuen—. Norbaitek jakin du hemen gaudela.

Matiassek eskuak mahaiaren gainean pausatu zituen, eta erantzun baten zain geratu zen. Diegok gerturatzeko keinua egin zion.

—Ez daukagu denbora asko, —baieztatu zuen—. Protokolo Beltza ez zen inoiz gelditu. Ez da soilik kontrol soziala, baizik eta esperimentuak egiteko tresna bat. Helburua beti izan da disidentzia kontrolatzea, baina belaunaldi honetan urrats bat gehiago eman dute.

—Zer esan nahi duzu? —Matiassek begirada bizia zuzendu zion.

—Orain ez dela soilik informazioa gordetzen. Jendea ari dira erabiltzen. Eta Bixenteren aitak guzti horretan parte hartu zuen. Baina ez berak bakarrik... Bixentek zurekin jarraitzen du lan egiten, ezta?

—Bai.

Bat-batean, kanpoko mugimendua hurbildu egin zen. Diegok arma eskuan altxatzen zuen heinean, Matiasi keinua egin zion.

—Etorri dira. Ez dugu beste aukerarik. Egon prest.

Leihotik beltzez jantzitako bi gizon mugitzen ikusi zituzten; buruan ere, bisera beltzak zeramatzaten. Haien mugimenduak azkarrak eta zehatzak ziren, ondo prestatuak izaten diren horiek ematen dituzten antzerakoak. Estatuko zerbitzu sekretuetakoak.

Matias eta Diego isildu egin ziren. Ingurua arretaz behatu zuten, erne zeuden, gertatzekoa zena aurreikusten bezala.

Lehenengo Diego mugitu zen. Klik bat entzun zen; bere armaren segurua kentzen ari zen. Begirada Matiasi zuzendu zion.

—Zer egingo dugu? —Galdetu zion Matiasek.

Diegok irribarre iluna erakutsi zion.

—Honek ez zuen guretzat izan beharko, Matias, baina hemen gaude.

Danbada entzun zen, azantz handirik egin ez zuena, lehorra, ez burrunbatsua. Gero beste hiru eta isildu ziren hotsak.

Matiasen besoko zauri arinak soinekoaren zuntzetatik odol tantak isurtzen zituen. Zoruan, Diego azken arnasketak botatzen ari zela zegoen, eta estatuko bi agenteen gorpuak, leiho hautsiaren barrualdera, odol-putzu irregularretan etzanda. Isiltasuna itzuli zen, ordea, ordukoan ez zen lasaitasunarena, heriotzaren itzala baino.

Belauniko jarrita, Matiasek Diego behatu zuen. Hark irribarre ahul batekin egin zion keinu, beti bezala, kontuak menpean zituela iradokiz. Matiasek bazekien itxura baino ez zela, azkenetan zegoela, alegia.

—Entzun, Matias... Ez daukagu denbora askorik. —Diegoren ahotsa apal entzuten zen, hitz bakoitza itzelezko borrokaren ondorioz ateratakoa izango bazen erara—. Manipulazioa ez da propaganda hutsa... ez da soilik kontrol soziala. Zerbait sakonagoa egiten ari dira.

Matiasek keinua egin zion jarraitzeko, odoljarioa saihesteko eskuarekin bularrean presioa egiten zion bitartean.

—Bixenteren aitak ez zuen inoiz berak zekien guztia esan, baina badakizu honeik gauzok... —Diego gelditu egin zen arnasa hartzeko—. Eragina burmuinean dute. Kimikaren bidez erreflexuak aldatzen dizkiote. Norbanakoen nortasuna moldatu, obedientzia bultzatu, horixe da egiten dabiltzana. Teknologia berria da, baina, oinarriak zaharrak dira. Horregatik Protokolo Beltza ez zen sekula itxi. Matias guzti hori gelditu egin behar duzu.

—Eta Bixenteren aitak...? —Galdetu zion, erantzunaren azkura usaintzen zuela.

Diegok irribarre ahul batekin ihardetsi zion.

—Oraindik ez zaudete prest egia jakiteko, —esan zuen, eta begiak astiro-astiro itxi zituen, azken hasperena botatzen zuen heinean.

Matiasek bere izenez deitu zion, ordea, ez zuen arraposturik jaso. Diego zoruan hilda zegoen, bere ondoan.

Odolez zipriztindutako eskuak Diegoren arropetan sikatu ostean, arnasa sakon hartu zuen; ia ahantzita zuen zelan egiten zen; behar zuen. Diegok emandako informazioa oso baliotsua zela estimatzen zuen, ordea, aldi berean, airean galdera gehiago zekartzan. Orain bazekien Protokolo Beltza ez zela soilik dossier sekretu bat; ezkutuko esperimentuak ziren, Estatuaren

boterea mantentzeko, eta haien interesen arabera jendea moldatzeko tresna bat.

“Berriz, manipulazio hura noraino iristen zen? Eta Luziaren neba zelan zegoen horren erdian?” —Deblauki, Matias kiribilean sartu zen, nahi gabe.

Zutitu zen, ez baitzuen astirik, denbora egiten ibiltzeko. Bi ezezagunen gorpuak bertan bera utzi, zorutik bederatzikoa jaso, eta Diegori azken begirada bota zion. Ez zituen hileta emozionalak maite. Kanpora irten behar zuen; ezinbestekoa zitzaion aire garbia arnastea.

XII

Gaua hotza eta hezea zen, ordea, Matiasek ez zuen hozberoaren zantzurik antzematen. Adrenalina oraindik odolean izanda, artegatasuna, arriskua, eta beldurra gainean, eta, jakina, guztiaren ondorioz, bihotza abiadura handiko trenaren antzera zebilkion. Pitean-pitean, besoko zauriak ziztada sarkorra bidaltzen zion, bazterren batean geratu eta mozkortzeko gogoak ezin asetzerik ipintzeraino, hala ere, ez zuen gelditzerik. Diegok esan zizkion hitzak oraindik buruan zebilzkion bueltaka, izan ere, gainetik ezin kendurik izaten den pisu astun baten eran, inolako etenik hartu ezinik jartzeraino. Manipulazioa ez zen bakarrik informazioa kontrolatzeko, gizakien burmuina moldatzen ari ziren, mendetasuna eragiteko.

Kanpoko argiek motel distiratzten zuten, eta kale hutsak basamortu baten parekoak ziruditen. Bulegora itzuli behar bazuen ere, ez zen seguru sentitzen, norbaitek jarraitzen zuelakoaren susmoa airean usaintzen zuelako. Bizi berri gertaerek argi azaltzen zuten, jada, ez zegoela inor seguru.

Une hartan, Bixenteren telefono deia jaso zuen.

—Non zaude? —Haren ahotsa serioa eta zurruna zen.

—Bidean nago, —erantzun zion Matiasek, ahotsa apur bat dardarti—. Diego hil egin dute.

Isiltasuna. Bestaldean, Bixentek arnasa sakon hartzen zuela antzeman zitekeen.

—Zu zelan zaude?

—Zuri arin bat besoan. Ondo nago.

—Zer jakin duzu? —galdetu zion.

Matiasen segundo batzuk hartu zituen, hitzak ordenatzeko.

—Gure aurrean daukaguna ez da soilik konspirazio bat, —esan zuen, geldo—. Estatua ez da informazioa kontrolatzen ari. Jendea moldatzen ari da. Manipulatzen. Burmuinak aldatzen dizkiote. Jendea bere borondatearen aurka programatzen ari dira.

Beste aldetik, Bixentek biraoa botatzen zuela entzun zen.

—Bulegora itzuli, —agindu zion—. Azkar. Zerbaitek ez dit inolako lasaitasunik ematen. Iker arraro dago, eta Luzia azkenengo ordutik gormutu ipini da.

Une hartan, entzun berriari Matiasen ez zion kasu lar egin. Bere eskuak oraindik odolez zikinduta zeuden, eta besoko zauriak min taupadak eragiten zizkion. Bulegora itzuli behar zuen eta ziztu bizian.

Itzaletan murgilduta, gauaren babesean, denborak urratsez urrats aurrera egiten zuen.

Halako batean, kale ertzeko ispilu batean, bere isla ikusi zuen... baina ez zen hori bakarrik. Atzetik, beraren mugimenduekin erabat egokituta, distantzia motzean itzal bat zetorkion.

Ez zuen zalantzarik izan. Ez zen halabeharra.

Matiasen eskuineko eskuarekin gerriko zorroan zeraman bederatzikoa oratu zuen. Jabetu zen oraindik taupadak azkarrago zihoazkiola. Tupustean, biratu egin bazen ere, bere atzetik zetorrena bizkor ezkutatu zen.

Ez zen tranpa soil bat. Norbait atzetik jarraika zuen, eta, bazekien ez zela ustekabea, kausalitatea baino.

Ez zion arnasari kasurik egin, eta ezkerreko eskuarekin telefonoa patrikeratik ateratzea lortu zuen. Mugimenduaren ondorioz, minaren ziztada sarkorra

besoan nozitu, eta, eztenkada geroz eta denbora murriztagoan heltzen hasi zitzaion, instinctiboki haginak estututa jartzeraino.

—Bixente... —xuxurlatu zion, hortzeria trabatuta geratu izan balitzaio eran, hitzak hortzen zirrikituetatik irristatzen zitzaizkiola—, segika datozkit. Ez nago bakarrik.

Beste aldean ez zuen ezer entzun, segundo batzuk behar izan zituen Bixenteren ahotsa irmo ihardesten aditzeko:

—Ez gelditu. Aurrera jarraitu eta hurrengo kale-ertzean egongo naiz. Ikusten banauzu ez egin mugimendu arrarorik; itzalera joan eta ni begiestean, lasai jarraitu aurrera. Nik neuk kargu hartuko dut.

Matiassek telefonoa itzali zuen, arnasaren pentsamendua garunetik ezabatuz. Urrunetik, urrats isilak entzuten jarraitzen zuen, ordea, ordukoan bazekien ez zegoela bakarrik. Beti bezala, Bixente bazetorren bera sorostera.

Atzetik zetorkion itzala ez zen gelditu, eta, orduan, bizkorrago zetorkion. Azken metro haietan, erabaki bat hartu behar zuen: Zuzenean aurre egin, edo Bixenterengana iristeko urratsa azkartu. Bi aukera zituen, alabaina, edozein hartuta ere, ematen zuen, gau hartan kontuak ez zirela ondo amaituko.

Hurrengo eraikinaren ertzera iritsi zenean, ez zuen atzera begiratu. Bixentek ezikusiarena eginez aurrera jarraitu zuen. Segundo bat geroago, iluntasunean klik hotsa aditu zuen. Atzetik zetorrenari Bixentek bere bederatzikoaren kainoia kokotean sartu zion.

—Orain hasi zaitez hitz egiten. —zakar agindu zion.

Matias gelditu eta bueltatu egin zen. Hurbileko atariari esker, argitasun apur bat zegoen. Ezezaguna zutik zegoen, aurpegia ilunari begira jarrita, zirkinik egin gabe.

—Nor zara eta zergatik jarraitzen nauzu? —Matiasek sumindurik.

Ezezagunak ez zuen ezer esan. Haren begiradan, beldurra baino gehiago, erabakitasuna antzematen zen.

Ondoko atariko argiek tipoaren aurpegiko izerdia nabarmentzen zuten. Alboan, burdina zorura begira zuela, Matias ez zegoen txantxetarako; ezezagunak irribarre txiki batez begiratzen zion.

—Hitz egin ezazu, bestela ez duzu hemendik irtetzerik. —Bixentek lehor mehatxatu zuen.

Tipoak ez zuen erantzun. Begiak estutu, eta, ahalik eta hoztasun handiena erakutsi nahian, besoak gurutzatu zituen. Begirada galdua zuen, ezerk arduratuko ez balio bezala, baina Bixente ez zegoen engainamenduetarako.

Burua makurtuz, Matiasek urrats bat egin zuen aurrera. —Ez daukagu denborarik galtzeko. Badakigu zerbait badakizula, eta, hemendik onik atera nahi baduzu, hobe duzu hitz egiten hastera.

Ezezagunak ahoa ireki zuen, berehalakoan berriro ixteko. Haren aurpegian keinu bat azaldu zen, seguraski zalantzazkoa zitekeena; pentsatzekoa zen baita, manipulaziorako prestaketa ere izan zitekeela.

Bixentek haren kokotean pistola apur bat gehiago sakatu zuen. —Ez jarri horrela, mutiko. Bizirik jarraitzea nahi baduzu, hasi zaitez hitz egiten.

Une batez, ezezagunak begiak itxi zituen, eta, gero, Matiasi zuzendu zitzaion. —Nire izena garrantzirik gabea da, baina, zuon arazoan erdigunean nago. Bai,

informazioa badaukat, bea zozoa ere ez naiz. Nik nola jakin dezaket hitz egin ostean ez nauzuela bertan hilko?

Matiasek gezurrezko irribarrea eskaini zion. —Ez duzu inolako bermerik, baina ez baduzu hitz egiten, izango duzun aukera bakarra zeure irudimenak eskaintzen dizuna baino ilunagoa izango da. Gainera hitza ematen dizut, eta nire hitza legea da.

Orduan, goitik behera isiltasun astuna erori zitzaien. Ezezagunak begirada jaitsi, eta eskuak apur bat estutu zituen. Matias hausnartzen hasi zen: “Zer pentsatzen ote dago? Erantzunetan gezurrak nahastuko ote ditu? Ala egia esango du? Edo agian, egi erdi bat, bidean traizio bat prestatzeko...”

—Ados, —azkenean, ahots apalez jarraitu zuen. —Baina nik ere baldintza batzuk dauzkat.

Bixenteri nahi gabeko barre txikia atera zitzaion, dibertigarria izan ez zen irria, alegia.

—Baldintzak? Zuk?

Matiasek buruarekin keinua egin zion Bixenteri lasaitzeko eskatuz. —Ondo da. Entzuten ari gara. Zeintzuk dira zure baldintzak?

Bere berbak arretaz neurtzen zituela, tipoa inolako artegasunik gabe hitz egiten hasi zen. —Lehenengo eta behin, segurtasunak nahi ditut. Guzti hau bukatzen denean, neure bizitzan ez dut zuon edo beste inoren mendekurik nahi. Bigarrenik, informazioa ez da doan: zerbait trukean nahi dut. Eta azkenik, nire hitzek ez dute baliorik, esaten dudana ez baduzue frogatzen. Zeuok ere frogak nahi dituzue, ezta?

Bixentek begirada oldarkorra bota zion, norbait pazientzia galtzen hasten denean jartzen duen horietakoa. —Hori dena ederki dago, baina zuk ez duzu

aukeratzeko eskubiderik. Informazioa eman edo hemen bertan seko geratuko zara.

Ezezagunak irribarre txiki bat egin zuen, tentagarria eta probokatzailea zena. —Ziur zaude? Agian, kontu honetatik bizirik ateratzeko, nire informazioa beharrezkoa izango duzu... —Bere hitzek kaleko giroa are gehiago hoztu zuten.

Matias eta Bixentek elkarri begiratu zioten. Erabakia ez zen erraza. Informazioa eskuratu behar zuten, ordea, elementua joko arriskutsua jartzen ari zen. Erabaki bat hartu behar zuten, eta azkar gainera.

Matiasek pauso bat aurrera egin zuen, ezezagunarengan begirada finkoa jarritz. —Ez daukazu aukerarik. Hitz egin edo guk gure bidea hartuko dugu. Ez dut gogo handirik denbora galtzen ibiltzeko.

Elementuak irribarre maltzur bat egin eta ondorengoa gaineratzeko apur bat makurtu zen. —Ondo da. Kontatuko dizuet... baina zeuon esku geratuko da informazioa zuzen ulertzea. Gizon bat bilatzen ari zarete, ezta? Da, ez dakizue zein gertu daukazuen.

Bixentek hortzak estutu zituen. —Ez ibili metaforekin. Izena. Orain.

Ezezagunak entzungor eginez behera begiratu zuen. —Bixente, Matias... zuen artean dago, eta ez zarete konturatu. Pentsatu ondo azkeneko hilabeteetan nork saldu zaituzten. Ezagutzen duzue, baina ez duzue espero.

Hirurak isildu egin ziren. Bixente ez zen berehala suspertu. Matiasen buruak klik egin zuen, hala ere, oraindik ez zuen dena ulertzen, oraindik tipoaren hitzak lauso zituen: “Nor ote? Nor zen hain gertu zegoena, eta traidorea zena?” Hausnarrean zebilen. Burua lanean jarrita zuen. Bixente ez zen

mugitu ere egin, begirada zolia ilunpera iltzatuta zuen. Azkenean, Matiasek ahots apal baina irmoaz isiltasuna eten zuen:

—Zehatzago hitz egin. Aipamen lausoekin ez dugu ezer lortzen.

Erronka aire batekin, ezezagunak sorbaldak altxatu zituen.

—Pentsatu nor izan den azken asteetan arazoak ekarri dizkizuena. Nor izan da beti lekuz kanpo, zerbait ezkututzen? Nor jarri zaizue bidean, nahiz eta lagunaren itxura izan?

Bixentek aurrerantz egin zuen, hotzikara bizkarretik behera astinduak emanek zihoakiola. Eskua poltsikoan sartu zuen; mugimendu hutsala izan zen ordea; ez zuen oraindik ezer atera.

—Ez daukagu pazientziarik erronketarako. Izena!

Elementuak ez zuen presarik izan, eta oraindik irribarre arina zuen ezpainetan jarrita.

—Ez da hain erraza. Izena ematen badizuet, uste duzu fidatuko zaretela? Edo ezagutzen duzuen norbait bada, onartuko duzue traidorea dela?

Matiasek ahoa estutu zuen. Galderak bueltaka zituen, burua azkartzen, alabaina, oraindik ez zegoen inor ziurtasunez egiaztatzeko moduan. Bixentek, berriz, gorputza tenkatu zuen, barnean zerbait hautsi izan balitzaio eran.

—Matias... —haren ahotsa apur bat beheratua zegoen, ohartze baten ertzean bezala—, egon zaitez unetxo bat.

Matiasek atzeraka egin zuen, burua bueltaka geldiezin izango bazuen bezala, eta begirada oraindik ezezagunarengan iltzatuta zuen.

— Zuk badakizu?

Bixentek ez zuen berehala erantzun. Gogoa bor-bor zuela zirudien, baina zerbaiten esperoan zegoen, baieztapen baten iguriki agian.

Ezezagunak burua apur bat okertu zuen, kentzea nekez egiten zitzaien irribarre sotila, berriz ere, ezpainetan jartzen zuela.

—Pentsatzen ari zareten hori... ez zarete bakarrik.

Eta orduan, ilunpean, urrats baten hotsa entzun zen. Norbait hurbiltzen ari zitzaien.

Urratsak gerturatu ahala, isiltasuna are itogarriagoa bihurtu zen. Une batez, Matias eta Bixente elkarri begira geratu ziren, hitzik esan gabe, hala ere, euren artean berba gabeko ulermen hotsa hazten ari zen.

Bixentek bizkarrezurra artez jartzen zuen bitartean eskuak estutu zituen. Ezezaguna ez zen mugitu ere egin, oraingoan irribarre ironikoa zuen ezpainetan zizelkatua.

—Hortxe duzue zuen erantzuna, —esan zuen lauso, norabide hartara burua pixka bat bueltatuz.

Argi ahulean itzal bat agertu zen. Pausoa ez zen bizkor etortzen den batena, hala ere, ez zen zalantzatia ere, guztiz kontrakoa, segurtasunez zetorren.

—Ez da posible, —xuxurlatu zuen, ahotsa hautsita ateratzen zitzaiola. Matiasek bere bihotzak beste kolpe bat galdu zuela sentitu zuen. Ikusten zuena ezin sinetsirik zegoen.

Bixentek ez zuen hitzik ahoskatu.

Heldu berriaren aurpegia agerian geratu zenean, Matiasi pentsamendu guztiak izoztu egin zitzaizkion.

Harrapatuta zuten ezezagunak beste behin burua bueltatu zuen, aurpegian oraingoan grinazko irribarrea margotuz.

—Harrigarria, ezta? Hain gertu, hain oharkabea... —Heldu berriak.

Matiasek urratsa atzera eman bazuen ere, ez zen izan beldurragatik, gogoeta labur eta bortitz baten ondorioz baizik. Bixentek, ordea, ez zuen mugimendurik egin. Haren begiak bi txingar ziruditen, bat-batean, zerbait argi gelditu izan balitzaio bezala.

—Zergatik? —Galdetu zion Bixentek, doinu lehor eta zuzen batez.

Orduan, traidoreak ez zuen presarik hartu hitz egiteko. Irribarrea apaldu egin zitzaion, eta aurpegia serioago jarri zuen.

—Zergatik? —Burua astinduz, galdera errepikatu zuen, ezin sinetsirik bezala—. Beti egiten duzue galdera bera. Beti espero duzue traizio bat egitea, arrazoi soil batekin justifikatzeko, ezta? Dirua, boterea, mendekua... batzuetan ez da hain erraza. Batzuetan, justu zuek zarete arrazoa.

Matiasen barnean zerbait lehertu zen. Gertakari guztiak, azken asteetako susmoak, kezkak, hutsuneak... denak bat egiten hasi ziren.

—Gure artean zinen... —Esan zion, hitzak ahoan zapore garratzarekin itsatsita sumatzen zituela.

—Eta oraindik nago. —Etoiak doinurik gabeko ahots xehez erantzun zion.

Tipoak irribarretxoarekin atzera egin eta erdi-zurrumurruz gaineratu zuen:

—Orain, zuen benetako arazoa hasten da.

Azpisugearen azken hitzek airea labana baten erara moztu zuten. Matias eta Bixente isilik geratu ziren, behinik behin, unetxo bat, euren aurrean zegoena prozesatzen saiatuz. Traidorea, hain gertu eduki zutena, hainbeste aldiz

fidagarri zirudiena, orain, argi eta garbi euren aurrean zegoen, begirada hotz eta patxadatsuarekin.

Bixente sutan jarrita zegoen, eta pausoa aurrerantz eman zuen.

—Ez duzu sinetsi nahi, ezta? —Elementuak irribarre apal bat agertu zuen—. Eta, hala ere, beti egon izan naiz hortxe, zuokin.

Matiasek hatzak estutu zituen, bi eskuak ukabil bihurtuz, eta, jakina zen, kanpotik horrela egonda, barne aldea irakiten izango zuela, eta berari ezinbestekoa zitzaion kanpora begira hotz agertzea. Burua birrintzen ari zitzaion, ordura arte igaro zituzten egoera guztietan traidore hark izan zituen arduretan pentsatuz: “Noraino egon zen isilpean sartuta? Noiz hasi zen dena? Zer nahi zuen benetan?”

—Ez dut astirik zure jokoetarako, —esan zion azkenean, bere ahotsa zorrotzago bihurtuz—. Zer nahi duzu?

Tipoak ez zuen berehala erantzun. Eta hitzak faltan zituela-edo, pauso bat aurrera eman zuen, haiengana nolabaiteko neurrira hurbilduz. Haren begiek distira iluna zuten, Yugoslabiako sefardien halako kanta zaharraren airea islatzen zutena-edo.

—Ez da hain garrantzitsua nik zer nahi dudan esatea... zuon hurrengo pausoa zein izango den jakitea baino; hori bai dela ardura handikoa.

Bixentek hortzak estutu zituen, eta, aldi berean, amorrua agertzeko begirada izaten dena jarri zitzaion. Haren eskuak ia ezkutatuta zeuden. Matias ohartu zen laguna prest zuela, edozein unetan erantzun oldarkorra emateko.

—Jokoak amaitu dira, —erasi zion Bixentek, eta jarraian deblauki gaineratu zuen; —Esango diguzu egin duzuna zergatik egin duzun, edo guk era latzagoan aterako dizugu egia; egin kontu.

Etoiak irribarrea galdu zuen orduan, eta aurpegian tentsio arina azaldu zitzaion.

—Badakizue... —azkenean hitz egin zuen, ahots apalago eta nolabaiteko zorroztasunaz—. Ez nauzue hain erraz geldiaraziko. Askoz urrunago joan beharko duzue.

Matiasek ez zituen haren berbak gehiago entzun nahi. Bixenteri begirada sarkorra bota zion, eta bien arteko hitzik gabeko adostasuna sortu zen. Kontu hura ez zen negoziazioa izango.

Orduantxe, bat-batean, tipoak mugimendu azkar bat egin zuen.

Bixentek ez zuen denborarik galdu. Instintiboki, alde batera jauzi egin, eta Matiasek ere bizkor erreakzionatu zuen, esku bat atzera eramanez.

Etoiak pausoa aurrerantz bota zuen, eta azkenik zuzen eta garbi hitz egin zuen:

—Ez nauzue geldituko, Matias, ezta zuk ere, Bixente. Orain, egia esan behar badizuet, ez dut ulertzen hainbeste denboran hain hurbil edukita zelan ez duzuen lehenago susmatu?

Bixente ez zen mugitu ere egin.

—Ez duzue ezer esango, ezta? Oraindik ez duzue guztiz onartu?

Matiasek begiak estutu zituen; barnean borroka itzela zuela islatzen zuen jeinua izan zen. Eta azkenean ezinbesteko erantzuna zena bota zuen:

—Tello Ortiz, zu izan behar, nor bestela? Tello Ortiz. Ez zegoen izen hoberik saltzaile izateko. Beti gertu, beti itzalean, beti informazio zuzena edukita... eta orain, egin duzuna azaleratzen zabilta.

Isiltasunak alde hartako hiri osoa blaitu zuen. Bixentek hatzak estutu zituen, eta begirada hotz batez so geratu zitzaion. Matiasen arnasa biziki sakondu zen.

Matiasek begirada baliatuz Bixente bilatu zuen. Bere baitan klik bat entzun zuen, baina oraindik ez zuen guztiz ulertzen zergatik.

Eta orduan, gizon makurra mugitu egin zen.

Matiasek ez zuen gehiago pentsatzeko denborarik izan. Berehala erreakzionatu behar zuen.

—Ezinezkoa da. Zu gurekin egon zara. Informazioa pasatu diguzu. Bidea erakutsi diguzu...

—Bide egokia agertu dizuet, —zuzendu zuen Tellok, gezurrezko irribarrea jartzen zitzaiola. —Zuok uste zenuten, zuon alde ari nintzela, eta, neurri batean, horrela izan da, neuri ezker aurkitu duzue bidea eta.

Bixentek ez zuen hitzik egin. Bere begirada finkoa zen, baina ez zen soilik haserreak sortutakoa. Zerbait gehiago zegoen.

—Azkeneko asteetan, hainbat galdera izan dira egin dizkizuedanak. Gogoratzen duzue? —Jarraitu zuen Tellok—. Nor non zegoen, nora joateko asmoa zenuten, zer susmo zenuten... Bixente, zuk zeuk esan zenidan azkeneko misioa arriskutsua izango zela. Hortik aurrera, nire lana erraza izan da.

Matiasek bere pentsamenduetan astinalditxoak sentitu zituen, pieza guztiak bat egiten hasi izan balitzaizkio bezala, azkeneko kokapenak, mezuak, galdetegi xumeak...

—Saldu gaituzu, —bota zuen azkenean.

—Hori da zuen arazoa, —Tellok burua makurtu zuen, eskuak poltsikoetan sartzen zituela—. Beti pentsatzen duzue jokoan alde bakarra dagoela. Nik ez dut inor saldu. Nik neure alde jokatu dut.

—Eta zein da zure alde hori? —Bixentek lehenengo aldiz hitz egin zuen; haren ahotsa harria baino gogorragoa zela entzun zen.

Tello ez zen mugitu. Segundo batez ez zuen hitzik egin. Azkenean, poliki-poliki, irribarrea agertu zitzaion.

—Zuek ezagutzen ez duzuen.

Eta bat-batean, eszena lehertu egin zen.

Matiasek ez zuen gehiago pentsatu. Gorputzak lehenago erreakzionatu zion. Tello Ortizi ezin zitzaion ihes egiten utzi behar.

Matiasen bihotzak erritmoa berehalakoan azkartu zuen. Tello Ortiz beti gertu izan zuten. Beti egoten zen beharrezkoa zen lekuetan, euren informazioak eskuratzen, noizbehinka galdera estrategikoak egiten, eta, beti bezala, itzalean.

“Baina zein puntutaraino? Noiz hasi zen traizioa? Hasieratik? Erdibidean?”
Matias berriro ere hausnarrean aritu zen, nolabait kiribilean jarrita bazegoen erara.

Bixentek arnasa sakon hartu, eta pitinka atera zuen. Begiak Tellori zuzen finkatu zizkion.

—Noiz erabaki zenuen gure kontra jokatzea?

Tellok irribarre apala eskaini zien, patxadaz, barrutik ez zegoela hain lasai sumatzen bazitzaion ere.

—Gure kontra? —Ahoskatutako bi hitzek iseka ñabardura zuten—. Bixente, Matias, ez naiz zuen kontra egon. Ni beti aritu izan naiz neure alde. Zuok, aldiz... zuok beti besteen alde borrokatzen duzue, nahiz eta, benetan ez duzuen jakin noren alde ibili zareten.

Matiasek ez zuen ezer esan, baina bere pentsamenduak azkar mugitzen zebiltzan.

—Ez zaitut ulertzen, —esan zuen azkenean—. Zertan ari zara?

Tellok burua makurtu zuen, ez menpekotasuna agertzeko, ez. Gero urrats bat eman zuen aurrera. Ez zegoen oldarkor, hala ere, haren keinuak moduren batean probokatzailerak ziren.

—Zuok beti pentsatu duzue jokoan bi alde daudela: Ona eta txarra, traizioa eta leialtasuna, zuok eta zuon aurkariak. Hala ere, egia da, jokoa ez dela horrela jokutzen. Jokoa aspaldi erabakita zegoen, eta zuok ez zineten ezta taulan mugitzeko fitxa bat ere.

Matiasen bekokia zimurtu zen.

—Zer esan nahi duzu?

Tellok irribarre txiki bat egin zuen; oraingoan ez zen zirikatzailea, apaltasuna islatzekoa ere ez, neutroa, agian.

—Pentsa ezazue... azkeneko hilabeteetan, nor izan den zuon informazio iturria? Nork bideratu zaituzte zuon benetako etsaiengana? Nork esan dizue une larrienetan non egon behar zenuten?

Bixentek ez zuen zirkinik ere egiten. Ez zuen erantzun, ordea, instintiboki bere eskuak atezatu egin zituen.

Matias, alabaina, hitzik gabe geratu zen, buruak klak egin bazion eran, eta zera bota zuen: —Tello bera izan zen.

—Ez... —Bixentek hitzak apal ateratzen zituela.

—Bai, —Tellok burua apur bat okertu zuen, gozatuz bezala—. Zuok pentsatzen zenuten informazioa eskuratzen ari zinetela. Baina beti izan da alderantziz: nik esaten nizuen zer jakin nahi nuen eta zuek informazio hori topatu, eta konturatu gabe guri ekartzen zeniguten.

Matias eta Bixente mutu geratu ziren.

—Nik ez dut gezurrik esan, —jarraitu zuen Ortizek, hotz—. Zeuok izan zarete zeuon buruari gezurra esaten ibili zaretenok. Zeuok, zeuon burua irabazle ikusteko beharra izan duzuelako. Baina benetako irabazlea... beti izan naiz neu.

Matiasek hortzak estutu zituen, begirada iluntzen zuen heinean.

—Ez zaude irabazten, Tello. Joko hau hemen amaitzen da.

Tellok begirada hilkorra bota zion Bixenteri.

—Ziur zaude?

Bixente mutu geratuta bazegoen ere, haren arnasa sakondu egin zen. Zerbait gertatzen ari zen haren barnean.

Eta bat-batean, tipoa mugitu egin zen.

Ez zen ihes egiteko. Ez zen babesteko. Egin zuena, eraso egiteko mugimendua izan zen.

Eskerrak Matias eta Bixente prest zeudela, bestela jada hilda egongo ziren.

Elementua ez zen itxaroten geratu.

Pauso azkar bat eman zuen albora, eta ezkerreko eskuarekin patrikeran gordeta zuen pizgailua Bixenteri aurpegira zuzenean bota zion. Erreakzioa eragiteko trikimailu zaharra, baina nahikoa bestea ezustean harrapatzeko. Senezko erreakzioa jarraituz, Bixentek burua alde batera eraman, eta segundo bateko ahalmena izatea nahikoa izan zuen bestearena ekiditeko.

Tiro bat entzun zen.

Matiasek lurrean amaitu zuen berak ere ez zekiela nola. Pistola bat. Tellok zer bait atera zuen, eta norbaiti zuzendu zion, baina nori?

Bixente biratu zen berehala, arma bilatzeko, baina Tello ez zegoen jada bere lekuan.

Ez zuen ihes egin. Brastakoa egin zuen. Hori izan zen gauzarik ulergaitzena. Ez zuen korrika egin. Ez zuen beldurrik.

Matias zutik jarri zen, eta, une hartan, bere lepoan gripearean antzerako hotzikara sentitu zuen.

—Berandu, Matias.

Tello Ortizen ahotsa gertuegi zeukan.

Matiasek bueltatzea nahi izan bazuen ere, arinago iritsi zitzaion buruko kolpea; burdinazko zerbaitekin etorria zitzaiola sumatu zuen. Zurrunbiloan erortzen ari zela sentitu zen, eta, ia aldi berean, bere belaunak lurrean zartatu ziren.

Bixentek berehalakoan egin zuen tiro. Zerbaitek klask egin zuen paretan; tamalez ez zuen helburua jo.

—Ez da hain erraza, lagun, —esan zion Tellok, mugimendu leuna egiten zuela.

Matias lurrian zegoen, arnasa hartzeko borrokan. Burua bor-bor sentitzen zuen, eta begiak lauso, aurrean lainobera sendoa izango bazuen erara, hala ere, oraindik ez zuen kordea galdu. Bixentek, berriz, bederatzikoa bi eskuakin hartu eta Telloren aurka zuzendu zuen.

—Gelditu! —Garrasi egin zion.

Tellok irribarre egin zuen. Ez zuen presarik. Ez zuen beldurrik, eta galdera erara zera zioen:

—Benetan uste duzu irabaziko nauzula?

Matias oraindik lurrian zegoen, baina, inor ohartu gabe, bere eskua motel-motel mugitzen hasi zen. Bixentek segundo erdia behar izan zuen prest jartzeko. Isiltasunak dena blaitu zuen. Zerbait erabakitzera zihoan. Matiasen eskuak gauzaren bat aurkitu zuen zoruan. Espaloiko baldosa soltea eskuetan hartu eta jaurti zion.

Tellok apenaz izan zuen denbora ezertarako. Hitz egiten jarraitu nahi zuen, hala ere, ez zuen inoiz hitza amaituko. Pairatu zuen kolpea bortitza izan zen. Ez zuen espero. Ez zuen zelan zetorkion ikusi. Ezin izan zuen saihestu.

Matias lurrian zegoen oraindik, baina bere eskuak bederatzikoa oratuta zuen eta, balarik gabe bazuen ere, zituen indar guztiekin eraso egin zion. Kulatarekin Telloren burua jo zuen, behin eta berriz.

Tipoaren kaskarra atzerantz joan zen, eta bizkarrezurra tenkatuta okertu zitzaion. Hots lehorra entzun zen, eta haren gorputza ezegonkortuta lurrera amildu zen.

Bost segundo lehenago makal egon bazen ere, orain Matias mugitzen ari zen. Piztuta bezala ikusten zitzaion.

Elementua saiatu zen zutitzen, ahalegina, ordea, hutsala gertatu zitzaion; haren oinak indarge zeuden, zabuka. Kolpeak oreka puskatu zion, eta, ondorioz, haren begiek kolore beltza soilik zekusaten.

Bixentek jada ez zuen zalantzarik. Bala bat. Etoiaren kopetatik sartu zen. Gizonak garrasi isil bat egin zuen, eta bere eskuak odol bila joan ziren, baina ez zuen astirik izan. Matias bere gainera bota zen, eta, gorputzaren pisua erabiliz, haren burua lurrean joarazi zuen behin eta berriz, birrindu arte. Odola lurrean barreiatu zen. Tipoak oraindik arnasa hartzen zuen, ordea, haren gorputza malgutu egin zen. Matiasek begiak Bixenteri zuzendu zizkion, eta biak mutu geratu ziren. Ez zen izan borroka garbia, instintiboa baino, basatia, hitz batean esateko.

—Bukatu al da?

—Ez. —Matiasek.

Bat-batean, etoiaren begiek azkeneko distira islatu zuten.

Bixentek hura ikusi bezain laster erreakzionatu zuen.

—Matias, atzera!

Baina berandu izan zitekeen. Tellok oraindik bere azkeneko karta jokatu nahi zuen.

Bixente berandu konturatu zen. Tipoak begietan zuen erlantzaz ez zen amore ematearena, zerbait jakitearena baino. Matias ez zen oraindik konturatu. Elementua ez zen mugitzen, ez zen saiatu eraso egiten, ez zen defendatzen, ordea, haren ezpagnetatik irribarre apal bat irristatu zitzaion.

Eta gero hitz egin zuen.

—Ez zarete iritsi...

Matiasen begiek ilundu egin ziren.

—Zer esan nahi duzu? —Matiasen ahotsa urratuta atera zen.

Tipoa apenas izan zen gai odolez zikinduta zuen eskua mugitzeko, eta irribarre goibelaz jarraitu zuen.

—Atzetik datorrena... ez duzue espero ere.

Matias zurrun geratu zen.

Tipoa begiak ixten hasi bazen ere, oraindik hitz egiteko indarra bildu zuen.

—Nik... ez zaituztet saldu.

—Ni... soilik bitartekoa izan naiz.

—Orain... maite duzuen galdu duzue.

Matiasen buruari buelta eman zion.

—Nortaz ari zara?

Tellok ez zuen erantzun berehala. Ahal izan zuen moduan arnasa hartu, eta guztiz ahulduta hitz egin zuen:

—Barruan izan duzue eta berea egin du.

Eta hitz haiekin, tipoak begiak itxi zituen azkeneko arnasa hartzeko. Ez zen zarata handirik izan. Ez zuen garrasirik egin. Ez zen tragedia heroiko bat izan.

Elementua hilik zegoen.

Hitzak faltan zituztela, Matias eta Bixente bulegora zuzendu ziren. Haren berbak airean geratu ziren, euren artean.

—Dagoeneko barruan daukazue.

Matiasen bihotzak behera egin zuen. “Nor? Zer? Benetan bukatu al da? Edo zerbaitek benetako infernua ekarriko digu orain?” Matiasek hausnartzeari eman zion bidea.

XIII

Atea zabaldu zuenean, Matiasek harrituta begiratu zituen zoruan behatzen ziren odol tanta sakabanatuak. Bixente izotz geratu zen, begiesten zuena ezin sinetsirik, eta egia edo bere buru nahasketaren emaitza izan zitekeelakoaren zalantzan jarri zen. Ez ziren tanta asko, soberakoa bestalde zerbait ez zebilela ondo usaintzeko, nahikoa artegatuta bazterrak miatzen hasteko.

Matias izan zen barneratu zen lehena, bederatzikoa gerrian eta eskuak aske.

—Luzia? Iker? —Itaundu zuen. Isiltasuna izan zen, jaso zuen erantzun bakarra.

Bixentek atea ixteko keinua egin zuen, baina, erdi ilunpean, zoruairen gainean Matiasen begiek zerbait aurkitu zuten.

—Hori ez da ona...

—Ez dago argirik. —Bixentek.

—Kanpotik sartzen dena baino ez. —Matiasek.

Eta, orduan, zarata bat entzun zen barruko gela bakarrean. Norbaitek mugimendu azkar bat egin zuen, ezkutatze ahaleaginean, edo guztiz kontrakoa, erasotzeko prestaketan. Matias eta Bixentek begirada erabili zuten elkar ulertzeko. Barruan norbait zegoen, eta bazirudien ez zela isilik egoten den horietakoa.

Pixkanaka-pixkanaka, pauso beldurtiak ematen zituela Matias aurrerantz joan zen. Atzetik, esku bat txamarratik aterata, Bixentek burdinaren kulata ferekatu zuen, edozein unetan ateratzeko gertu.

Mahaiaren gainean oraindik bero zegoen kafe apurra geratzen zen kikara batean.

—Ez da denbora asko hemen egon direla, —xuxurlatu zuen Bixentek.

Ordenagailua piztuta zegoen, baina pantaila blokeatuta zuen. Mahaiaren gainean paper batzuk sakabanatuta zeuden, eta orri haien artean zerbaitek mugitua izan zela ematen zuen, bere lekutik aterata bezala.

—Badirudi hemen norbaitek zerbait bilatu egin duela. —Esan zuen. Erdi itxita zegoen alboko gela bakarreko atetik aurrera begiratu zuen. Han, bazterrean, norbaiten beste mugimendu bat entzun zen. Bixentek ukabila gogortu zuen.

—Zure atzetik noa, —esan zion Matiasi ahots xehez.

Matias aurrerantz joan zen, bederatzikoa oraindik gerrian, baina eskuak edozein gauzatarako erne. Atea astiro-astiro bultzatu zuen.

Une hartan, higidura lasterraren hotsa aditu zen. Itzal bat izan zen. Norbaitek salto egin zuen.

Matias ez zen atzera egiteko gai izan. Itsumustuan, esku batzuk lepo inguruan bortizki itxi zitzaizkion. Tipoarengandik askatzeko asmotan ukabilkadak ematen zizkion, erruz altzarien kontra kolpatuz, eta, oreka galdua, gorputzak pisuaren pisuz kolpean zorura jausi ziren.

Ukabilkada baten zarata entzun ahala, Bixentek pistola altxatu zuen, alabaina, ez zuen oraindik tirorik egin.

—Nor zara? Gelditu! —Oihukatu zuen.

Matias lurrean borrokan ari zen, erasotzailea baztertzeko bere gorputzaren pisua erabiliz. Azkenean, haren aurpegia argitara irten zen.

—Iker! —Oihukatu zuen Bixentek, harriduraz.

Baina Iker ez zen gelditu. Begirada ilun eta basatia zuen, eta haren eskuetan aizto odoldua ikusten zen.

Matias instintiboki albo batera bota zen, eta labana bere besoaren gainetik zentimetro gutxira igaro zen. Bixentek pistola sendo eutsita zuen, hala ere, ezin izan zuen tiro egin, Matias ere arriskuan baitzegoen.

—Iker! Bea Iker, zertan zabilta? —Oihukatu zuen Bixentek berriro.

Baina Ikerren aurpegia erabat zegoen aldatuta. Ez zen bera. Zerbait gertatzen zitzaion.

Borrokaaren erdian, indarra egiteko belauna baliatuz, Matiasek Ikerrengandik aldentzea lortu zuen. Orduan, bere begien aurrean, lurrean etzanda zegoen zerbait ikusi zuen. Esku odoldua behatu zuen.

Arnasa indargetu zitzaion.

—Ez... ez da posible...

Bixentek Matiasen mugimenduaren norabidea jarraitu zuen, eta, bat-batean, argi beltza jausi zitzaion gainera.

Luzia lurrean zegoen; ez zen mugitzen. Haren gorputza odol-putzu batean sartuta ikusten zen, zauri sakona bularrean, begiak erdi itxita, ahoa apur bat irekita.

Matiasen arnasa hots garrasi mutu bihurtu zen. Ez... haren ahotsa hautsi egin zen. Bixentek burdina sendoago oratu zuen, ordea, ez zuen tirorik egin, burua lehertzeko zorian baitzeukan.

Iker, berriz, oraindik gorputza tenkatuta, labana eskuan zuela, zutik geratu zen, noraezean bezala, begirada galdua,itsu egongo bazen erara.

—Nik... ez... ez nuen... — murmurikatu zuen, hala ere, bere hitzak lausotzen joan ziren.

Orduan, bizkortu, eta, bat-batean, mugitzen hasi zen. Matias eta Bixente ez zeuden prest. Oraindik ez.

Bixentek ez zuen zalantza gehiagorik.

Tiro lehorra, burrunbatsua izan zen espazio txikiak ozendua entzun zuena.

Ikerren gorputza uzkurtzen joan zen, motel, eskutik labana erortzen zitzaiola, zorua ukitzean metalezko zaratatxoa idokiz. Etzanda geratu zen, arnasa nekez hartzen zuela.

Oraindik bihotza kolpeka, Matias berehala bere onera bueltatu zen, eta Bixenteri so egin zion. Haren eskuak bederatzikoa estutzen bazuen ere, begirada hutsik zuela zegoen, agortuta geratu izan balitz bezala.

Ikerren bihotzak oraindik taupadak ematen zituen; zerbait esan nahi zuen... Baina hitzak ez zitzaizkion ateratzen.

Azkenik, bere ezpainetatik esaldi xume bat jalgi zuen:

—Berandu heldu zarete.

Eta orduan, dena isildu zen.

XIV

Matias oraindinokarren lurrian zegoen. Arnasa hartzen saiatu arren, bularra estutzen zitzaiola sentitzen zuen, odol-putzuan, Luziaren gorpuaren ondoan, begirada hutsa, galdua, zerura begira. Bere idazkariaren heriotza azkarregi etorri zitzaion bizitzara, larregi.

Bixentek pistola sendoago oratu zuen. Ikerren gorpua geldi zegoen, bederen ez zuten arriskurik hartuko. Matiasek haren azken hitzak buruan kolpeka zituen: "Berandu heldu zarete." —Zer esan nahi zuen? Beranduegi zer egiteko? —Galdetu zion Bixenteri. Bixentek ez zion ezer erantzun, bera ere txokean baitzegoen.

Orduan, Matiasen begiek mahai gainean zerbait behatu zuten: mugikor bat. Pantaila distira arin batzuk egiten ari zen; bazirudien une hartantxe mezu bat sartzen zela. Trabatuta zuen pantailatik zerbait irakur zitekeen:

"Zuen bila doaz, irten hortik orain!"

Matias lurretik zutitu zen berehala. Bixenteri begiratu zion, eta biek aldi berean ulertu zuten ez zeudela bakarrik.

—Hartu mugikorra! —Agindu zion Matiasek, berak ere, mahaiaren beste aldean behatzen zuen bitartean, arrastoren bat bilatzeko-edo. Bixentek mugikorra jaso bazuen ere, pantailak trabatuta jarraitzen zuen; ezinbestekoa zen pasahitza erabilgarri jartzeko.

Kanpoan, eskilaratik gora, urratsak azkar zetoze entzuten zen. Ez ziren oinkadak soilik, mordoa zetorrela zirudien, edo behintzat hori ematen zuen, handik zetorren zaratotsa kontutan hartzen bazen. Bixentek berriro prestatu zuen bederatzikoa.

—Hau ez zait batere gustatzen. —Marmar egin zuen, bere baitako pentsamendua ahots gora batatakoa izango bazen eran.

Zituzten aukerak baloratzeko gogoz, Matias korridore aldera atera zen. Beheko sarreratik hasi berri ziren eskilaratik gora.

Bixente, azkar, goazen teilatura.

—Leihoa? —Xuxurlatu zuen Bixentek. Ordea, Matiasek ezezkoa egiteko burua batetik bestera astindu zuen, marakak abestietan mugitzen diren erara.

—Goazen, arin, erdu nire atzetik.

Atea giltzaz itxi ostean, eskilaratik gora, mugikorraren pantailak Bixenteren eskuetan beste behin distira arina egin zuen. Heldu berri zen azken mezua irakur zitekeen: *"Ez fidatu inorekin."*

“Nor zen haien kontra zebilena? Eta nor izan zitekeen mezuak bidaltzen zizkiena?” —Jakina egiten zitzaien, nola ez, mezuak lagundu gurean zirela. —Matias pentsakor.

Jada teilatuan, gauaren freskura aurpegian sentitu zutenean, arnasa hartu zuten sakon, eta, etenik egin gabe, itsatsita zeuden etxe batetik bestera igarotzen zebiltzan.

Behean larri zegoen kontua. Bulegoko atetik zetorkien kolpe hotsa gero eta ozenagoa zen. Kanpo aldean, kalean ere, bazen zalaparta. Orduantxe hautsi zuten bortizki lanlekurako ate nagusia.

—Azkar! —Bixentek Matias bultzatu egin zuen aurrera egiteko animatuz.

—Ezin dira urrun egon! Bila itzazue! Behetik entzuten zen etsaien burua zena aginduak ematen.

—Azkarrago! —Xuxurlatu zion Bixentek, arnasari eutsiz.

XV

Gaua ilun, haize lehorra eta kale hutsak. Teilatutik erdi zabalik zegoen lukanatik jaistea lortu zutenean, ibilian, erdi ezkutuan, erabat isilpean, Matias eta Bixente eraikin zahar baten atzeko aldean agertu ziren. Kalamastra itxurako ezkaratza zen, argirik bakoa, eta inguruan ez zen inolako mugimendurik entzuten. Bazirudien kanpoko munduak une batez arnasa hartzeko tarte eskaintzen ziela.

—Hemen ez gaituzte berehala aurkituko, —esan zion Bixentek, paretaren ondora bermatuz.

Matiasek isilik jarraitzen zuen. Oraindik, Luziaren gorpua begien aurrean zuen, eta, garunean, lkerren azken hitzak odolez idatzitako film baten moduan ikusten zituen: *"Berandu heldu zarete."* —Zer zen berandu? Zer ezin zuten egin? —Kaosean ikertzaile pribatua.

—Sartu gaitezen horra, —esan zion Bixentek, txirrina hautsita zuen ate zaharra hatzarekin seinalatuz.

Telefonoko linternaren argipean, eraikin abandonatu baten sarreratik barneratu ziren. Lehen solairuan, artxibo zaharrak, paper zaharkituak, hautsa, eta, argi pitinaren izpiak horman isla egiten zuen, isiltasunak arnasketa guztiak presiopean eusten zituen bitartean.

Bat-batean, apalategien artean zebiltzala, Matias bizitu egin zen.

—Begira... hemen, —esan zion, kutxa zahar baten gainean eriak jarriz. Giltzaz itxita, estua eta altzairuzko marra txiki batek haustura zahar bat erakusten zuen. Kolpe bakar bat soilik behar izan zuten irekitzeko.

Barruan, agiri sorta bat: lizenburu arraroak, datarik gabeko txostenak, eta batez ere, paper zuri baten goialdean, ondorengo zegoen idatzita:

[SAILKAPEN KANPOKO DOKUMENTUA – 3. MAILAKO BAIMENAREKIN]

Bixente mugimendurik gabe geratu zen. Matiasek ahapeka irakurri zuen:

PROTOKOLO BELTZA

Estatuaren segurtasunerako muturreko egoeretarako aurreikusitako operatibo berezia.

Helburua: beharrezko neurriak erabilita, informazioaren hedapena geldiaraztea, eta segurtasun-arriskua indargabetzea.

Bizkortzea: Soilik kode bidez. Ez da beharrezkoa parte hartzaileei xehetasunik ematea.

Neurriak:

- Komunikazio kanal guztiak itxi.
- Ezagutza arriskutsuen igorpena eten.
- Helburuak ezagutu eta kanporatu (leungarria)
- Leiala ez den oro, mehatxu gisa hartu.

Oharra: Protokoloa eraginkor dagoen bitartean, beste egitura guztiak azpiratuak geldituko dira.

Hitz bakoitzaren oihartzuna isiltasun bilakatu zen.

—Zer da hori? —Paperaren ertzak ukitzen zituela, Bixentek itaundu zion.

—Agindua. —Begiak agirian iltzatuta, Matiasek erantzun zion—. Norbaitek hau abian jarri du, eta guk ez dakigu nork egin duen, ezta zergatik ere.

Bixentek burua makurtu, eta bien egoera hitz gutxitan laburtu zuen:
—Orduan, haien begietatik behatuta... gu euren helburu gara, ezta?

Matiassek paperari buelta eman zion. Atzealdean zifratutako kode bat zegoen, 12 karaktereko sekuentzia zena. Ez zuen zentzurik, ordea, kodea zen, eta bazitekeen informazio gehiago lortzeko sarbidea izatea. Mugikorraren pantaila oroimenera etorri zitzaion: "*Ez fidatu inorekin.*"

—Hau piztu egin da, —esan zuen—. Eta bat pizten denean, beste batzuk itzaltzen hasten dira.

XVI

Asagotik, egunsentia zirrikitu bat bezain estu zetorrela ematen zuen, eta, oraindik, arpak trebeki maneiatuta, iluntasunak hiriko bazter guztiak sendo oratuta eusten zituen. Kaleak hutsik, errepidean zoli zebiltzan auto bakan batzuk, eta Matias eta Bixente horma artean gordetzen ziren itzalak bezain isil zebiltzan. Ez zioten elkarri hitz egiten. Ezin zuten. Oraindik ez.

Taberna ez zen urrun zegoen tokia, eta, gainera, ordu hartan, apenas igarotzen zen handik inor, jendeak jakin baitzekien egunari hasiera emateko prestaketak egiten zirela, eta, han, sarbidea itxita izaten zutela, gutxienez goizeko zortziak arte. Atea zaharra zen, beirazko egitura xumea, eta izenik gabeko toldo zaharkituak estaltzen zuen kanpoaldea. Behin barruan, argi goxo batek, eta kafe usain leunak hartu zituzten gonbidatuak izango baziren erara. Giro beroak ordu batzutako ihesa ikuzten zien, apurka-apurka.

Barraren barrura, garbitzen ari zen kopa bat eskuan zuela, tabernariak burua altxatu zuen. Izenez deitu zion ezagun leialari:

—Matias!

Matiasek burua makurtu zuen, eta, erantzun lez, irribarre triste bat atera zitzaion. Hots zurruna zuen ahotsak, ordea, arnasa leunagoa:

—Julen... Bai, gu gara.

Julenek ez zuen galderarik egin. Aspalditik piztuta zuen kafe-makina, kafesne bi prestatzen jarri zen. Gero, isiltasun labur bat egin zen, esanguratsua izan zena, bestalde. Ostatu hartan, beti izaten zen beldurra gordetzeko lekurik, ordea, ordukoan... beldurra bera zen ikusten ez zen hirugarren laguna.

—Kafesneaz gain zer nahi duzue? —Galdetu zion Julenek, ahots apalez.

—Gosaria eta atsedeen pixka bat ere bai. —Erantzun zion Bixentek.

Julenek burua makurtu, eta lanari ekin zion. Kafesnea prestatzen zuen bitartean, ez zuen galderarik egin, ez eta zergatik zeuden han, ezta nola agertu ziren halan, era hartan, are gutxiago ze asmo zuten. Bazekien bere leialtasunak zertan zetzan.

Eserita zeuden mahaian platerak jarri zituenean, poltsikotik giltza batzuk atera, eta aldamenean utzi zizkien.

—Nire autoa, atzealdean, etxearen ate nagusia ere zabalik duzue, eta ordenagailua gelan. A, eta... behar duzuen, badakizue.

Matiasen begiak jaso zituen, eta Juleni begietara so egin zion.

—Zergatik? —Galdetu zion isilik, baina ozen.

Julenek irribarre apal batekin erantzun zion:

—Zuok halaxe egingo zenuten nikitik, ezta?

Une batez, berriz, isiltasun hura izan zen babes bakarra. Kanean eguna argitzen hasia zen, hala ere, barruan, oraindik zerbait ilunagoa pizten ari zen.

Gosaria isilik amaitu zuten, kafe beroaren azken tantak oraindik edalontzietan. Ez zen izan otordu lasaigarria, baina Matiasen sabelean arnasa hartzeko moduko beroa zabaldu zen. Barran, Julenek xalo garbitzen zuen, betiko keinuarekin, alabaina, begiak ohizko egunetan izaten zituen baino askoz erneago zituen.

—Zerbait arraroa sumatu duzu azken egunotan? —Galdetu zion Matiasen, lasaitasun faltsu batean bilduta.

Julenek burua apur bat makurtu zuen, eta xuxurlaz erantzun zion:

—Bai, asteartean bi gizon sartu ziren galdezka. Ez bazuten izenik eman ere, zuk galdetuko zenidan moduan galdetu zidaten: —*Matias? Badakizu non dagoen?* Eta atzo, gauez, auto bat gelditu zen hemen parean. Ez zen inor jaitsi, baina leiho erdi irekitik, zera esaten zutela entzun nien: "*Ez da asko falta.*"

Isiltasun gogaikarriak inguratu zuen eszena. Bixente zutitu egin zen, eta poltsikotik Julenek emandako giltzak atera zituen.

—Ez dugu astirik, —esan zion Bixentek—, oraintxe bertan hasi behar dugu mugitzen.

Matiasek burua makurtu zuen. Besterik partekatu gabe, goiko solairura igo ziren. Julenek utzitako logela altzari gutxirekin, nahiko handia eta eroso zen. Mahaiaren gainean ordenagailu eramangarria, piztuta eta internetera konektatuta zegoen. Bixente leihoan zaintzan jartzen zen bitartean, Matias eseri egin zen.

Ikertzaileak patrikeratik "Protokolo Beltza" agiria atera zuen, atzealdean kode bat zuena: *Q13-MVBX-7N29*. Tremoloa jarraituz teklatuan sakatu zuen.

Bat-batean, pantaila beltza zuri bihurtu zen, honako mezua agertzen zuela:

IDENTIFIKAZIOA ONARTUA

ZURE FUNTZIOA: PASIBOA

ERAGINDAKO PROTOKOLOA: BELTZA

ARAZO-FOKUA: [EZKUTUKOA]

ZURE NAGUSIA: EZEZAGUNA

BERRIKUSPENNA: ZAIN

OHARRA: ZURE PARTE-HARTZEA ERREGISTRATUA GERATU DA.

Matias sek atzera egin zuen hausnarka: "Pasiboa? Nagusia ezezaguna? Eta zer esan nahi zuen berrikuspena hitzak? Nor ari zen haien mugimenduak kontrolatzen?"

Une hartan, mugikorraren pantailak dirdira egin zuen. Norbaitek mezu berri bat helarazten zien:

"Ez zenuten kodea sartu behar. Orain aurkituko zaituzte."

Matias eta Bixente elkarri begira geratu ziren. Ez ziren soilik ihesean zeuden bi gizon. Orain, jada parte ziren. Jokoaren barruan zeuden; izan ere, ulertzen ez zuten joko baten barnean.

—Berebila hartu eta alde egin behar dugu, —esan zion Bixentek, leihoaz beste aldean, kalean auto beltz bat gelditzen zela begietsi zuenean.

Lagunari ihardetsi aurretik, Matias sek beste behin behatu zuen ordenagailuaren pantaila:

—Ez gara gehiago ezkutatuko. Orain guk joko dugu.

XVII

Auto barruko isiltasuna ez zen soilik motorraren soinu leunak hausten zuena. Tabernaren atzealdeko bide estutik irten aurretik, une labur batez, Matias eta Bixente elkarri begira lotu ziren. Karrikaren beste aldean zegoen farolaren azpitik, euren urratsak behatzen zituela Julenek agur isila bidali zien. Egin zuena azken aldia izango bazen eran egin zuela aditu zuten.

—Norengana joan gaitezke orain? —Galdetu zion Bixentek, hiriko erdigunetik urruntzen ari ziren bitartean.

Matiasi neuronak ordenagailuaren pantailan ikusi zuen mezura itzuli zitzaizkion: "*ZURE FUNTZIOA: PASIBOA*". Inork ez zien galdetu zer nahi zuten; beste norbaitek idatzi zuen haiek bete beharrekoa zutena, eta, orain, eginbehar hori eurek haustera zihoazen.

—Bada norbait, —esan zuen—, behin baino gehiagotan Luziak aipatu zuena; izen hori: Zelai da. Ez dakit zer zentzu duen, baina ez da hitz arrunta. Ez da pertsona bat. Ez da toki bat, halan eta guztiz ere, mezuetan errepikatzen zuen.

—Zelai... —Bixentek berresan zuen, eta auto-gidari gisa bazekien izenek batzuetan bidea erakusten dutela—. Luziaren paperen artean, bulegoko armairuetan... bazegoen artxibo bat Zelai Sareak izenekoa. Orain bururatu zait. Orduan ez genion garrantzirik eman, baina...

—Orain bai, —eten zion Matiasek, tabletan aurkitu zuena partekatzeko—. Gure Errioxako herri batean zegoen erroldatutako enpresa txiki bat, aspalditik desegina dagoena. "Sare pribatua eta teknologia kooperatiboak" arloko enpresa zen. Izenpean: *Zelai Sareak SL*. Helbidea oraindik aktibo badago ere, ez du jabetza berririk.

—Luziaren pistak dira, —esan zuen Matiasek—. Badakit. Hor zerbait badago. Ezin da kasualitatea izan.

Autoa errepidean aurrera zihoan, eta, euren atzean, bazter ilunak irekita gelditzen ziren. Ez zuten musikarik jarri. Ez zuten hitz askorik egin. Bidean, leku hartan zer aurki zezaketen pentsatzen ari ziren: “Fitxategiak? Argazki zaharrak? Beste kode bat? Edo, agian, norbait”.

Herrira iritsi zirenerako, eguna goibela zen. Zelai Sareak izeneko eraikina aurkitu zuten: metalezko ate grisa, fatxada horixka eta leiho guztiek estalita.

Ez zegoen seinalerik, ez eta jarduera zantzurik. Ordea, atzealdean sarbide bat topatu zuten. Herdoildua bazegoen ere, itxuraz giltzaz zabaltzeko moduan zegoela zekusaten. Bixentek arin ireki zuen.

Barruan hiru gela. Lehenean: Piztuko zenaren itxurarik ez zuen hautsak estalitako ordenagailu zahar bat. Bigarrenean: artxiboak eta paperak. Hirugarrenean: mahaia eta gainean kutxa bat. Eta kutxaren gainean

"Bixente U."

—Ez da posible, —esan zuen Bixentek—. Nola liteke?

Matiasek kutxa ireki zuen hatzekin zurrin. Barruan, paper gutxi batzuk, zinta magnetiko bat, eta argazki bat: Bixente, baina ez bera bakarrik. Argazkian ageri zen... Luzia, eta euren bien artean, emakume bat. Ez zen ezaguna, baina euren ondoan zegoen, irribarretsu, eta argazkiaren atzean data bat zegoen: "2017/10/08".

Matiasek esku artean argazkia irauli zuen, eta beste esaldi bat aurkitu zuen idatzita:

"Protokoloa hausten bada, bilatu Ariadna."

Bixentek so egin zion. Ez zuen ezer esan. Ez zuen behar.

Matias eserleku batean jarri zen. Kutzako zinta hartu eta poltsan gorde zuen. Argazkia eskuan denbora luzez mantendu zuen. Orduan helburu bat zuten: Ariadna.

Eta zerbait gehiago ulertzen hasiak ziren: Protokoloa bera ez zen helburua. Jada, aspaldi hasitako joko batean euren inguru guztia nahaspilatuta zegoen.

—Badugu zer egin, —esan zion Matiasek, isil-isilik.

Bixentek baietz egin zuen, burua gora-behera astinduz.

Eta orduan, kalean, handik ez hain urrun, etorri berria zen autoa gelditu zen. Leiho erdi irekitik ahots bat entzun zen:

—Jada, hasi da berriro.

XVIII

Goiz hartan, hirian mendebaldeko haize zakarra zebilen, eta, supituki, Matiasen aurpegia hotz heze sarkorrak jo zuen. Tabernako atzealdeko patioan eserita zeuden, Julenek utzitako ordenagailua mahaian, aire librean, gero eta gehiago susmatzen baitzuten barruan egotea ez zela beti seguruena.

Bixente zutik zegoen, ingurua zelatatzen. Matias pantailaren aurrean eserita, “Protokolo Beltza” dokumentuaren kodea, argazkia eta kutxako materiala esku artean zituela.

Pantailan, bilatzailearen barra hutsik ageri zen. Matiasen hatzek teklatuan geldiune bat egin zuten eta, minutu baten ondoren, idatzi zuen:

ARIADNA

“protokoloa”

“2017”

“Zelai Sareak”

Emaiza gutxi. Ia ezer ez. Baina lerro bat deigarri egin zitzaion:

“Memoria estrategikoa eta isiltasunaren mekanika”

Artikulua: Jon Etxegarai

Argitaratua: 2018/02/12

Plataforman: *Itzalpeko Egunkaria*

Kategoria: iritzia / hausnarketa

—Jon Etxegarai? —Matiasen izena ahapeka irakurri zuen.

—Berririo agertzen da? —Galdetu zion Bixentek, lagunarengana gerturatuz.

Matiasak zerabilen saguak klik egin zuen izenburuan, eta pantailan testuaren lehen esaldiak agertu ziren. Ez zen artikulua arrunta: Idazkera poetikoa zuen, iluna, erran nahi ugariak. Baina esaldi batzuek barruraino joaten ziren:

“Badira protokolo batzuk, ez militar eta ez zibil, ez ofizial eta ez sekretu izanik, isiltasunean existitzen direnak.

Haien baitan jokatzeko dutenak ez dute jakiten zer egoten den jokoa, ezta nor piztu duen hasierako metxa.

Eta memoria, tresna baino gehiago, zigorra bilakatzen da.”

Matiasen bihotza bizkortu zen taupadaka hasteraino. Artikulua bukaeran, ohar bat:

"Galderei aurre egiteko, bidali zure mezua 'zelai@itzalpekoa.net' helbidera."

—Luziarekin zerikusia izan dezake? —Bixentek itaundu zion.

Matiasak burua astindu zuen ezetz esatera bezala, ordea, ahots xehez erantzun zion:

—Luzia bere arreba izanik, nik uste erabat egon dela konektatuta.

Bixentek begirada iltzatu zion.

—Ziur zaude?

—Bai. Hala usaintzen dut. Eta gainera, artikulua honetan "memoriari" buruzko pasarteak... nik idatziko nituzkeen bezala idazten ditu, eta, berak hori badaki. Eta Ariadna... Ariadna euren artean egon da. Beharbada Luziarekin, edo baliteke haren ondarea izatea. Hala ere, hari guztiak batzen dabiltza. Zuk ez duzu Ariadna ezagutzen, ezta?

—Inondik ere ez.

Matias pantailari begira isilik geratu zen. "zelai@itzalpekoa.net" helbidea kopiatu zuen. Ez zuen bere helbide elektronikoa erabili nahi. Julenek utzitako ordenagailuan beste erabiltzaile bat sortu zuen, izenik gabekoa. Jarraian mezu bat idazten hasi zen:

Nori: zelai@itzalpekoa.net

Jon Etxegarai

Oraindik ez dakit zergatik, halan eta guztiz ere, zure izena, eta zure artikulua, puzzle baten barruan azaldu zaizkit. Ez dakit nor zaren, baina ematen dit zuk ezagutzen nauzula. Eta ni... ahaztua izan naiz.

Ariadna bilatzen ari gara. Eta zera galdetu nahi nizuke:

Zer da Protokolo Beltza zuretzat? Eta zergatik jarri zenuen zure artikulua bukaeran mezu bezala honako helbide hau?

Ez dugu denborarik. Gure atzetik dabilta.

B

Matias sek sartu sakatu zuen. Mezuak hegan egin zuen, eta, haizeak leiho ertzak astintzen zituen bitartean, barrualdea isilune sakonak menperatu zuen.

Ordu batzuk pasatu ziren. Arratsaldeko lehen orduetan, mugikorrak pantailaren bi ertzetan dirdira bizi bat egin zuen berriro. Ezin zen ohiko mezua izan. Emailea: zelai@itzalpekoa.net

Gaia: "Oraindik ez da berandu."

XIX

Eguzkia goitik bazebilen ere, tabernako logela hartan itzalek eusten zioten espazioari. Leiho-ohola erdi itxita zegoen, eta soilik ordenagailuaren pantailak ematen zuen argi apala baliatzen zuten ezer gutxi ikusteko. Matias eta Bixente isilik zeuden, mezua irakurri berri.

"Oraindik ez da berandu."

Horren azpian, erantsitako fitxategi bat zegoen:

"Ariadna_Izaguirre_Dossierra.pdf"

—Izena du. Ariadna Izagirre, —esan zuen Matiasek, fitxategia ireki aurretik arnasa sakon hartuz—. Ia Bixente, ikus dezagun zer datorren hemen, eta datorrena etor dadila, eutsiko diogu eta.

PDF-a irekitzean, lehen orrialdeak emakume baten argazkia erakusten zuen: *emakume argal bat zen, begirada zorrotza zuena, gaztetasuna eta neke zantzuak batera aurpegian agerian zituenak.*

Argazkiaren azpian:

"Identifikatua: Ariadna Izagirre Buztingorri"

"Segurtasun maila: 2"

"Lotura: Zelai Sareak – dokumentazio saila (2014-2016)"

Ondorengo orrialdeetan informazio zatituak agertzen ziren: txostenetatik ateratako orriak, azpimarratutako pasarteak, pasahitz zatiak, eta oharra:

"2016ko azaroan, Ariadna desagertu egin zen."

"Bere arrastoa Legution amaitzen da."

"Uste da protokoloaren barneko inplementazio-lerro bati uko egin ziola."

"Informazioa ez zuen saldu, ez eta isildu ere."

Bixentek irribarre garratz bat egin zuen.

—Norbaitek ihes egin zuen. Eta orain gu haren atzetik gabiltza.

Matiasak apur batez pantaila itxi, eta burua ahur artean hartu zuen. Haren aurpegian ez zegoen etsipenik, zerbait berria baino: Uste osoa, nolabait, esku artean zuenaz ziur egoteak ematen duena.

—Hau da bidea. Ariadna da gakoa. Eta Jon... Jonek lagundu nahi gaitu, baina ez daukagu denborarik luzatzen ibiltzeko.

Une hartan, beste behin ere, mugikorra dirdira egiten hasi zen. Zenbaki ezezaguna zen. Matiasi bihotza kolpeka hasi zitzaion. Pantailari begiratu eta erantzun zuen.

—Bai?

Ahots bat entzun zen beste aldean. Ez zen berehalakoa. Ez zen apala, ez eta mehatxagarria, garbia eta sakona baino:

—Matias... Ez da oraindik berandu. Baina egia esateko, ez duzu denbora asko.

—Nor zara?

—Jon. Eta badakit ez duzula dena gogoratzen, ezta Ariadna ere, nahiz eta Ariadna Bixentek hobeto ezagutuko lukeen, berarekin lan egin baitzuen. Eta zure aurka ere bai. Eta Bixenteri esker, protokoloa abian jarri zen. Ez bakarrik bere erruz, bere parte-hartzeagatik baino.

Isiltasun luze bat. Hitzak bilatzen aritu bazen ere, Matiasak ez zituen aurkitu.

—Zergatik lagundu nahi gaituzu?

Beste muturreko ahotsak isilik jarraitu zuen. Gero, gozo, baina ilun:

—Nik ere parte hartu nuen. Eta inor ez da errugabea. Hala ere. aukera gutxi batzuk geratzen dira oraindik. Bastida. Huraxe da hasiera. Eta akaso amaiera ere bai.

Deia moztu zen. Logela hartan, berriro, isiltasun gogaikarria, ordea, ez zuen inolako beldur zantzurik, gidariak izaten ohi duen isiltasuna baitzen.

Bixente hobeto begiratzeko Matias zutitu egin zen.

—Goazen Bastidara.

Bidean ez zuten musikarik jarri, ezta berba askorik egin, bakoitza bere gogoetan sartuta baitzihoan. Matiasek bere taldekideari Jonek esandakoak partekatu ostean, heldu zen beharrezko oldoztean sartzea. Bastidara Julenek utzitako autoarekin, arratsalde aurreratuan, ia ilunetan heldu zirenean, euria ari zuen, ez bortizki, baina bai etenik izango ez bazuen bezala, eta, horren ondorioz, kaleen gainetik laino fina zabaltzen zen, seguraski itzalei beste geruza bat eransteke zitekeena.

Zumar kale inguruan gelditu zuten berebila. Jon Etxegaraik ez zuen helbide zehatzik eman, baina bidalitako mezuaren metadatua aztertu ondoren, Matiasek telefonoa atera zuen. Router seinaleen mapa erakusten zuen Wi-Fi analyzer aplikazioa zuen instalatuta, bestalde, hacktibismoan, edo eta azpiegitura digitalen segimenduan ohizkoa zena, eta ingurua arakatzeari ekin zion. Seinale gehienak ezagunak ziren: kafetegi bateko erabilera askea, inguruko etxeetako sare babestuak... Baina bat nabarmendu zitzaion: *ltzalpekoa_3A*. Ez zegoen publikoki erabilgarri, ez zuen pasahitzik eskaintzen, baina seinalea indartsua zen, eta Zumar kaleko eraikin zahar batetik zetorrela ematen zuen.

—Hau ez da sare arrunta, —Matiasen mugikorraren pantailara begiratuta, Bixentek murmuratu zuen—. Etxe barrutik dator, eta norbaitek nahita ezkutatu du.

—Ez du esan etor gaitezkeenik, eta, usteak erdi ustel badira ere, irizten diot ez dugula beste aukerarik, —esan zion Bixentek, autoaren motorra amatatuz.

Matias isilik jaitsi zen. Eskailera estu bat igo zuten, eta hirugarren solairura heldu zirenean, ate beltz bakar bat aurkitu zuten, txartelik eta zenbakirik

gabea. Hatz-koskorren kolpetxoak baliatuta deitu zuten. Ez zen erantzunik heldu. Segundo batzuk geroago, klik mekaniko bat entzun, eta atea apur bat zabaldu zen. Ez zen inor agertu.

Barruan, egongela estua, liburuz eta paper zaharrez betea. Hormetan, argazkirik ez, eta leihoak estalita zeuden. Mahai gaineen, bi edalontzi.

—Sartu, —esan zuen ahots batek, atzealdeko gela batetik.

Jon Etxegarai zutik zegoen, jertse beltza eta praka higatuak jantzita. Ez zen zaharra, baina haren begiek islatzen zuten, urte gehiegi zeramatela etxe barruan kanpoan baino. Matiasi aurpegia ezaguna egin zitzaion, ordea, ezin izan zuen Luziarekin erlazionatu; ez zion haren antzik ematen.

—Eskerrik asko etortzeagatik. Ez da erraza onartzea norbait norberaren aztarnen atzetik dabilkizula jakitea.

Matias isilik geratzen zen heinean, Bixente eserleku batean eseri zen. Jonek kaiera bat zeukan eskuetan, eta ireki egin zuen. Barruan, fitxa batzuk, argazki batzuk, eta eskuz idatzitako ohar pila bat.

—Ariadna 2016ko azaroaren 9an desagertu zen. Egunez aurkitu ezina, gauez isilduta darama denbora gehiegi. Baina nik oraindik harremanak izaten jarraitzen dudan norbaitek esan dit agian bizirik egon daitekeela. Eta berak nik baino gehiago daki.

—Non dago? —Matiasen ahotsa apal baina garbi atera zen.

—Ez dakit zehazki. Baina norbaitek berarekin harremanetan jartzea nahi badu, zera esateko agindu dit: *“Ez dira guztiak hil.”*

Bixente berehala tente jarri zen.

—Zer esan nahi du horrek?

Jonek gogoeta egin zuen. Bazirudien haren begiradak ez zuela ezer garbirik agertzen, baina gero jarraitu zuen:

—Zelai Sareak desegin zituztenean, bost kide desagertu ziren. Haietako baten gorpua aurkitu zuten. Beste batek, ustez, bere buruaz beste egin zuen. Beste bi, isildu zituzten. Baina bosgarrena... Ariadna zen.

Haien gomutan-edo, luzeegi joan ez zen isilunea egin zen. Gero, Jonek fitxa bat luzatu zion Matiasi.

—Begiratu hori.

Argazkian, ospitale baten itxura zuen gela batean, Ariadna ageri zen... eta haren ondoan Bixente. Matiasek erretratua begiratu ondoren Bixenteri luzatu zion.

—Hau... ezinezkoa da. Nik... ez dut... —Bixentek ezin izan zuen esaldia guztiz amaitu.

—Gogoratzea ezinezkoa egitea ez da errugabea izatea, Bixente, —esan zion Matiasek—. Hala ere, oraindik baduzu aukerarik. Eta orain galdera bakar bat geratzen zaigu: informazio guzti honekin zer da egitea nahi duzuna?

XXI

Barruan isiltasun kezkarria nagusitu zen. Etxeak paper zaharren usaina izateaz gainera, zerbait gehiago ere gordetzen zuen: Den dena kontrolpean ez izatearen beldurra. Jonek argazkia mahaian utzi, eta beste ezeri jaramonik egin gabe jarraitu zuen. Orduan, han ez zen premia larririk antzematen. Eurentzat, lasterka ibiltzea, aurreko egunetik zetorkien kontua zen.

—Ez dut zuretzako galderarik, —esan zion Jon Etxegaraik Matiasi—. Ezta erantzunik ere. Nik aukera bat dut: Zuri, zuoi informazioa ematea. Orain zurea da egokiera: Sinetsi, bilatu eta zer egin erabaki.

Matias ez zen eseri. Mahaiaren beste aldean zegoen, makurtuta, argazkian azaltzen zen Bixenteren irudia aztertzen. Ariadna bere ondoan zegoen, irribarrez. Bixenteren irudiak, berriz, serio, gorputzaren jarrerak babes moduko bat erakusten zuela.

—Ez nuela gogoratzen, —gaineratu zuen Bixentek, ordurako tonu neutroa baliatzen zuela.

—Ez du axola. Batzuetan gorputzak gogoratzen du buruak ahazten duena. — Orduan, Jonek egurrezko kutxa bat ireki zuen, barrutik gutun bat ateratzeko—. Hau duela hilabete bat jaso nuen. Ariadnaren eskuz idatzita dago. Uste dut mezu moduko bat dela, niri zuzendua, baina zeharka zuretzat ere bai, Matias, eta, Bixente, zeuretzako, noski.

Matiasek gutuna hartu zuen. Eskuz idatzitako testua trazu irregular eta garbian zegoen idatzita. Ez zen izenik behatzen, ordea, lerro batek haren barruak astindu zituen:

"Ez dakit noiz piztu zitzaizun berriro, baina ez gelditu erdian. Akatsaren parte baginen, orain aukera gara."

Matiassek Bixenteri luzatu zion orria zera esnez: —Bixente hau zuretzat da.

Gutunaren bukaeran helbide bat zegoen: Herri hartako udaleko artxibo zaharra. Berriki berritua, erabilera publikoa zuen espazioa bazen ere, garai batean, dokumentu historikoen artxibategi moduan erabilia izan zen.

—Norbaitek ziurtatu dit leku horretan egon zela. Eta uste dut, han, zerbait utzi zuela. Agian bere kabuz joango zen. Agian... beste norbaitek eramango zuen. Nork jakin. —Argitu zien, Jonek.

—Eta... norbaitek badaki gu horra goazela? —Galdetu zion Bixentek.

Jonek ez zuen erantzun zuzena eman, ordea, haren begiradak nahikoa eta lar adierazten zuen.

Gauak Bastida estaltzen zuen eta euria oraindik fin ari zuen, zirimiri erara. Matias eta Bixente artxibo zaharreko atarian zeuden. Eraikin berritua bazen ere, barrutik, oraindik zaharra zela ematen zuen. Barruko argiak itzalita zeuden, ate nagusia itxita, eta albo bateko leihoa arean zabalik.

—Julenen erremintak oraindik baditugu, ezta? —Galdetu zion Matiassek.

Ezer esan gabe, Bixentek motxilan zeraman zorro txikia atera zuen. Ordu gutxi batzuk lehenago, lanabes haiekin beste gauza batzuk ireki zituzten.

Barrura sartu ziren. Beheko solairuko gelak hutsik ziruditen. Korridoreetan oihartzunak entzuten ziren, baina ez zen inor ikusten, edo hori sinetsi nahi zuten.

Sotoaren sarrera itxita zegoen, hala ere, ez zegoen giltzapeturik. Barnera jaitsi zirenean umeltasun ahokadak muturra okertzera derrigortu zituen. Armairu batzuk, mahaiak... Eta mahai baten gainean, gutun-azal txikia.

Matias hurbildu zen. Barruan pendrive bat, eta paper zati batean, mezu laburra:

"Hau ez da guztia, alabaina, hastapena da. Eta begiratu leihoa: ez pentsatu bakarrik zaudetela."

Matias bueltatu zenerako Bixentek bederatzikoa oratuta zuen.

Barruko leiho txiki batetik, argi zuri bat sartu zen; unetxo bat baino ez zen izan. Kanpotik... bideokamera baten distira zen.

XXII

Lekoretik barneratu zen distirak bi lagunen bihotzak arineketan jarri zituen, eta, aldi berean, argiztatzen zuen airea astun bihurtzeraino eraman zuen, espazioa distortsio gunea bilakatuz, non konturatuta zein konturatu gabe, erraz erratu zitekeen gauzak ziren bezalako ulermenean. Isiltasuna apurtzera, karrikako espaloi bustitik urrats arinen hotsak heldu ziren.

—Norbaitek jarraitu gaitu, —bederatzikoa oratuta zuela, Bixentek marmarka bota zion kideari.

Matiasek pendrivea poltsikoan sartu, eta, ingurua behatzera, begiak batetik bestera zuzendu zituen. Sotoa estua zen eta irteera bakarra zuela zirudien. Paretari itsatsita zegoen egurrezko armairuak atea arean zabalik zuen. Matias hurbildu zen. Barnean, horma batean pitzadura meharra... eta atzean tunel estu bat zekusan, seguraski berunaren sasoiko politikoen larrialdi irteera-edo zitekeena.

—Ez da egia izango... —Matiasek ahots xehez bota zuen. Ordurako Bixentek aurrera egin zuen, eta animatzen zuen kidea urratsak azkartzera.

—Orain ez dago baieztapenak egin beharrik. Goazen!

Azpibide estuak aire zaharra zekarren, egur eta freskotasunaren nahasketa zitekeena. Mugikorren argi txikiek erakusten zien bidea. Atzean geratutako sotoan, kristal baten haustura entzun zen.

—Sartu dira, —partekatu zion Matiasek—. Lasterka hasteko prest?

Tunelak ez zuen luze zirudien bidea hartu. Eskuinetik bihurgune bat, gero ezkerretik beste bat, eta azkenik, eskailera zaharra eta burdinezko atea.

Bixentek bultzatu zuen, eta kanpora irten ziren: Eraikinaren atzealdea zen; espazio gardena erabat hutsik zegoen hesiz inguratutako lorategia zirudien.

Ez zuten denborarik galdu. Alde egin zuten, eta, hogeiei minutu geroago, hotel txiki bateko logela nahiko handian babestu ziren. Gau hartan ez zuten Julenengana bueltatu nahi, norbaitek euren arrastoak jarraitu bazituen ekiditeagatik.

Goizaldean, logelan, Matiasek pendrivea ordenagailura konektatu zuen. Ez zen pasahitzik behar. Lehenengo fitxategia bideo bat zen: izenburua "Azalpena_01.mov".

Saguarekin klik egin zuen.

Pantailan, Ariadna agertu zen. Bideoaren kalitatea txarra zen, bazirudien kamera eramangarri batekin grabatua zela. Ariadna jertse berde argi batekin ageri zen, begirada zolia kamerara zuzenduta zuela.

"Badakit hau ikusten duzuenean gauzak gaizki egongo direla. Nik ez dizuet dena kontatuko. Ez dut nahi. Baina Bixente... badakit zu zarela. Eta ez dakizu nor zaren. Hori da haien arrakasta. Arren, Matias Bixenteri laguntza eman behar diozu."

"Protokoloa ez da dokumentu bat, ezta ekintza bakarra ere. Sarea da. Jendea da. Konexioak dira. Eta ni, zu bezala, barruan egon nintzen. Baina ni atera nintzen. Zu... ez dakit."

"Bidali dizudan informazioarekin badakizu nondik hasi. Baina ez fidatu. Alde dituzuenak ez dira beti zuen mesedetan ibiliko. Eta, nik ere, ez dut segurtasunik zugarik. Barkatu."

Bideoa moztu zen. Pantaila beltz ipini zen.

—Zer da hau... —Matiasen ahapeka.

—Zuri ere esan dizu, —erantzun zion Bixentek, apur bat urrunduta—. Baina zuk... ez zenuen Ariadna gogoratzen, ezta? —Baieztatu zion Matiasen galdera erara.

Matiasen eskuak burua estaltzera joan ziren. Ez zen negar egiteko unea, ez eta hitzak aurkitzeko ere.

—Ez. Baina orain... zerbait sentitzen hasten naiz. —Bixentek.

Eta horretan, pendriveko bigarren fitxategia automatikoki ireki zen: Dokumentu baten kopia zen, goiburuan letra larriz ondorengoa zegoena:

"PROTOKOLO BELTZA — AZPI-MAILA: TRANTSIZIOA"

XXIII

Pantaila ilundu zen, une batez. Matias eta Bixente isilik zeuden, elkarri begira, logelaren barruan, hotelaren paretaren beste-aldeko sexu hotsak eurentzat ia existitzen ez zirela. Eta bat-batean, agiria zabaldu zen.

Goiburua, letra larri beltzez, eta azpian kodea:

PROTOKOLO BELTZA

Azpi-maila: TRANTSIZIOA

Dokumentu klasifikatuaren laburpena — 2015eko ekainaren 14an sortua

Lehenengo lerroek ez zuten azalpen askorik ematen, baina arrastoak agertzen hasi ziren:

“Trantsizio fasea Protokoloaren erdiguneko elementuetako bat da. Ez da hasiera, ez eta amaiera. Bitarteko tresna bat da, pertsonak eurek ezagutzen ez dituzten roletara egokitze erabiltzen dena.”

“Ez da hipnosia. Ez da farmakologikoa. Protokoloak memoria-mekanismoak birbideratzen ditu, iraganaren zati batzuk blokeatzeko eta beste batzuk berreraikitze. Honen helburua: esku-hartze moralik gabe, esleitutako eginkizuna betearaztea.”

Matiasen hatzak gelditu egin ziren. Begiak pantailara itsatsita zituen. Atzean zutik Bixente, eta, ez zuen ezer esan, nahiz eta zerbait gogoratuko bazuen bezala zegoela antzematen zitzaion.

“Trantsizio fasea aktibatzen denean, subjektuak aurreko funtzioei buruz ez du oroitzapenik izango. Ingurune kontrolatuan ezarritako ikuspegiaren barruan jardungo du. Inoiz, aldi hori hausteko arriskua badago, Protokoloa geldiarazi

behar da. Horregatik da hain arriskutsua: Norberaren nortasuna berreskuratzen bada, egitura osoa kolapsatu daiteke.”

Matias sek segundo batzuetan ez zuen arnasarik hartu, Bixente, ordea, mutu eta jelatuta zegoen.

“B U” siglak agertzen ziren agirian.

“Fase honetan: Pasiboa. Ez dago aktibazio arrastorik, ordea garai batzuetan aktibo izandakoa da.”

“Oharra: Zure izena ez baduzu gogoratzen, oraindik barruan zaude.”

Pantaila belztu zen berriro. Matias sek lehen aldiz mugitu zuen aulkia.

—B U... Zu zara, ezta?

Bixentek burua makurtu zuen. Ez zuen ezer esan, ez zuen ezer ukatu. Gero...

—Ez dakit nor naizen. Baina bai, esango dizut, izan nintzela, eta argi eta garbi dakit nire izena zein den.

Isiltasuna bere nahierara zebilen joan eta etorri; halakoren batean, gela osoa hartu zuen berarentzat. Bixentek zerbait esan nahi bazuen ere, ez zuen hitzik aurkitzen. Azkenean, muskuluak tenkatzeko Matias jaiki zen. Ariadnaren bideoa berriz ikusi nahi zuen. Ez informazioa egiaztatzeko, ahotsa entzuteko baino:

“Ez gelditu erdian.”

Ez ziren ihesean ibiltzeko gizonak. Orduan, jokoaren egitura bera haustera zihoazen. Eta horretarako, gehiago jakin behar zuten.

—Gure hurrengo helburua, zalantzarik gabe... Protokoloa nork aktibatu zuen jakitea da, —baieztatu zuen Matiasek—. Eta nola gelditu daitekeen, —gehitu zuen Bixentek, sinesmen sendoa antzematen zitzaiola.

Matiasek pantailari azken begirada bota zion. Eta gero, zera esan zuen:

—Jokoa ez da bakarrik norabidea aldatzea. Jokoa da... taula gainetik jaistea, eta jokoari berari sua ematea.

XXIV

Goizaldearen ondotik, herriko karrikak berriro bizitzaz betetzen hasiak ziren. Ordukoan Matias eta Bixenteren pausoak ez ziren ohikoak: Beste geruza batean zebiltzan. Ez ziren jada ihesean zeudenak, ezta babes bila zebiltzanak. Orain... ekinean ziharduten.

Hotel txikiko logela isilik utzi ondoren, geroago, Samaniegoko Murriarte kalean geratu zuten automobila. Bertan, Jon Etxegaraik adierazitako taberna zahar bat zegoen, kanpotik itxita zegoela ematen zuena, ordea, barrutik... bazirudien erabilera berezietarako gordeta egoten zela.

Zerbait usaintzen zen han; zerbait gertatzen zen. Eta Jonek leku hartan kokatzen zuen hurrengo urratserako ezinbestekoa zitekeen arrastoa.

—Ez da etorriko, —esan zion Bixentek, barraren kontra zegoen taburete itxurako aulki batean eserita.

—Ez, baina norbait bidali du, —erantzun zion Matiasak, atzealdeko atea irekitzen ikusi zuenean.

Barrura, emakume bat sartu zen, garaiera ertaina, ile motza, eta ibilera ziurra zuena. Ez zen ezaguna, alabaina, Matiasen begiek haren aurpegieran zerbaiten arrastoa hauteman zuten.

—Ni Garazi naiz. Jonek esan dit zuok jasotzen dituzuen mezuen egitura ez dela bakarra. Zuok... goiko lerroetako jendearekin konektatu zineten. Baina ez dakizue nork piztu zuen kontua.

Garazi eseri egin zen, eta folio itxurako paper bat atera zuen. Ez zen ofiziala, ez zuen sinadurarik, hala ere, goiko aldean izen bat azaltzen zen:

"Arduradun tekniko-kudeatzailea: Raúl Moguer"

—Hori izan zen Protokoloa ofizialki martxan jarri zuenetako bat. Ez zuen botoia sakatu, baina bera izan zen baimena eman zuena. Eta badakit nondik abiatu zen guztia: Probintzia Auzitegiaren barruko bulego batetik. Bertan sortu zen 'trantsizio' kontzeptua. Eta ordutik urteetara, bertan, Bixente... zure izena lehen aldiz 2013an agertu da.

—Zergatik? —Bixenteren ahotsa lehorra zen, hala ere, aldi berean nolabaiteko dardara sumatzen zitzaion.

—Zure esperientzia. Zure posizioa. Eta batez ere... jendea konbentzitzeko daukazun gaitasuna, eta, baita, Matiasen laguna zinelako. Ez zenuen indarrik erabili, baina bai diskurtsoa. Zu zinen horien "aurpegia". Eta gero... desagertu egin zinen, edo desagerrarazi zintuzten.

Matias bere eserlekuan mugitu egin zen.

—Eta orain, zer?

Segundo batzuk isilik eman ondoren, gaineratu zuen:

—Raúl Moguerrek oraindik aktibo jarraitzen du. Jada ez dago bulego horretan, baina egunero joaten da eraikin bereko artxibo digital zaharrera. Agian ez du espero norbait hara joatea. Baina... hura da bidea.

Paperari begiratu ahala, Matiasek bihotzean zerbait mugitzen hasten zitzaiola antzeman zuen: Ez zen beldurra, ezta segurtasunik eza. Zorrotz ulertzen ari zen nora eraman nahi zuten, eta erabaki bat hartu zuen.

—Ez diogu buelta gehiagorik emango. Hara joango gara. Eta galdera bakarra egingo diogu: *zergatik zu, Bixente?*

Eta erantzuten ez badu... *orduan jakingo dugu nora zuzendu gure txostena.*

Bixentek baietza adierazteko burua gora-behera eragin zuen. Eta Garazi isilik geratu zen. Bidean ziren. Eta bidean ez zegoen jada atzera bueltarik.

XXV

Goizeko hamarrek izango ziren, Probintzia Auzitegiko eraikinaren atze aldeko sarrerara heldu zirenean. Egun eguzkitsua zen egiten zuena, alabaina, Matias eta Bixenteren inguruan, laino sendoa bezalako nagusituta zegoela antzeman zitekeen. Gainera, ordu hartarako, nolabaiteko argitasunaz igartzen zen, eraikinaren itzalak luzeegiak zirela.

Atzealdeko bisitarienezako sarbideetik barneratu ziren. Hangoak ez ziren kontrol zorrotzak. Atea igaro eta Garazik emandako ibilbideari jarraituta, artxibo digitalen gunera iritsi ziren. Eraikineko zoko bakartia zen, apenas erabiltzen zena. Bertan, ordenagailu zahar baten aurrean, itxuraz mesfidatia zen gizona eserita zegoen, paper multzoa esku artean zuela. Bixentek lehenik begiratu zion. Ile urdindua, aurpegian betaurrekoak eta mugimendu neurtuak. Hura zen Raúl Moguer.

Bixente aurreratu zen. Gizona ez zen zutitu.

—Zure abizena Moguer da, ezta?

Gizonak burua altxatu zuen, eta Bixenteri so egin zion. Ez zuen ezer esan. Begiratu eta berehala, zerbait ulertu zuen.

—Pentsatu nuen egunen batean itzuliko zinela, —baieztatu zuen.

Bixentek jaikita jarraitu zuen. Ez zuen esertzeko asmorik.

—Ez naiz itzuli. Ez dakit noiz egin nuen alde. Eta ez dakit zer egin nuen. Baina galdera bat dut: zergatik ni?

Paperak alde batera utzi, eta luze hartu zuen arnasa. Haren ahotsak ez zuen inolako erruki zantzurik.

—Ez zenuelako inoren antzik, zu zeu zinelako, nortasun berezikoa. Eta batez ere... *konbentzitzeko modu berezia zeneukalako*. Zu zeu zinelako sinesten zuten. Eta jendeak sinesten zuen, zeuk zeugan sinesten zenuelako.

Bixentek ez zuen begirada aldendu.

—Zer sinesten nuen, Raúl?

—Justizia. Ordena. Babesa. Egia. Zerbaitek bultzatzen zintuen barrutik, baina ez zinen ohartzen zein erabilgarri zinen. Eta guk... guk baliatu egin zintugun.

—Zuk, —esan zuen Bixentek—. Zuk baliatu ninduzun.

Raúlek inongo lotsarik gabe baietz esan zion.

—Eta zuk, Bixente, zeure buruari ez diozu galdetu behin ere, zergatik jarri zuten zure izena protokoloan? Zergatik pasiboa? Zergatik desagertua?

Bixentek bestearengana aurpegia hurbildu zuen. Jarri ere, oso hurbil jarri zuen.

—Esadazu orain: Nola gelditzen da Protokoloa?

Moguerrek barre lehor bat bota zuen; ez zen izan ozena, baina, bai... desatsegina.

—Protokoloa ez da gelditzen. Protokoloa... *zu zara*. Zure izena oraindik sistema horren barruan aktibo dago. Ez du axola nork aktibatu zuen, nork onartu zuen baino.

Isiltasuna gogaikarria bihurtu zen. Moguerrek ordenagailuaren pantaila adierazi zuen.

—Zure izena ezabatzeko kodea dago hemen. Baina... kode hori aktibatzeak zerbait gehiago eragiten du: egitura bera desegiten du. Informazioa askatzen du. Eta, noski, beste batzuk kaltetzen dira, edo hiltzen ditu.

Bixente isilik geratu zen. Begirada zuzena izaten jarraitu zuen. Gero, poltsikotik erretratua atera heinean, Matias mintzatzen hasi zen.

—Badakigu, eta badakigu, kontu guzti hau argitara atera daitekeela. Ez gara gehiago isilduko. Eta zure sistema... ez da jada hain isila izango.

Moguerrek ez zuen ezer esan. Matias eta Bixentek artxibo gelatik alde egin zuten. Haien oinkadak korridorean entzuten ziren, eta, atzean, ordenagailuaren pantailak argitasun hitsa jaurtitzen zuen paretaren azalera.

XXVI

Hirian gaua lasai zetorren, ordea, Matiasen garunak ez zuen bakerik. Julenek utzitako etxera itzuli ziren, oraingoz leku seguruena zela sinetsita, baita hango ingurua zaintzea errazagoa iruditzen zitzaielako ere. Bixente leiho batetik bestera zebilen kanpora begira, kalean ematen ziren mugimenduak aztertzen. Matias, berriz, ordenagailuaren aurrean eseri zen, pendrivea eta jasotako dokumentu guztiak mahai gainean zabaldua zituela.

—Den dena gaur gauean prestatu behar dugu, —esan zion, ahots apal eta irmoz—. Bihar goizean, goizeko seiak eta erdietan, informazioa plataforma ezberdinetara bidaliko dugu: Kazetari independenteei, sareetara, eta babespeko zerbitzuetara.

—Eta guk? —Galdetu zion Bixentek—. Gero zer gertatuko da gurekin?

Matias isilik geratu zen. Ez zuen ezagutzen erantzuna, edo, bai, hala ere, ez zekien zelan esan beharko zion.

—Gu ez gara hain garrantzitsuak, —halako batean atera zitzaion—. Ezin dugu irabazi, baina... Protokoloa ere ez da garaile aterako, behintzat ez bada isilik mantentzen. Eta guk ez dugu isilik geratu nahi.

Bixenteri irribarre tristea azaldu zitzaion aurpegieran. Gauak irentsitako gizakiak ziren, alabaina, esku artean zeukatenaz, gaua bera apurtzeko aukera zuten.

Ordu pare bat geroago, den-dena zuten prest: Dokumentu digitalak sailkatuta, bideoak, datu gordinak, froga grafikoak. Orduan, Jon Etxegarairi mezua bidali zioten:

“Gertu gaude. Egunsenti aurretik bidaliko dugu.”

Bat-batean... mugikorrak dirdira egin zuen. Zenbaki ezezaguna zitzaien. Mezuak lerro bakarra zuen soilik:

“Zuek isilik egon ez zaretenez, beste batzuk betiko isilduko dira.”

Matias eta Bixentek elkarri begiratu eta Juleni deitu zioten. Ez zuen erantzun. Bigarren saiakera. Ezta orduan ere.

—Ez... Ez da posible, —esan zuen Bixentek.

Tabernara jaitsi ziren. Gaua oso hotza zen eta iluna. Ateetara iristean itxita aurkitu zuten. Kanpoan, ez zen ezer arrarorik sumatzen. Baina barnean... Barnean, isiltasun sobera zegoen bientzat.

Sartu zirenean, atzeko logelan argia piztu zuten. Mahai baten gainean gutun bat zegoela zekusaten, Julenen letra lodiarekin idatzita egon ere:

“Ez dakit iritsiko naizen. Ez dakit zuokin berriro hitz egiteko aukerarik izango dudan. Hala ere, jakin ezazue, ondo egiten ari zaretela. Eta ni, ahal dudan neurrian, ez naiz geldituko.”

Ez zen odolik ikusten. Inguruan ez zegoen arrasto fisikorik, ordea, Julen ez zegoen han. Eta mehatxua, jada egia bihurtzen hasia zen.

Logelara bueltatu zirenean, Matias ordenagailuaren aurrean eserita geratu zen. Bixente atzean zeukan, begiak pantailari itsatsita. Bidalketarako oharretan Matiasak azken esaldia idatzi zuen:

“Hau ez da istorio bat. Ez da fikzioa. Hau existitzen da, gu existitzen garen moduan. Zuon ardurakoa izango da guzti hau isiltzea edo partekatzea.”

Goizeko ordu biak. Lau ordu falta ziren.

Eta denbora tarte hartan... edozein gauza gerta zitekeen.

XXVII

Goizaldeko lauak. Kaleko farolak oraindik piztuta zeuden, hala ere, bazirudien egunabarreko hotzak ez ziola argiari gelan barneratzen uzten. Matias eta Bixente Julenen etxean zeuden. Julen desagertuta zegoen; ez zekiten non egon zitekeen, ezta bizirik zegoenik ere. Gelan, ordenagailua martxan, datuak prest, kanal guztiak irekita, mezuak programatuta, den-dena zeukaten prest.

—Goizeko sei eta erdietan. Hori da epea. —Matiasen ahotsa egonkorra zen.

Bixentek irribarre apalez erantzun zion.

—Orduan... bostetan kafe bat?

Matiasek ere irriño sotila agertu zion. Alabaina, begietan zerbait antzematen zitzaion, zerbait iluna eta sarkorra.

Bostak laurden gutxi zirela, lehen alarma piztu zen. Sareko kanal nagusian, zerbitzaria itzali zuten. Nabigatzaileak ez zuen erantzuten. Matias arin mugitu zen.

—Zibererasoa. Ez, hau ez da ohizkoa. Helburu bat dute: Gu geldiaraztea.

—Beste kanalak?—Galdetu zion Bixentek.

—Bi itxita. Bat oraindinokarren aktibo. Baina, hori esatea ez da nahikoa.

Une hartan, beste behin, mugikorrak dirdira egin zuen. Mezu berri bat. Ez zen testua. Irudi bat zen.

Matiasen aurpegia zen, Julenen tabernako atetik irteten zegoela ateratakoa. Bezperan. Argazkia kanpotik hartuta. Eta behean testu bakarra:

“Ez zara iritsiko.”

Matias ordenagailuari begira geratu zen, eskuak gertu, alabaina, gorputza izoztuta zuen. Bixente bere atzean zegoen, ingurura begira, eta bederatzikoa zorroan.

—Oraindik bat gelditzen da, —esan zion—. Plataformarik anonimoena. Kodea aldatu behar dugu, baina erabili dezakegu.

—Eta gero? —Galdetu zion Bixentek.

—Gero... dena zabalduko da. Eta guk... ikusiko dugu.

05:56.

Matias sek zerbitzari berri hartara dokumentuak igo zituen. Segundo batzuren buruan, mezu nagusia prestatu zuen: bideoak, dokumentuak, Ariadnaren testigantza, Protokolo Beltza osorik, eta Bixenteren eta bien mezu pertsonala.

Pantaila zuriaren aurrean, azken mezua idatzi zuen:

“Ni Matias M. naiz eta nirekin Bixente U. dago. Kontu hau sinatu zen, nahita edo nahi gabe. Eta orain, guzti hau, hautsi nahi dugu. Hona hemen egia. Hau ez da erabaki heroikoa. Hau premia da. Ez duzu zertan sinetsi behar. Baina begiratu ezazu.”

Bixente konturatu zen kanpoan auto bat gelditu zela. Argiak itzalita zituen. Bertatik itzal bat atera zen.

05:59.

Matias sek botoia sakatu zuen.

“Bidali.”

Sarean barrena fitxategiak hegan joan ziren. Berehala plataforman zabaldu ziren. Mezuak iritsi ziren: Komunikabideetara, sare sozialetara, artxibo digitaletara. Eta une hartan Protokoloa hautsi zen.

Bizilekuko kanpoko atea kolpatu zuten. Ez bortizki. Ez apurka-apurka. Baina kolpea izan zen. Eta Bixentek bederatzikoa atera zuen.

—Orain? —galdetu zion.

—Orain... edonora, —erantzun zion Matiasek.

Eta kaletik, urrutira, sirena hotsa entzuten zen.

XXVIII

Ez ziren ohizko egunak, ez goiz hartan, ez eta hurrengoetan ere.

Hiriko egunkari nagusian, goiburu zuri-beltz bat agertu zen:

"Ez da teoria bat: Existitzen da. Protokolo Beltza agerian."

Artikulua sinatu gabe zegoen. Baina barruan, jasotako dokumentuetan oinarrituta xehetasun guztiak agertzen ziren: Trantsizio fasea, memoria-mekanismoen manipulazioa, eta estatu egituren arteko konplizitatea.

Eguna hasi orduko, jada sare sozialetan informazioa zabalduta zegoen. Mezuak, eztabaidak, zalantzak, eta baieztapen sutsuak pilatzen hasi ziren. Batzuk sinesten zuten. Besteek ez. Ordea, orain, informazioa existitzen zen.

Matias eta Bixente ezkutuan zeuden, hiriaren kanpoaldeko Julenen lagun baten baserrian. Ez ziren kalera ateratzen. Ez zuten mugikorrik pizten. Ez zuten euren izenik ezertarako erabiltzen. —Behinik behin, zer gertatuko den ikusi arte. —Esan zion Matiasek.

—Orain isilik egotea ez da amore ematea, —Bixenteren ahotsa aldi berean apala eta tinkoa zen—. Orain isilik egotea... entzuten uztea da.

Matiasek ez zion erantzun. Leihotik beste aldera zeuden mahastiak behatzen zituen, eta, handik haratago, bide zuzena, argia, batzuetan iluna, akaso espero ez den norbait agertzen denean bezala...

Goizeko hamaikak pasatuta atea jo zuten.

Ez zen bortitz. Ez zen ozen. Baina hots argia izan zen. Bixentek atea ireki zuenean, norbaitek gutun-azala utzia zuen atarian. Ez zen inor ikusten.

Barruan, argazki bat: Julen, leihotik lekora begira. Bizirik. Eta paper txiki batekin batera:

"Ez zuen hitzik egin. Ez zuen inor saldu. Beraz, oraingoz... badu arnasarik."

Ez zen mehatxu zuzena. Ez zen promesa. Baina argi zegoen haien ekintzen ondorioa zela.

Arratsaldean, Bixente egongelan zegoen, egunkaria eskuetan zuela. Barruko orrialdeetan, artikuluko batek haien kasua laburbiltzen zuen, ordea, izenik aipatu gabe. *"Sistemaren baitako izenik gabeko pertsonak, egiari bide eman diote."*

—Ez gara izenak. Ez gara argazkiak. Ez gara heroiak, —esan zion Matiasek, egurrezko aulki batean lasai zegoela eserita—. Baina badakigu nortzuk ginen. Eta hori... aski da.

Gaua heldu zen berriz. Beldur gutxiago zegoen, hala ere, segurtasunik eza antzematen zen. Eta haizeak, baserriko leihoan kolpatzen zuenean, oraindik karren kaleetako zurrumurruak zekartzan. Orain, egia bizirik zegoen, eta hori zen benetako aldaketa.

XIX

Hiru hilabete igaro ziren. Eta denbora ez zen nahikoa izan ezer argitzeko, ordea, bai gauza batzuk kokatzeko.

Protokolo Beltza jada ezin zen ukatu. Estoldetakoek gezurtatzeko saioa egin zuten, eta gutxi batzuek sinetsi ere bai. Beste asko... isilik geratu zen. Alabaina, egia argitaratu zenetik, ez zen kontzientzia batzuetan bakarrik bizi: Paperean, pantailan, eta, batez ere, jendearen artean zegoen.

Matias ez zen berriro bere hiritik azaldu, Bixente ere ez. Ez zen atxiloketarik izan, ez eta salaketa ofizialik. Baina bazegoen jendea den-dena zekiena, eta askoz ere pertsona gehiagok ezagutzen zuen, ordura arte solik susmatzen zuena. Euren gainetik, isiltasunaren geruza zabaldu bazen ere, azpian mugimendu txikiak sortzen hasi ziren: taldeak, foroak, elkarrizketa irekietan hitz egiten zutenak... Eta hainbat tokitan, orain, *“Protokoloa hautsi da”* esaldia kode bat bihurtu zen.

Julen bueltatu zen tabernara. Ez zuen inorekin kontu hartaz hitz egiten. Aldaketa txiki batzuk egin zituen barruan: Paretan, argazki bat zintzilikatu zuen. Ez zen Matiasena, ez eta Bixenterena. Hiruzpalau pertsona ageri zirenekoa zen, tartean... Ariadna.

—Hitz egin zuten, —esan zion behin, ohizko bezero batek—. Eta haien garaipena gure artean hitz egitea da.

Beste nonbait, herri galdu baten bazter batean, Matias korridore estu batetik zebilen, liburu zaharren artean. Dokumentuak sailkatzen zituen, orriak berridazten eta izenak ezabatzen. Egunean bi aldiz irteten zen paseatzera. Ez zuen bere izena erabiltzen. Ez zuen inor bisitatzen. Baina bazirudien norbaitek gutunak bidaltzen zizkiola.

Gutun horietako batek zioen:

“Zure historia ez da ahaztuko. Ez delako bakarra.”

Eta hori nahikoa zuen jarraitzeko.

Beste batek barru barrutik zirrara bizia idoki zion; aspaldi ezagutu zuen andra batena zen. Garunean ezin zuen erabat zehaztu, hala ere, behin bera kontratatu zuena zitekeela barrundatzen hasi zen. Sara Bidart zuen izena, eta honakoa zen berak utzitako mezua:

“Buelatu zaitezan gura dot. Ez neizu hemen bakarrik utzi”

Gau batean, norbaitek pasealekuko zuhaitz sendoenean mezua idatzi zuen paper labain baten gainean:

“Egia ez da beti garaipena. Baina egia zabaltzen denean, gezurra ez da sekula lehen bezalakoa izaten.”

Eta azpian, izen bat:

M.M.

Epilogoa

Inork ez zuen baieztatu, ez hitzez, ez idatziz. Ez zen egunkarietan agertu, ez albistegietan eztabaidatu, ez eta komunikatu instituzionalen zerrenda aseptikoetan irakurri ere. Isiltasuna izan zen bertsio ofiziala. Baina kaleko hormetan, foro ilunetan, irrati piratetan... eta begirada zintzoen artean, bazekiten. Bazekiten Protokolo Beltza existitu zela, eta hautsi egin zutela.

Batzuek guzti hura txantxak egiteko erabili zuten, modan jartzeko esaldia bihurtzeko-edo: "Gezurra hautsia". Beste batzuek, aldiz, modu isilean hartu zuten. Arduraz. Bizimodua berrikusi zuten, jakinaren gainean zeuden haien antzera, begirada kontu arriskutsuen artean ibiliz, gero hausnartzeko, eta erabakiak hartzeko. Bazekiten, egunen batean, zerbait apurtuko denean, hautsitakoa berriz eraikitzea ez dela beti posible izango.

Aldi berean, informazio zati batzuk desagertzen hasi ziren: estekak, bideoak, dokumentuak. Batzuk "ezabatzen" saiatu ziren, baina berandu zen. Zeren egia benetan zabaltzen denean, ez dago atzera bueltarik. Jada ez da kontrolagarria, ez eta guztiz ulertzekoa ere.

Zerbait gelditu zen isilpean, ordea, nortzuk izan ziren? Nortzuk izan ziren izenik gabeko haiek, informazioaren zulo hartara sartu, eta berriz irten zirenak? Badira susmoak, hala ere, ez dira beharrezkoak. Ez da beti garrantzitsua izaten nor zen jakitea. Baina, bai, nor izan nahi zuen, eta, atzean, trukean, zer utzi behar izan zuen.

Eta inoiz, gauaren isiltasunean, herri galdu batean, edo taberna zahar batean, norbaitek paper batean mezu bat uzten du, mahai baten gainean edo horma batean:

"Hemen ez da ezer ahazten. Ez zaituzte ahaztuko. Eta hurrengoek... ez dira bakarrik sentituko."

Eta hori, agian, nahikoa litzateke.